



# V. Inkesta Soziolinguistikoa

**EUSKAL HERRIA  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA  
NAFARROA  
IPARRALDEA**

# 2011

# V. Inkesta Soziolinguistikoa

# 2011

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

**Vitoria-Gasteiz, 2013**

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.

Argitaraldia: 1.a, 2013ko uztaila

Ale-kopurua: xxx

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala: Antton Olariaga

Maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea:

ISBN: 978-84-457-3303-5

Lege Gordailua: VI-xxx/2013

# AURKIBIDEA

## *Euskara helburu.*

Cristina Uriarte Toledo, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua	9
---	---

## *Bizi-indarra ostertzean.*

Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea	11
---	----

## **EUSKAL HERRIA**

1. Hizkuntza-gaitasuna	15
1.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera	15
1.2. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera	22
1.3. Elebidunen erraztasuna euskaraz egiteko	25
2. Hizkuntzaren transmisioa	29
2.1. Lehen hizkuntza	29
2.2. Elebidunak lehen hizkuntzaren arabera	31
2.3. Familia bidezko transmisioa	34
2.4. Euskararen irabaziak eta galerak	37
3. Euskararen erabilera	40
3.1. Euskararen erabileraren tipologia	40
3.2. Erabilera adinaren arabera	42
3.3. Erabilera eremuaren arabera	46
3.4. Euskararen erabilera elebidunen artean	50
3.5. Elebidunen erabilera erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arabera	51

4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera	54
4.1. Jarreraren tipologia	54
5. Laburbilduz	58

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**

1. Biztanleria	63
2. Hizkuntza-gaitasuna	67
2.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera	67
2.2. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera	72
2.3. Elebidunen erraztasuna euskaraz egiteko	78
3. Hizkuntzaren transmisioa	83
3.1. Lehen hizkuntza	83
3.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera	85
3.3. Elebidunak lehen hizkuntzaren arabera	90
3.4. Familia bidezko transmisioa	93
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	96
4. Euskararen erabilera	98
4.1. Euskararen erabileraren tipologia	98
4.2. Euskararen erabilera adinaren arabera	103
4.3. Euskararen erabilera eremuaren arabera	106
4.4. Euskararen erabilera elebidunen artean	112
4.5. Elebidunen erabilera erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arabera	113
4.6. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak	116
4.7. Euskararen erabilera Interneteko gizarte-sareetan	118
5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera	120
5.1. Jarreraren tipologia	120
5.2. Euskarari buruzko zenbait iritzi	122
6. Laburbilduz	125

**NAFARROA**

1. Biztanleria	129
2. Hizkuntza-gaitasuna	133
2.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera	133
2.2. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera	137
2.3. Elebidunen erraztasuna euskaraz egiteko	141
3. Hizkuntzaren transmisioa	145
3.1. Lehen hizkuntza	145
3.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera	146
3.3. Elebidunak lehen hizkuntzaren arabera	150
3.4. Familia bidezko transmisioa	153
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	154
4. Euskararen erabilera	155
4.1. Euskararen erabileraren tipologia	155
4.2. Euskararen erabilera adinaren arabera	161
4.3. Euskararen erabilera esparruaren arabera	165
4.4. Euskararen erabilera elebidunen artean	171
4.5. Elebidunen erabilera erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arabera	172
4.6. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak	175
4.7. Euskararen erabilera Interneteko gizarte-sareetan	178
5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera	179
5.1. Jarreraren tipologia	179
5.2. Euskarari buruzko zenbait iritzi	181
6. Laburbilduz	183

## IPARRALDEA

*V. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak Iparraldean:*

*beherakadak segitzen badu ere, indarberritze bidean aitzina goaz.*

Frantxua Maitia, Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea	187
1. Hizkuntza-gaitasuna	189
1.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera	189
1.2. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera	193
1.3. Elebidunen erraztasuna euskaraz egiteko	199
2. Hizkuntzaren transmisioa	203
2.1. Lehen hizkuntza	203
2.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera	204
2.3. Elebidunak lehen hizkuntzaren arabera	209
2.4. Familia bidezko transmisioa	212
2.5. Euskararen irabaziak eta galerak	214
3. Euskararen erabilera	216
3.1. Euskararen erabileraren tipologia	216
3.2. Euskararen erabilera adinaren arabera	219
3.3. Euskararen erabilera eremuaren arabera	223
3.4. Euskararen erabilera elebidunen artean	230
3.5. Elebidunen erabilera erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arabera	233
3.6. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak	234
3.7. Euskararen erabilera Interneteko gizarte-sareetan	236
4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera	238
4.1. Jarreraren tipologia	238
4.2. Euskarari buruzko zenbait iritzi	241
5. Laburbilduz	244
Fitxa teknikoa	247
Oinarrizko informazioa tauletan	249

Cristina URIARTE  
Eusko Jaurlaritzako  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika  
eta Kulturako sailburua



## EUSKARA HELBURU

“Izenetik izanera, gogoia zubi”, zizelkatu zuen Anjel Lertxundi idazle handiak, euskara eta euskal kulturaren bilakabideari buruzko gogoeta biltzen zuen liburu gogoangarri baten abiaburuan. Esaldi ezin egokiagoa, euskararen aurrerabidearen arrazoiak azaltzeko. Izan ere, euskara bezalako hizkuntza ez-hegemoniko bat indarberritzeko prozesuan, beste zernahi baino ezinbestekoagoa da euskararen sostengu izan daitekeen gizarte bakarraren gogoia, borondatea, atxikimendua. Gogo, borondate, atxikimendu horrek, jakina, ondoan behar ditu, bidean aurrera egin ahal izateko, lege babes egokia eta euskararen sustapena ardatz hartzen duen hizkuntza politika baliabidez behar bezala hornitua, baina herritarren atxikimendurik gabe, gizartearen gogoia suspertu ezean, beste bi faktore horiek alferrikakoak gerta litezke.

Orrialdeotan biltzen diren V. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzek hori berresten digute, hain zuzen ere. Datu horietan egiaztatu ahal izango dugunez, azken hamarkadotan euskaraz hitz egiteko gai diren herritarren kopurua hazi da, eta hazi da, nahiz eta, normala denez, neurri apalagoan, euskararen erabilera ere. Eta lehen aipatu dugun gogo, borondate edo atxikimendu horren erakusgarri, hazi egin da, baita ere, euskararen aldeko jarrera herritarrengan, euskararen lurralde osoari dagokion batez bestekoaren argitan.

Zoritxarrez, euskararen hazkunde hori ez da euskararen lurralde guztietan era homogeenoa gauzatzen. Aitzitik, hazkunde hori ahalbidetzen duen ekarpen nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek egiten dutena da. Euskararen beste lurraldeetan, aldiz, oso apal hazten da ezaguera (Nafarroan) edota hiztunak galtzen dira (Iparraldean). Kontraste bertsua antzeman dezakegu erabilerari dagokionez ere.

Badugu, beraz, zertaz pozturik (hazkunde orokorrerako joera ez da eten), baina baita zertaz arduraturik ere (bide luzea baitugu egiteko euskarak elebitasun orekatu batean behar duen tokiaren jabe egin dadin). Baina badugu, batez ere, zertaz gogoeta eginik.



Eta hori da, hain zuzen ere, argitalpen honen helburu nagusia: ezagutza partekatu batetik sor liteke, inondik sortzekotan, aurrera egiteko modu egokienari buruzko ideia partekatu berririk. Adostasuna baita hizkuntza politika eragingarri ororen osagairik ezinbestekoena, eta ezagutza partekatua da adostasunerako eskaileran lehen maila.

Lau hizkuntzatan ematen dugu argitara (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) 2011n egindako V. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak biltzen dituen liburu hau, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin lankidetzan, eta berariaz eskertu nahi dut elkarlan hori, neure izenean eta Eusko Jaurlaritzarenean ere. Lankidetzak horrek argiro islatzen du bi erakundeok euskararen sustapenaren alorrean aspaldian gauzatzen ari garen konpromiso partekatua, norberaren eskumen eta jardueraren esparruarekiko erabateko errespetuan mamitua.

Liburu honetan biltzen diren datuek, bestalde, euskararen bilakabidearen berri ematearekin batera, gure gizartearena ere agerian jartzen dute, hainbat ezaugarriaren arabera. Ezinbesteko lanabesa da, beraz, bai euskararen egoeraz eta etorkizunaz gogoeta egin nahi duenarentzat, bai agerian jartzen diren ahulezia, indargune, mehatxu eta aukeren nondik norakoak zehazki ezagutu nahi dituenarentzat ere. Abiapuntu sendoa, zinez, garai berriek dakarzkiguten erronkei modu egokian aurre egiteko.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko uztailaren 24an

Patxi BAZTARRIKA  
Eusko Jaurlaritzako  
Hizkuntza Politikarako  
sailburuordea



## BIZI-INDARRA OSTERTZEAN

**H**ona hemen inkesta soziolinguistikoaren helburu nagusia hastapen beretik: zentsu eta errolden maiztasun berarekin –bost urterik behin, alegia– azterketa sakona, jarraitua eta ahalik eta sistematikoena egitea euskararen bilakaera sozialari buruz, era horretara zentsu eta errolden azterketa bidez eskuratutako datuak eta inkestakoak erkatzeko aukera eskainiz, eta, gainera, azterketa hori euskararen lurralde guztietan egitea, EA Eren, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Iparraldeko instituzio publikoen arteko lankidetzaren bidez. Lehendabiziko inkesta soziolinguistikoa 1991n egin zen. Lehen inkesta haren emaitzak 1995ean argitaratu ziren, *Euskararen Jarraipena* izenburupean. Lehendabiziko hartatik bost urtera, 1996an alegia, II. Inkesta Soziolinguistikoa burutu zen, eta 1999an argitaratu. III. Inkesta 2001ean egin, eta 2003an argitaratu zen. 2008an argitaratu zen IV. Inkesta Soziolinguistikoak, berriz, 2006ko datuak biltzen zituen, eta gaur plazara ateratzen dugun V. Inkesta Soziolinguistikoak 2011ko ekainetik abendura bitartean bildutako datuetan du oinarria.

Honenbestez, hogei urteko (1991-2011) azterketa diakronikoa osatzen dugu, euskararen lurralde guztietan jasotako informazio seriatua eskainiz.

V. Inkesta Soziolinguistiko honek aztertzen duen unibertsoa, Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleek osatzen dute (2.650.000 pertsona inguru). Ez ditu biltzen, beraz, adin-tarterik gazteenak eta eskolaren ekarpen bikainari esker euskaldunenak diren haur eta gazteak alegia. Guztira, 7.900 inkesta egin dira (4.200 EAEn, 2.000 Iparraldean eta 1.700 Nafarroan), telefono bidez eta galdetegi egituratu eta itxia erabiliz. Lagina, bestalde, gune soziolinguistikoaren eta udalerriaren arabera estratifikatua izan da, eta emaitzak haztatzerakoan, sexua, adina eta euskaldunen zein ez-euskaldunen banaketa kontuan hartu dira.

Hizkuntza ikerkuntzaren eremu zabalean lehen mailako garrantzia duen ikerketa da liburu honetan laburbiltzen den inkesta soziolinguistikoa, beraz, eta, besteak beste

horrexegatik, guztiz berezkoa izango luke era honetako azterketa batek euskararen lurraldeetako herri aginteen arteko lankidetzak. Gertatu ere, hala gertatu da neurri batean, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak bat egin baitu Eusko Jaurlaritzarekin liburu hau argitaratzeko lanetan. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, gogoko du Nafarroako Gobernuak lankidetzak honetara biltzea eta ahalegin horretan jarraituko du, nahiz eta, tamalez, Nafarroako Gobernuak ez duen orain arte norabide horretan urratsik eman. Era berean, Eusko Jaurlaritzak eutsiko dio aurrerantzean ere Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekiko lankidetzak alor honetan sakontzeko ahaleginari. Izan ere, Europako Kontseilutik aspaldian aholkatu zitzaizgun Estatu barruko erkidegoen arteko nahiz Estatu mugaz gaindiko lankidetzak, euskara indarberritzeko lanetan eragingarritasun faktore gisa, eta aipatu gomendioa betetzeak abantaila baizik ez luke ekarriko euskararentzat.

Liburu honetan laburbiltzen diren V. Inkesta Soziolinguistikokoaren datuei dagokienez, berriz, ugari dira eskaintzen dizkiguten gogoeta-gaiak, eta, oroz gain, bi azpimarratu nahi nituzke lerrootan: alde batetik, eta euskararen lurraldearen barruko hiru erkidegoetan euskarak izan duen bilakaera askotarikoari so, esan liteke euskararen bilakaera soziala baldintzatzen duten faktoreak direla, beste zenbaiten artean, lege estatusa, herri-aginteen hizkuntza plangintza eta politika, eta herritarren atxikimenduaren neurria, eta, ondorioz, hiru faktore horien arteko loturaren tamaina; eta, bestetik, euskararen bizi-indarraren auzia, legealdi honetako gure lanen jomugan duguna.

Bizi-indarrari dagokionez, orrialdeotan eskura jartzen zaizkigun datuetatik ondorio nire ustez garbi bat gailentzen da argiro: euskarak ez du, hiruzpalau belaunalditan, herio-arriskurik, haren osotasunean hartuta esan nahi da, lurraldez lurralde kontsideratzeak eskatuko lituzkeen garrantzizko ñabardurak alde batera utzita. Euskarak, oro har, EAEko bilakaeraren argitan, ziurtatua du biziraupena, nire ustez, aipatu dudan aldi horretarako gutxienez. Baina, beste horrenbeste esan ote genezake euskararen bizi-indarraz hitz egingo bagenu?

Euskara, argi dago, gero eta herritar gehiagoren bigarren hizkuntza da, zorionez, baina aldi berean, gero eta gehiagoren lehen hizkuntza ote? Hor dago gakoa, gako erabakigarria euskararen osasunerako. Bikoitza da erronka: gero eta hiztun potentzial gehiago izango dituen hizkuntza izaten jarraitzea eta, aldi berean, ohikotasunez eta erarik naturalenean gero eta neurri handiagoan erabilia izatea.

Lehenbailehen heldu behar diogu gogoeta horri, gune eta esparru guztietan. Eta hausnarketa emankorra izan dadin, era dokumentatua egin beharra dago. Horretarako oinarri sendo bat eratzen laguntzea da, besteak beste, argitalpen honen xedea. Baliagarri eta onuragarria gerta dakigula.

**EUSKAL HERRIA**


V. Inkesta Soziolinguistikoa



## 1. Hizkuntza-gaitasuna


### 1.1. BIZTANLERIA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

2011ko datuen arabera, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 27 elebiduna da, % 14,7 elebidun hartzailea eta % 58,3 erdalduna.



Horrela, Euskal Herrian bizi diren 16 urte edo gehiagoko 2.649.000 pertsonetatik, 714.000 elebidunak dira, 388.000 elebidun hartzaileak eta 1.547.000 erdaldunak. EAEn % 32 dira 16 urte edo gehiagoko elebidunak (600.000 pertsona), Nafarroan % 11,7 (63.000 pertsona) eta Iparraldean % 21,4 dira (51.000 pertsona).

## 2. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2011 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


## 1. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2011

	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
<b>Guztira</b>	<b>2.649.000</b>	<b>1.873.000</b>	<b>537.000</b>	<b>239.000</b>
Elebidunak	714.000	600.000	63.000	51.000
Elebidun hartzaileak	388.000	326.000	40.000	22.000
Erdaldunak	1.547.000	947.000	434.000	166.000

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

EAE barruan hiru lurraldeetako hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuz, aipatzekoa da alde handiak daudela batetik bestera. Gipuzkoako biztanleriaren erdia elebiduna da (% 49,9, hau da, 300.000 elebidun). Bizkaian, ordea, biztanleriaren laurdena da elebiduna (% 25,4, hau da, 254.000 elebidun). Azkenik, Arabako biztanleriaren bostenera ez da iristen elebidunen ehunekoa (% 16,8, hau da, 46.000 elebidun).


3. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)






Nafarroako datuak eremuen arabera aztertuz gero, eremu euskalduna da elebidunen ehunekorik eta kopururik handiena duena (% 59,3 eta 30.000 pertsona, hurrenez hurren). Eremu mistoko elebidunak % 9,8 dira, hau da 28.500 pertsona. Eremu ez euskaldunak du Nafarroako elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena (% 2,3 eta 4.500 pertsona, hurrenez hurren).

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)



Iparraldeko lurraldeen hizkuntza-gaitasunari buruzko datuetan ere aldeak handiak dira lurralde desberdinen arabera. Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren erdia elebiduna da (% 52,1, hau da, 17.000 elebidun). Lapurdi barnealdean, ordea, biztanleriaren laurdena da elebiduna (% 23,9, hau da, 25.500 elebidun). Azkenik, BAMen ez da 10era iristen elebidunen ehunekoa (% 8,7, hau da, 8.500 elebidun).

## 5. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2011 (%)



Inkesta honetan Donostia, Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta BAMEko datuak emango dira, baina Maule eta Donibane Garazikoak ezin dira eman, lagina ez delako nahikoa.

Aipatzekoa da bost hiriburuek euren lurraldeek baino elebidunen ehuneko txikiagoa dutela. Donostian % 33,5 dira elebidunak, Bilbon % 16,3, Gasteizen % 15,5, Iruñean % 9,1 eta BAMEn % 8,7.

Donostiak du elebidunen ehunekorik eta kopururik handiena (% 33,5, hau da 53.000 elebidun). Elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena, aldiz, BAMEk du (% 8,7, hau da 8.500 elebidun).


2. taula. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuetan. Euskal Herria, 2011 (%)

	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	BAM
<b>Guztira</b>	<b>205.000</b>	<b>308.000</b>	<b>159.000</b>	<b>169.000</b>	<b>99.000</b>
Elebidunak	15,5	16,3	33,5	9,1	8,7
Elebidun hartzailleak	18,7	17,6	14,4	9,3	6,0
Erdaldunak	65,8	66,2	52,1	81,7	85,3

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


Gaur egun hamasei urtetik gorako biztanleen artean 1991n baino 185.000 elebidun gehiago dago (4,7 puntuko hazkundea). Izan ere, 1991an 16 urte edo gehiagoko 529.000 pertsona ziren elebidunak Euskal Herrian (% 22,3). Gaur egun, ordea, 16 urte edo gehiagoko 714.000 pertsona dira elebidunak (% 27).

6. irudia. Elebidunen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Elebidunen hazkundera EAEn gertatu da batez ere (ia 8 puntuko igoera) eta Nafarroan neurri txikiagoan (2,2 puntuko igoera). Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude (5 puntuko jaitsiera), baina gazte elebidunen kopurua hasi da dagoeneko gora egiten.




## 1.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA

Euskal Herriko elebidunak adinaren arabera aztertzerakoan, aipatzekoa da elebidunen hazkundera 35 urtetik beherako adin-talde bietan gertatu dela. Hazkundera oso nabarmena da gazteen artean. Gaur egun, 16 eta 24 urtekoen artean ia erdia elebiduna da (% 46,8) eta herena baino gehiago 25 eta 34 urtekoen artean (% 35,9).

Elebidunen portzentajerik txikienak, aldiz, 35 urtetik gorakoen artean daude, % 25etik beherakoa da elebidunen ehunekoa heldu eta nagusien adin-taldeetan.

8. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Euskal Herria, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Bilakaerari dagokionez, ikus daiteke elebidunen hazkundea 50 urtetik beherako adin-taldeetan gertatu dela, eta gero eta handiagoa dela adinean behera egin ahala. Horrela, duela 20 urte 16-24 urte bitarteko gazteen ia laurdena zen elebiduna (% 22,5) eta ia erdia da gaur egun (% 46,8). Hurrengo adin taldean ere, hau da, 25-34 urte bitartekoen artean, 15 puntuko aldea dago. Izan ere, % 20,3 zen elebiduna 1991n eta % 35,9 da elebiduna 2011n. 35-49 urte bitartekoen artean 5 puntuko aldea dago 20 urteren ostean (% 19,3 versus % 24,4).

Alderantziz gertatu da 50 urtetik gorako adin-taldeetan. Duela 20 urte elebidun gehiago zegoen 50-64 urte bitarteko helduen artean gaur egun baino. Izan ere, % 23 zen elebiduna 1991n eta % 20,5 da 2011n. Azkenik, elebidunen portzentajearen jaitsierarik handiena 65 urte edo gehiagokoen adin-taldeak izan du, 7 puntuko jaitsiera hain zuzen. Izan ere, 1991n % 28,5 zen elebiduna eta % 21,4 da elebiduna gaur egun.

**3. taula.** Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera.  
Euskal Herria, 1991-2011 (%)

	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>2011</b>	<b>2.649.000</b>	<b>594.000</b>	<b>605.000</b>	<b>747.000</b>	<b>446.000</b>	<b>257.000</b>
Elebidunak	<b>27,0</b>	21,4	20,5	24,4	35,9	46,8
Elebidun hartzailleak	<b>14,7</b>	8,4	12,1	16,7	20,8	18,5
Erdaldunak	<b>58,4</b>	70,2	67,4	58,8	43,3	34,7
<b>1991</b>	<b>2.371.000</b>	<b>345.000</b>	<b>549.000</b>	<b>569.000</b>	<b>458.000</b>	<b>450.000</b>
Elebidunak	<b>22,3</b>	28,5	23,0	19,3	20,3	22,5
Elebidun hartzailleak	<b>7,7</b>	3,6	4,2	5,1	7,6	18,6
Erdaldunak	<b>70,0</b>	67,9	72,8	75,7	72,1	58,9

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera aztertzerakoan, azpimarratzekoa da EAEn eta Nafarroan 16-24 urte bitartekoen artean dagoela elebidunen ehunekorik handiena (% 59,7 eta % 20,8, hurrenez hurren). Iparraldean, aldiz, 65 urtetik gorakoek artean dago elebidunen ehunekorik handiena, eta adinak behera egin ahala behera egiten du elebidunen ehunekoak. Hala ere, Iparraldeko gazteen artean duela bost urte sumatutako joera-aldaketa berretsi egin da, eta 2011ko datuen arabera gora egin dute gazte elebidunen ehunekoak eta kopuruak.

Datuak osotasunean aztertuta, baieztatu daiteke elebidunak gero eta gehiago direla EAEn eta Nafarroan. EAEn indartsu, eta Nafarroan apalago. Iparraldean, aldiz, galerak daude oraindik. Hala ere, Iparraldeko gazteen artean gora egin du elebidunen ehunekoak eta kopuruak.

Erdaldunen ehunekoak behera egin du EAEn eta Nafarroan; Iparraldean, aldiz, gora egin du bai kopuruak baita ehunekoak ere.

**4. taula.** Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen eta adinaren arabera.  
Euskal Herria, 2011 (%)


	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>EAE</b>	<b>1.873.000</b>	<b>417.000</b>	<b>434.000</b>	<b>529.000</b>	<b>319.000</b>	<b>174.000</b>
Elebidunak	32,0	23,3	22,9	29,8	44,5	59,7
Elebidun hartzailleak	17,4	9,5	14,2	19,7	25,0	23,2
Erdaldunak	50,6	67,2	62,9	50,5	30,5	17,0
<b>Nafarroa</b>	<b>537.000</b>	<b>115.000</b>	<b>115.000</b>	<b>156.000</b>	<b>95.000</b>	<b>56.000</b>
Elebidunak	11,7	9,3	9,6	10,1	14,5	20,8
Elebidun hartzailleak	7,5	5,1	6,5	9,2	9,3	7,2
Erdaldunak	80,7	85,7	83,9	80,7	76,1	71,9
<b>Iparraldea</b>	<b>238.000</b>	<b>62.000</b>	<b>56.000</b>	<b>61.000</b>	<b>32.000</b>	<b>27.000</b>
Elebidunak	21,4	30,6	24,4	15,1	13,9	17,6
Elebidun hartzailleak	9,1	7,6	7,2	9,8	12,3	11,3
Erdaldunak	69,4	61,8	68,5	75,1	73,7	71,1

### 1.3. ELEBIDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO

Elebidunak hiru multzotan banatu ditzakegu, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

- **Euskal elebidunak** euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen direnak dira. Euskal Herrian 16 urte edo gehiagoko elebidunen % 26,6 dira.
- **Elebidun orekatuak** berdin moldatzen dira euskaraz zein erdaraz. Elebidunen ia herena dira (% 30,6).
- **Erdal elebidunak** hobeto moldatzen dira erdaraz euskaraz baino. Elebidunen multzorik handiena dira (% 42,7).

9. irudia. Elebidunak erraztasunaren arabera.  
Euskal Herria, 2011 (%)



Emaitzak lurraldeka aztertuz gero, esan daiteke ez dagoela alde handirik ehunekoetan.


EAEen elebidun gehienak erdal elebidunak dira (% 42,9). Ia elebidunen herena elebidun orekatua da (% 30) eta laurdena euskal elebiduna da (% 25).



Nafarroan ia elebidunen erdia erdal elebiduna da (% 47,9), laurdena pasatxo elebidun orekatua (% 27,1) eta beste laurden bat euskal elebiduna (% 25).


Iparraldean, ordea, gehienak elebidun orekatuak dira (% 42,6). Elebidunen herena erdal elebiduna da (% 30,5) eta ez da laurdenera iristen euskal elebidunen ehunekoa (% 23,1).

10. irudia. Elebidunak erraztasunaren eta lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2011 (%)



Euskal elebidunek hogeitun urtean 8 puntuko jaitsiera izan dute. Izan ere, % 34,6 ziren 1991n eta % 26,6 dira gaur egun. Gero eta gehiago dira, ordea, elebidun orekatuak (% 27,7 versus % 30,6) eta erdal elebidunak (% 37,8 versus % 42,7).

11. irudia. Elebidunen erraztasunaren bilakaera.  
Euskal Herria, 1991-2011 (%)



Adinari dagokionez, gaur egun Euskal Herriko euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoen artean dago (% 43,6), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek. Horrela, euskal elebidunak % 25 baino gutxiago dira 50 urtetik beherako elebidunen artean. Dena dela, joera hori aldatu egiten da gazteen artean, % 22,6 baitira euskal elebidunak 16-24 urte bitarteko gazteen artean eta % 20,6 dira, ordea, euskal elebidunak 25-34 urte bitartekoen artean.

Elebidun orekatuei dagokienez, ez dago alde handirik adin-talde desberdinen artean (% 30etik gora), gazteenen artean izan ezik (% 26,2).

Azkenik, erdal elebidunen ehunekoa gero eta handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 65 urte edo gehiagoko elebidunen laurdena da erdal elebiduna (% 26,1) eta erdia da 16 eta 24 urte bitartekoen artean (% 51,2).

Duela 20 urteko datuei erreparatuz, azpimarratzekoa da euskal elebidunen ehunekoa nabarmen jaisten zela adinean behera egin ahala eta gaur eguneko baina txikiagoa zela 35 urtetik beherakoen artean eta, hortaz, askoz handiagoa 35 urtetik gorakoen artean.

Elebidun orekatuak gutxiago ziren, oro har, adin-talde guztietan.

1991n erdal elebidunak oso gutxi ziren 65 urte edo gehiagokoen artean (% 18,2) eta gero eta gehiago adinean behera egin ahala. Dena dela, gazteen artean orain baino gehiago ziren erdal elebidunak, aldea txikia izan arren (% 52,8 ziren 1991n eta % 51,2 dira 2011n).

**5. taula.** Elebidunen erraztasunaren bilakaera adinaren arabera.  
Euskal Herria, 1991-2011 (%)

	Elebidunak	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>2011</b>	<b>714.000</b>	<b>126.000</b>	<b>124.000</b>	<b>183.000</b>	<b>160.000</b>	<b>121.000</b>
Euskal elebidunak	26,6	43,6	28,6	21,5	20,6	22,6
Elebidun orekatuak	30,6	30,4	33,5	32,0	30,4	26,2
Erdal elebidunak	42,7	26,1	37,9	46,5	49,0	51,2
<b>1991</b>	<b>529.000</b>	<b>98.000</b>	<b>127.000</b>	<b>110.000</b>	<b>93.000</b>	<b>101.000</b>
Euskal elebidunak	34,6	57,3	44,2	30,6	18,5	19,4
Elebidun orekatuak	27,7	24,5	27,2	27,0	32,2	27,8
Erdal elebidunak	37,8	18,2	28,5	42,4	49,3	52,8

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


## 2. Hizkuntzaren transmisioa

### 2.1. LEHEN HIZKUNTZA

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskara da Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko 537.000 pertsonaren lehen hizkuntza (% 20,3). Biztanleriaren % 15,4k euskara soilik jaso du etxean eta % 4,9k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Azkenik, Euskal Herriko bost biztanletik lauk (% 79,7k) erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari edo frantsesari buruz ari gara nagusiki, baina ez dugu ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza errumaniera, portugesa, errusiera eta abar direla.

12. irudia. Lehen hizkuntza. Euskal Herria, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Alde handiak daude lurralde batetik bestera. Lehen hizkuntza euskara dutenak nagusi dira Nafarroa Beherean eta Zuberoan (% 51,2). Gipuzkoan 16 urtetik gorako biztanleen % 33,9k du euskara lehen hizkuntza. Gainerako lurraldeetan askoz gutxiagok du euskara lehen hizkuntza. Horrela, Lapurdin % 14,5ek du euskara lehen hizkuntza eta % 11,5ek Bizkaian. Ehunekorik txikiena Nafarroak (% 6,1) eta Arabak dute (% 3,4).

6. taula. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2011 (%)

	Guztira	Lurraldeak					
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Nafarroa Beherea / Zuberoa
<b>2011</b>	<b>2.649.000</b>	<b>272.000</b>	<b>999.000</b>	<b>602.000</b>	<b>537.000</b>	<b>206.000</b>	<b>33.000</b>
Euskara	15,4	3,4	11,5	33,9	6,1	14,5	51,2
Euskara eta erdara	4,9	2,7	4,8	7,6	2,8	4,7	9,7
Erdara	79,7	93,9	83,7	58,5	91,1	80,8	39,1

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handiena 65 urtetik gorako helduen artean dago oraindik (% 20,9). Ehuneko horrek behera egiten du adinarekin batera. Baina gazteenen artean (24 urtetik beherakoen artean) joera-aldaketa dago, eta hazi egin da bai euskara (% 13,7) bai euskara eta erdara (% 9,1) dutenen ehunekoa.

Hala ere, kontuan hartu behar da joera-aldaketa hori batez ere EAEn gertatu dela. Nafarroan 50 urtetik beherakoen artean ez da ehunekoa jaitsi, % 4tik gora mantentzea lortu da adin-talde horietan guztietan. Iparraldean, aldiz, gazteenen artean gero eta txikiagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa.

Duela 20 urte ere lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handiena 65 urtetik gorako helduen artean zegoen (% 27,7), eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala.

Bestalde, lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoa (% 4,9) orain dela hogeita hiru urte baino handiagoa da (% 3), eta asko ari da igotzen adinean behera

egin ahala. Gazteenen artean (16-24 urtetik bitartekoak) % 9,1en lehen hizkuntza euskara eta erdara dira. Duela 20 urte, aldiz, % 3,4 ziren lehen hizkuntza euskara eta erdara zituztenak.

7. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)

	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>2011</b>	<b>2.649.000</b>	<b>594.000</b>	<b>605.000</b>	<b>747.000</b>	<b>446.000</b>	<b>257.000</b>
Euskara	15,4	20,9	16,6	12,3	12,5	13,7
Euskara eta erdara	4,9	3,7	3,9	4,5	5,9	9,1
Erdara	79,7	75,3	79,5	83,2	81,6	77,2
<b>1991</b>	<b>2.371.000</b>	<b>345.000</b>	<b>549.000</b>	<b>569.000</b>	<b>458.000</b>	<b>450.000</b>
Euskara	19,5	27,7	21,3	18,8	15,8	15,7
Euskara eta erdara	3,0	2,7	3,0	2,3	3,6	3,4
Erdara	77,5	69,7	75,7	78,9	80,6	80,9


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 2.2. ELEBIDUNAK LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA

Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko elebidunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko dugu orain.

Elebidunen erdiak baino gehiagok euskara hutsik jaso du etxean (% 52,5), hau da, euskaldun zaharra da. Elebidunen % 12,6k euskara eta erdara jaso du, eta jatorrizko elebiduna da. Azkenik, elebidunen herenak baino gehiagok ez du euskararik jaso etxean eta euskaldun berria da (% 34,9). Azken hauek etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.


## 13. irudia. Elebidunak lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. 1991n elebidun gehienak (% 79,3) euskaldun zaharrak ziren. 2011n, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere (% 52,5), 27 puntuko jaitsiera izan dute. Bestalde, etxean euskara eta erdara batera jaso dituztenak ere gero eta gehiago dira. Bikote mistoen eta bikote euskaldun berrien seme-alabak dira eta 5,5 puntuko hazkundera izan dute. Baina hazkunderik handiena euskaldun berriek izan dute, 21,3 puntuko hazkundera hain zuzen.


## 14. irudia. Elebidunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Adinari dagokionez, duela 20 urte euskaldun zaharrak nagusi ziren adin-talde guztietan. Gaur egun, ordea, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen artean erdia baino gehiago euskaldun berriak dira (% 51,8 eta % 52,5 hurrenez hurren). 1991n, aldiz, adin tarte horretako elebidunen % 25,5 eta % 21,3 besterik ez ziren euskaldun berriak.

Jatorrizko elebidunei dagokienez, gero eta gehiago dira adin-talde guztietan eta hazkunde handia izan dute 16-24 urte bitarteko gazte elebidunen artean. Izan ere, % 19 jatorrizko elebiduna da gaur egun, eta duela 20 urte % 10,7 zen.




Gazteen arteko euskaldun berrien nagusitasuna argia da EAEn eta Nafarroan, eta Iparraldean ere gero eta gehiago dira. Horrek eragin zuzena du euskara erabiltzeko erraztasunean nahiz zailtasunean. Izan ere, elebidunen artean, erdal elebidunek, hau da, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnek osatzen dute multzorik handiena EAEn eta Nafarroan, eta gero eta gehiago dira Iparraldean.



### 2.3. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Familia bidezko transmisioa nolakoa izan den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean. Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

**16. irudia.** Seme-alabei transmititutako hizkuntza gurasoen ezagutzaren arabera.  
EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


Gurasoak biak elebidunak izanik, EAEko seme-alaben % 85ek, Nafarroako % 71,2k eta Iparraldeko % 68k euskara soilik jaso du. Bestalde, EAEko % 7k, Nafarroako % 11,6k eta Iparraldeko % 12,2k euskara eta erdara jaso du. Azkenik, EAEko % 8k, Nafarroako % 17,3k eta Iparraldeko % 19,8k ez du euskararik jaso etxean.

Gurasoetako bat baino ez izanik elebiduna, gehienek erdara soilik transmititu dute. Euskara erdararekin batera transmititu dute % 36k EAEn, % 29,1ek Nafarroan eta % 15,3k Iparraldean.

Horrezaz gain, gaur egungo transmisioa nolakoa den jakiteko, 2 eta 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestarekin zein hizkuntza transmititu duten aztertu da. Datuen arabera, guraso biak elebidunak direnean, EAeko seme-alaben % 86k euskara hutsik jaso du etxean, % 78k Nafarroan eta % 54k Iparraldean. Euskara erdararekin batera jaso du EAeko % 11k, Nafarroako % 17k eta Iparraldeko % 33k. EAEn eta Nafarroan oso gutxi dira euskara transmititu ez duten bikote elebidunak (% 3 eta % 4 hurrenez hurren). Iparraldean, ordea, handiagoa da ehunekoa. Izan ere, % 13k ez du euskararik transmititu.

Bikote mistoen kasuan, hau da, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 2-15 urte bitarteko seme-alaba gehienek euskara eta erdara jaso dituzte lurralde guztietan, baina ez neurri berean. EAeko seme-alaben % 71k, Nafarroako % 67k eta Iparraldeko % 56k.

17. irudia. Seme-alabei transmititutako hizkuntza gurasoen ezagutzaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Euskararen familia bidezko transmisioan aldaketarik handiena bikote mistoen artean gertatu da. Lehen gehienek ez zuten euskararik transmititzen eta orain herena da transmititzen ez duena EAEn eta Nafarroan, eta % 44 Iparraldean.

Nafarroan eta EAEn transmisio-joerak antzekoak dira, nahiz eta EAEn Nafarroan baino handiagoa den euskara hutsezko transmisioa. Iparraldean, ordea, guraso biak elebidunak izanik, asko dira euskara eta frantsesa batera transmititzen dutenak (% 33) edo euskararik transmititzen ez dutenak (% 13).

Horrezaz gain, bikote mistoen kasuan, Iparraldean gehiago dira euskara transmititzen ez dutenak (% 44), EAEn eta Nafarroan baino (% 29 eta % 33 hurrenez hurren).


**18. irudia.** Seme-alabei transmititutako hizkuntza gurasoen ezagutzaren arabera. Iparraldea, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 2.4. EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek (% 88k EAEn, % 83k Nafarroan eta % 75ek Iparraldean) euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun.




Hala ere, badira euskara guztiz edo partez galdu dutenak (16 urte edo gehiagoko biztanleen % 3 inguru). Galera horren zati bat (erdia inguru EAEn eta Iparraldean, eta herena pasatxo Nafarroan) galera partziala izan da, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira.

Gaur egun galera gehienak 50 urtetik gorakoek dira.

Aldi berean, baina, lehen hizkuntza erdara izan arren, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 250.000 pertsona daude, 1991n baino 178.000 lagun gehiago. Horiexek euskararen irabaziak dira, euskaldun berriak alegia.


**20. irudia.** Euskararen irabazien eta galeren bilakaera, adinaren arabera.  
Nafarroa, 1991-2011 (%)



Euskara ikasi dutenak 220.000 lagun dira EAEn (1991n baino 160.000 gehiago), 23.500 Nafarroan (1991n baino 17.000 gehiago) eta 7.000 Iparraldean (1991n baino 5.000 lagun gehiago).

Irabazien hazkundea eta galeren ia desagertzea gazteen artean antzematen da bereziki, baita, neurri apalagoan bada ere, Iparraldeko gazteen artean ere.

21. irudia. Euskararen irabazien eta galeren bilakaera, adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

### 3. Euskararen erabilera


#### 3.1. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA

Euskarak gizartean oro har duen erabileraz jabetzeko, 2001ean indize bat eratu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Indize horri euskararen erabileraren tipologia deitzen zaio eta eratzeko honako erabilera-eremu hauek hartzen dira kontuan: etxea (bikotekidea, seme-alabak, aita, ama eta neba-arrebak), lagunak eta eremu formala (dendak, bankuak, osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak).

Euskal Herri osoko datuak kontuan hartuz gero, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 24,2k euskara erabiltzen du neurri batean edo bestean:

- a. % 16,1ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b. % 8,1ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.


22. irudia. Euskararen erabileraren tipologia. Euskal Herria, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdaraz beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 20 dira EAEn, % 9,6 Iparraldean eta % 5,5 Nafarroan. Horiez gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdaraz baino gutxiago, % 7,3 dira EAEn, % 7,1 Iparraldean eta % 1,9 Nafarroan.


23. irudia. Euskararen erabileraren tipologia lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2011 (%)



Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du EAEn, bere horretan dago Nafarroan eta behera egin du Iparraldean.



**24. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera lurraldearen arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)




Oharra: Iparraldean 1996-2011.

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

### 3.2. ERABILERA ADINAREN ARABERA

65 urtetik gorakoen artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duen % 16,4k eta 50 eta 64 urtekoen artean % 13,8k. 50 urtetik behekoen artean, aldiz, euskararen erabilera gora egiten duen adinak behera egin ahala: 35 eta 49 urte bitartekoak % 15,5ek erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, 25 eta 34 urte bitartekoak % 17,6k eta 16 eta 24 urte bitartekoak % 20,2k.


Azken 20 urteotan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du 50 urte baino gutxiago dutenen artean, eta behera, 50 urte baino gehiago dutenen artean.

**25. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

EAEn, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunetik txikiak 50 urtetik gorakoen artean daude: 65 urtetik gorakoen artean % 19,3 eta 50-64 urtekoen artean % 16,7. 50 urte baino gutxiago dituztenen artean, adin-taldea zenbat eta gazteagoa izan orduan eta handiagoa da euskara erabiltzen dutenen ehunekoak. 16 eta 24 urteko gazteen artean dago euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunetik handiena (% 26,8), eta azken 20 urtetan adin-talde horretan izan da hazkunderik handiena (14 puntu). 25 eta 34 urtekoen artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 8 puntu egin du gora (% 14,2 vs % 22,3), eta 6,4 puntu 35 eta 49 urtekoen artean (% 13,3 vs % 19,7).

**26. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera.  
EAE, 1991-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Nafarroan, euskararen erabilerak behera egiten du adinarekin batera 35 urtera arte. Adin horretatik behera hazi egin da euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa: 25 eta 34 urtekoen artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 5,7 dira, eta 16 eta 24 urtekoen artean % 7,3. Azken 20 urteotako bilakaerari dagokionez, 35 urtetik gorakoen artean euskara gutxiago erabiltzen da gaur egun 1991n baino, baina 35 urtetik beherakoen artean gora egin du euskara erabiltzen dutenen ehunekoak.


Iparraldean, euskararen erabilerak behera egiten du adinak behera egin ahala. 65 urtetik gorakoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 16,6), eta 16 eta 24 urteko gazteak, gutxien erabiltzen dutenak (% 5). Azken 15 urteotako bilakaerari dagokionez, Nafarroan bezala, 35 urtetik gorakoen artean euskara gutxiago erabiltzen da gaur egun 1996an baino, baina 35 urtetik beherakoen artean joera-aldaketa izan da 2001etik hona. Hortaz, hazi egin da euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa gazteen artean.

**27. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera.  
Nafarroa, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

**28. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera.  
Iparraldea, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

### 3.3. ERABILERA EREMUAREN ARABERA


Euskararen erabilerak gora egin du eremu guztietan, etxean izan ezik. Hazkunderik handienak eremu formaletan izan dira.

Etxean, esan bezala, duela hogeit hamar urte baino gutxiago erabiltzen da euskara, baina erabileraren beherakada hori ez da etxeko kide guztiekiko erabileran gertatu. Izan ere, seme-alabekin eta, neurri txikiagoan bada ere, neba-arrebeekin hazi egin da euskara erabiltzen dutenen ehunekoa. Ez, ordea, bikotekidearekin eta gurasoekin.

Erabilera-eremu berezia da etxea. Gainontzeko eremuetan ez bezala, nahikoa da etxeko kide batek euskaraz ez jakitea, etxeko hizkuntza erdara izan dadin. Hala ere, guraso askok, baita euskaraz hitz egiteko erraztasun handirik ez dutenak ere, euskara erabiltzen dute seme-alabekin, batez ere umeak diren bitartean.

Bestalde, elebidun gazteen artean, gero eta gehiago dira familia-giro erdaldunetatik datozenak eta euskara eskolan ikasi dutenak. Gazte euskaldun berri horietako

**29. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera erabilera-eremuaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


askoren etxean euskara erabiltzeko duten aukera bakarra haiek bezala eskolan euskaldundu diren neba-arrebak dira.

Erabilera-eremu formalen artean, osasun-zerbitzuetako erabilerak izan du azken 20 urteotako hazkunderik esanguratsuena, nahiz eta ehunekoak oraindik beste erabilera-eremu batzuen azpitik egon.

EAEen ere euskararen erabilerak gora egin du erabilera-eremu guztietan, etxean izan ezik. Etxeko erabilerak oso gorabehera txikiak izan ditu azken 20 urteotan, eta % 17aren bueltan ibili da 1991 eta 2011 bitartean. Etxeko kideen arteko erabilerari dagokionez, bikotekidearekin (% 14,1) eta amarekin (% 16,4) puntu batekoak baino txikiagoak izan dira gorabeherak. Aitarekin (% 15,9), aldiz, zertxobait gora egin du erabilerak (2 puntu). Etxeko kideen artean, erabileran izan diren igoerarik handienak seme-alabekin (% 22,8) eta neba-arrebekin (% 20,1) izan dira (4,7 eta 3,1 puntu hurrenez hurren).


Etxetik kanpo, lagunekin (% 21,8), lankideekin (% 24,5), udal zerbitzukoekin (% 24,8) eta osasun-zerbitzukoekin (% 19,8) argi eta garbi egin du gora euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak.

**30. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera erabilera-eremuaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)



Nafarroan euskararen erabilera % 5 eta % 8 bitartekoa da eremu guztietan (etxean % 5,4, seme-alabekin % 8, lagunekin % 7,5 eta lankideekin % 7,1). Eremu formalean, % 6,3 da erabilera udaletxekoekin eta % 4,8 osasun-zerbitzukoekin. Azken 20 urteotan erabilera oso gutxi aldatu da. Eremu formalean izan du igoerarik handiena (2 puntu inguru).


**31. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera erabilera-eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Iparraldean, euskararen erabilera % 11 ingurukoa da etxekeekin eta lankideekin. Azpimarratzekoa da erabilerarik handiena lagunartekoa dela (% 14,5). Euskararen erabilera, aldiz, txikia da eremu formaletan (% 8,3 udal zerbitzukoekin eta % 3,5 osasun-zerbitzukoekin). Azken 15 urteotan, euskararen erabilerak behera egin du oro har.

**32 . irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera erabilera-eremuaren arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.



### 3.4. EUSKARAREN ERABILERA ELEBIDUNEN ARTEAN

Elebidunak bakarrik kontuan hartuz, % 59,4k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, % 23,9k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako % 16,6k ez du inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen.


33. irudia. Euskararen erabilera elebidunen artean. Euskal Herria, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 20 urteotan euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen ehunekoak 1,8 puntu egin du behera, eta euskara erdara baino gutxiago erabiltzen duten elebidunenak puntu bat baino gutxiago. Aldiz, 3,9 puntu hazi da inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen ez duten elebidunen portzentajea.

34. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera elebidunen artean. Euskal Herria, 1991-2011 (%)




### 3.5. ELEBIDUNEN ERABILERA ERRAZTASUNAREN ETA LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA

Euskal Herriko euskal elebidunen % 97,3k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Hau da, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen diren ia elebidun guztiak euskararen erabilera trinkoa egiten dute. Adinaren arabera, gainera, oso gorabehera txikiak daude.

Elebidun orekatuen kasuan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 76,2 dira, eta erabilerak behera egiten du adinak behera egin ahala. Izan ere, 50 urtetik gorakoen artean euskararen erabilera trinkoa batez bestekoaren gainetik dagoen bitartean, 16 eta 24 urteko gazteen artean % 62,8 dira.

Azkenik, erdal elebidunen artean, hau da, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnen artean, % 23,8 dira euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, eta, orekatuekin bezala, adinak behera egin ahala behera egiten du erabilerak. Izan 39 ere, 35 urtetik gorakoen artean batez bestekoaren gainetik dago euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen ehunekoa. 25 eta 34 urtekoen artean, aldiz, % 16,2 dira eta 16 eta 24 urtekoen artean % 9.

**35. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunak, erraztasunaren arabera. Euskal Herria, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Erraztasunak lotura zuzena du lehen hizkuntzarekin, eta batak eta besteak eragin handia dute erabileran.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lehen hizkuntza euskara duten elebidunen % 84k, lehen hizkuntza euskara eta erdara duten % 54k eta lehen hizkuntza erdara duten elebidunen % 24k.

Orain arteko emaitzen arabera, esan daiteke Euskal Herrian oro har gero eta pertsona gehiagok erabiltzen dutela euskara eta gero eta gutxiago direla erdara hutsean aritzen direnak, nahiz eta lurraldeen artean alde nabarmenak dauden.


Gero eta gehiago dira euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiteko gaitasuna dutenak. Hortaz, hiztun potentzialen kopurua hazi egin da eta, horrekin batera, euskara erabiltzen dutenena ere bai.

Baina euskararen ezagutza eta erabilera ez dira neurri berean hazi. Duela 20 urte euskaraz zekitenen eta erabiltzen zutenen artean 8,6 puntuko alde zegoen. Gaur egun, aldiz, alde hori 10,9 puntukoa da.

Ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen jauzi hori argi eta garbi ikus daiteke aldagai biak adinaren arabera erkatzen baditugu: adinak behera egin ahala, orduan eta handiagoa da elebidunen eta euskara erabiltzen dutenen arteko aldea.

Elebidun gazteen artean, euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoi nagusiak hauek dira: lehen hizkuntza erdara izatea, euskaraz jarduteko erraztasun urriagoa izatea eta gehienak gune erdaldunetan bizitzea.

**36. irudia.** Elebidunak, euskara erdara beste erabiltzen dutenak eta lehen hizkuntza euskara dutenak, adinaren arabera. Euskal Herria, 2011 (%)



## 4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera

### 4.1. JARRERAREN TIPOLOGIA

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritziaren arabera tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Euskararen erabilera sustatzearen alde dago 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 62,3 EAEn, % 38,5 Iparraldean eta % 37,7 Nafarroan.

Euskara sustatzearen ez alde ez aurka biztanle-multzo esanguratsua dago: % 40,2 Iparraldean, % 27,8 Nafarroan eta % 26,1 EAEn.

Euskara sustatzearen aurka daudenak % 11,6 dira EAEn, % 21,3 Iparraldean eta herena (% 34,5) Nafarroan.


**8. taula.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2011 (%)

	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
<b>Guztira</b>	<b>2.649.000</b>	<b>1.873.000</b>	<b>537.000</b>	<b>239.000</b>
Aldekoa	55,2	62,3	37,7	38,5
Ez alde, ez aurka	27,7	26,1	27,8	40,2
Aurkakoa	17,1	11,6	34,5	21,3

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Euskal Herri osoa kontuan hartuz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 7 puntuko igoera izan du hogeitun urtean. Izan ere, 1991n euskal herritarren % 47,5 zegoen euskara sustatzearen alde eta % 55,2 dago gaur egun euskara sustatzearen alde.

37. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera.  
Euskal Herria, 1991-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hogei urteko epean euskara sustatzearen aldeko jarreraren igoerarik handiena Nafarroan izan da, % 21,6 baitziren euskara sustatzearen aldekoak 1991n, eta % 37,7 dira gaur egun.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere 7 puntuko igoera izan du euskararen aldeko jarrerak azken hogei urteotan (1991n % 55, eta 2011n % 62,3).

Iparraldean, aldiz, alderantziz gertatu da. 1996an % 42,3 zegoen euskara sustatzearen alde eta egun % 38,5 dira aldekoak. Hortaz, hamabost urteotan euskara sustatzearen aldeko jarrerak ia 4 puntuko beherakada izan du.

38. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera lurraldearen arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Bestalde, aipatzekoa da euskararekiko jarrerak lotura handia duela hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde dago elebidunen % 88tik gora EAEn eta Nafarroan eta % 73 Iparraldean. Erdaldunen artean, euskararen erabilera sustatzearen kontra daudenak % 18,3 dira EAEn, % 41,2 Nafarroan eta % 27,8 Iparraldean.

Adinari dagokionez, EAeko eta Nafarroako gazteen artean nahikoa altua da euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera, baita helduen artean ere EAEn. Iparraldean, aldiz, gazteenak dira aldeko ehunekorik txikiena dutenak, nahiz eta azken bost urteotan gora egin duen. Era berean, 65 urtetik gorako artean euskararen erabilera sustatzearen alde daudenen ehunekoa handia da Nafarroan eta Iparraldean, gainerako adin taldeetan baino handiagoa.

Egindako galderetan azpimarratzekoa da EAEn, 16 urte edo gehiagoko biztanle gehienei ezinbesteko begitantzen zaiela haurrek euskara ikastea (% 81) eta

Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea (% 75). Iparraldean ere horrela uste dute biztanle gehienek (% 51 eta % 53, hurrenez hurren). Nafarroan, ordea, gehienek Administrazioan sartzeko euskaraz jakiteari ezinbesteko irizten diote (% 53), baina ez hurrek ezinbestez euskara ikasi behar dutela (% 43), aurkakoak ere asko baitira, % 48, alegia.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, seme-alaben ikasketen hizkuntza-ereduaren hautuari dagokionez, euskarazko ereduari (D ereduari) ikas dezaten nahi luke EAEn biztanleen % 66k, Nafarroako % 32k eta Iparraldeko % 19k.

Gainerako ereduari erreparaturik, Iparraldean biztanleen herenak (% 34k) irakas-kuntza elebidunaren (euskaraz eta frantsesez) alde egingo luke. Nafarroan, aldiz, biztanleriaren laurden batek (% 24) B ereduari aukeratuko luke. EAEn ere % 25ek aukeratuko luke B ereduari bere seme-alabentzat.



## 5. Laburbilduz

- Euskal Herriko gizartea gero eta zaharragoa da. Oso bizi-erantzutza handia du eta jaiotza-tasa txikia. Halaber, atzerriko etorkinen hazkundera handia izan da azken hamarkadan, batez ere Nafarroan eta EAEn (etorkinak % 11,4 Nafarroan eta % 6,5 EAEn).
- 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 27 elebiduna da, % 14,7 elebidun hartzailea eta % 58,3 erdalduna. Gaur egun, 714.000 elebidun daude, 1991n baino 185.000 gehiago.
- Azken 20 urteotan elebidunen hazkundera batez ere EAEn gertatu da (ia 8 puntuko hazkundera). Nafarroan hazkundera txikiagoa izan da (2,2 puntuko hazkundera). Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude (5 puntutan egin du behera azken 15 urteotan), baina gazte elebidunen ehunekoak gora egiten hasi da.
- Elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. Gaur egun, elebidun gehienak euskaldun zaharrak dira (% 52,4), baina 27 puntuko jaitziera izan dute. Jatorrizko elebidunak % 12,6 dira eta 5,5 puntuko hazkundera izan dute. Euskaldun berriak % 34,9 dira eta 21 puntuko hazkundera izan dute.
- Adinari dagokionez, 35 urtetik beherako elebidunen erdia baino gehiago euskaldun berria da bai EAEn bai Nafarroan. Iparraldean, aldiz, euskaldun berriak ez dira erdira iristen, baina ia % 40 dira dagoeneko.
- Gaur egun 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso elebidunei dagokienez, % 97k euskara transmititzen dute EAEn eta % 95ek Nafarroan, askok erdararekin batera (% 13 EAEn eta % 17 Nafarroan). Iparraldean transmisioa apalagoa da (% 87). Iparraldean bikote euskaldunen % 33k euskara erdararekin batera transmititzen dute. Bikote mistoen kasuan, transmisioak gora egin du (% 71 EAEn, % 67 Nafarroan eta % 56 Iparraldean).
- EAEn biztanleen % 20k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, Nafarroan % 5,5ek eta Iparraldean % 9,6k.
- Erabileraren bilakaerari dagokionez, 1991tik hona EAEn euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du (4,5 puntuko igoera). Nafarroan, berriz, euskararen erabilerak ia ez

du gorabeherarik izan (puntu erdiko aldea). Iparraldean euskararen erabilerak behera egin du (3,7 puntuko jaitsiera).

- EAEn euskararen erabilerak gora egin du 50 urtetik beherakoen artean, eta Nafarroan eta Iparraldean 35 urtetik beherakoen artean.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du EAEn eta Nafarroan (7 eta 16 puntu hurrenez hurren azken 20 urteotan). Iparraldean, aldiz, aldeko jarrera apaldu egin da (3,8 puntu azken 15 urteotan). EAEn eta Nafarroan adin-talde guztietan egin du gora. Iparraldeari dagokionez, azken bost urteotan gazteen artean euskararen aldeko jarrerak gora egin du.



**E U S K A L  
A U T O N O M I A  
E R K I D E G O A**

V. Inkesta Soziolinguistikoa



## 1. Biztanleria<sup>1</sup>

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) 2.185.393 pertsona bizi dira gaur egun. Bertako biztanleen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Gizartea gero eta zaharragoa da: bizitza-esperantza gero eta handiagoa da (82,4 urte), jaiotze-tasa, aldiz, oso txikia (9,92 jaiotza 1.000 biztanleko, EB-27 10,7).
- Atzeritik iritsitako etorkinen hazkundera handia izan da: etorkinak EAeko biztanleen % 6,5 dira 2011n (Arabian ia % 10; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, % 6 inguru).

Bi ezaugarri horietako lehena ez da berria. Gizartearen zahartze-prozesua 70eko hamarkadan EAEk bizi izan zuen krisi ekonomiko sakonaren ondoren hasi zen. Horrela, azken bi hamarkadetan 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak 8 puntuko hazkundera izan du, eta gaur egun biztanleria osoaren % 19,5 da.


Horrekin batera, gazteak pisua galtzen joan dira. Gaur egun, 20 urte baino gutxiago dituztenak % 17,4 dira. Horrela, 20 urte baino gutxiagoko biztanleen ehunekoa 65 urtetik gorakoena baino bi puntu txikiagoa da.

Are handiagoa izan da pertsona zaharrenen hazkundera, hau da, 85 urte edo gehiago dituztenena. Izan ere, azken 20 urteotan ia hirukoiztu egin da ehunekoa, eta biztanleria osoaren % 2,8 dira dagoeneko.

---


<sup>1</sup> EAeko biztanleriaren datuak INE, EUSTAT eta IKUSPEGItik ateratakoak dira.

1. irudia. Biztanleriaren piramidea, adinaren eta sexuaren arabera.  
EAE, 1991-2011 (%)



Etorkinak gurera etortzearen fenomenoaren berria ez den arren, badu ezaugarri berezirik. Izan ere, 60ko hamarkadatik aurrera etorritako immigranteekin alderatuz, azken hamarkadan etorri diren immigrante gehienak atzerritarrak dira.

Biztanleria atzerritarraren kopurua ia zazpitik biderkatu da azken hamarkadan. Horrela, 2000. urtean % 0,7 izatetik 2011n % 6,6 izatera pasatu da.

**2. irudia.** Atzerritaren bilakaera. EAE, 2000-2011

Iturria: INE.

Biztanleria atzerritarren kasuan, gizonezkoen pisua emakumezkoena baino altuxeagoa da. Latinoamerikako nazionalitateen artean handiagoa da emakumezkoen pisua eta Afrikatik datozenen artean gizonezkoena.


Etorkin atzerritarren jatorriari dagokionez, biztanleria latinoamerikarren pisua oso handia da EAEn (% 43,1). Hala ere, azken urteotan pisua galtzen hasi da. Europar jatorriko etorkinen pisua ere oso handia da, etorkinen laurdena pasatxo baitira. Hamarkada hasieran, ordea, etorkinen ia erdia ziren. Hirugarren multzorik jendetsuena Magreb-eko etorkinena da.

Nazionalitateari dagokionez, Maroko eta Errumania dira nazionalitate nagusiak eta ondoren datoz Kolonia, Bolivia eta Portugal.

Adinari dagokionez, atzerrian jaiotako etorkin gehienak gazteak dira. Etorkinen erdiak baino gehiagok 15-45 urte dituzte (% 54,6) eta hortaz, pisu handia dute adin talde horietan. Hala ere, pisurik handiena 20-35 urte bitartean dituztenen artean dute, % 20 ingurukoa, alegia.



3. irudia. Atzerrian jaiotako biztanleen piramidea, adinaren eta sexuaren arabera.  
EAE, 2011 (%)




## 2. Hizkuntza-gaitasuna

### 2.1. BIZTANLERIA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2011n EAEn 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 32 elebiduna da, % 17,4 elebidun hartzailea eta % 50,6 erdalduna.

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2011 (%)



Horrela, EAEn bizi diren 16 urte edo gehiagoko 1.873.000 pertsonetatik 600.000 elebidunak dira, 322.000 elebidun hartzaileak eta 951.000 erdaldunak.


1. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Guztira</b>	<b>1.873.000</b>	<b>272.000</b>	<b>999.000</b>	<b>602.000</b>
Elebidunak	600.000	46.000	254.000	300.000
Elebidun hartzaileak	322.000	46.000	177.000	99.000
Erdaldunak	951.000	180.000	568.000	203.000

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hiru lurraldeak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. Gipuzkoako biztanleriaren erdia elebiduna da (% 49,9, hau da, 300.000 elebidun). Bizkaiko biztanleriaren laurdena da elebiduna (% 25,4, hau da, 254.000 elebidun). Azkenik, Arabako elebidunen ehunekoak ez da biztanleriaren bostenera iristen (% 16,8, hau da, 46.000 elebidun).

## 5. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)



Inkesta honetan hiriburuetakako datuak ere emango ditugu. Aipatzekoa da hiru hiriburuak euren lurraldeek baino elebidunen ehuneko txikiagoa dutela. Horrela, Donostian elebidunak %33,5 dira, Bilbon % 16,3 eta Gasteizen % 15,5. Lurraldearen eta hiriburuaren arteko alde handiena Gipuzkoak eta Donostiak dute (% 49,9 versus % 33,5). Ildo beretik jarraituz, Bizkaiaren eta Bilboren artean dagoen aldea ere nahiko handia da (% 25,4 versus % 17,6) eta alderik txikiena Arabaren eta Gasteizen artean dago (% 16,8 versus % 15,5).


2. taula. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuetan. EAE, 2011 (%)

	Gasteiz	Bilbo	Donostia
Guztira	205.000	308.000	159.000
Elebidunak	15,5	16,3	33,5
Elebidun hartzaileak	18,7	17,6	14,4
Erdaldunak	65,8	66,2	52,1

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


Gaur egun, orain dela 20 urte baino 181.000 elebidun gehiago daude EAEn. Ia 8 puntuko hazkundera izan dute elebidunek ehunekoetan (% 24,1 versus % 32). Elebidun hartzaileek ere hazkunde handia izan dute 20 urte hauetan (1991ko % 8,5 izatetik % 17,2 izatera iritsi dira 2011n). Azkenik, erdaldunak duela 20 urte baino 222.000 gutxiago dira (% 67,4 ziren 1991n eta % 50,8 dira 2011n).

6. irudia. Elebidunen bilakaera. EAE, 1991-2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Bilakaerari dagokionez, erdaldun hutsen beherakada eta elebidunen hazkundera are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, euskal gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa oso txikia da; hortaz, gazteen multzoak, elebidun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko. Aldi berean, azken 20 urteotan nabarmen hazi da etorkinen ehunekoa. EAE n % 6,6 izatera iritsi dira.



Elebidunek EAEko hiru lurraldeetan egin dute gora, baina Arabaren hazkundera aipatzekoa da. 1991n Araban elebidunak % 7 besterik ez ziren, eta gaur egun, oster, % 16,8 dira. Bizkaian duela 20 urte % 16,5 ziren elebidunak eta gaur egun, ordea, % 25,4. Azkenik, Gipuzkoan duela 20 urte % 43,7 ziren elebidunak eta gaur egun, ordea, % 49,9 dira. Hortaz, 1991 eta 2011 artean, ia 10 puntuko hazkundera izan dute 16 urte edo gehiagoko elebidunek Araban, ia 9koa Bizkaian eta 6 puntu pasatukoa Gipuzkoan.

## 2.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA

Elebidunen hazkundera 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da. Hazkunde hori ez da berria. Izan ere, halaxe gertatu izan da azken 20 urteotan. Baina oso nabarmena izan da gazteen artean. Gaur egun, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunak % 59,7 dira, eta 25 eta 34 urtekoen artean, % 44,5.

Elebidunen portzentajerik txikienak, aldiz, 35 urtetik gorakoen artean daude, elebidunen portzentajea EAeko batez bestekoaren azpitik dago, bereziki 50 eta 64 urte bitarteko helduen artean (% 22,9).

3. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2011 (%)

	EAE	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Guztira</b>	<b>1.873.000</b>	<b>417.000</b>	<b>434.000</b>	<b>529.000</b>	<b>319.000</b>	<b>174.000</b>
Elebidunak	<b>32,0</b>	23,3	22,9	29,8	44,5	59,7
Elebidun hartzailleak	<b>17,4</b>	9,5	14,2	19,7	25,0	23,2
Erdaldunak	<b>50,6</b>	67,2	62,9	50,5	30,5	17,0


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 20 urteetako bilakaerari begiratuz gero, elebidunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak aurrera egin ahala, multzo hori elebidunak irabazten ari da azpitik eta erdaldunak galtzen goitik, zaharren kaltean. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren bitartean, zaharrenean multzoan (duela 20 urtera arte elebidunen portzentajerik handiena zuten) erdaldunen portzentajea hazi egin da.

Elebidun hartzailen ehunekoa gorantz doa adinean behera egin ahala, gazteenen adin tartean izan ezik. Aurreko inkestan bezala, 16 eta 24 urte bitarteko elebidun hartzailen ehunekoa (% 23,2) 25 eta 34 urte bitartekoena baino txikiagoa da

(%25,0). Hau da, gazteenen artean, elebidunen hazkundera erdaldunen beherakada ez ezik elebidun hartzaileena ere eragiten ari da. Beste hitzetan esanda, 16 eta 24 urtekoen artean elebidun hartzaileetan dagoen galera elebidunen mesedetan gertatzen ari da.

50 urtetik gorako biztanleen artean hirutik bi erdaldunak dira (% 60 baino gehiago). 50 urte baino gutxiago dituztenen artean, aldiz, beherantz doa proportzioa: erdia 35-49 urtekoen artean (% 50,5), herena 34 eta 25 urtekoen artean (% 36,7) eta bostena baino txikiagoa 16-24 urtekoen artean (% 17,0).



Azken 20 urteetako adinaren araberako bilakaerari erreparatuz, argi ikusten da Euskal Autonomia Erkidegoan elebidunen hazkundera gazteenetatik ari dela zabaltzen.

Elebidunen hazkunderik handiena 35 urtetik beherako adin-taldeetan gertatu da, hau da, 16-24 eta 25-34 urte bitarteko adin-taldeetan (% 59,7 eta % 44,5 hurrenez hurren).



Elebidunen hazkundera 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da, nahiz eta gazteen artean izan hazkunderik handiena. Horrela, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean ia % 60 elebiduna da gaur egun; 1991n, berriz, % 25 baino ez zen. Hurrengo adin-taldean, berriz, 25 eta 34 urte bitartekoen artean gaur egun ia erdia elebiduna da (% 44,5): 1991n, berriz, laurdena zen (% 22,5). Azkenik 35-49 urte bitartekoen adin-taldean ere hazkundera izan du elebidunen ehunekoak. Gaur egun ia herena da elebiduna (% 29,8) adin talde honetan, eta duela 20 urte bostena zen (% 20)

Adinaren araberako joera hori hiru lurraldeetan gertatu da, nahiz eta bateko eta besteko ehunekoetan alde handiak egon.

Araban eta Bizkaian adinaren araberako bilakaerari dagokionez, orain dela 20 urte aurreikusten ziren aldaketa-zantzuak errealitate bihurtu dira. Hau da, gazteen euskalduntzea agerikoa da, eta erdaldunen jaitziera, orokorra. 25 urtetik beherakoen artean, gainera, elebidunak erdaldun hutsak baino gehiago dira dagoeneko. Gipuzkoan are handiagoa da elebidunen ehunekoa adinaren arabera. Dagoeneko Gipuzkoako gazteen hamarretik zortzi elebiduna da, eta heldu eta nagusien hamarretik lau baino gehiago.

Ikus ditzagun datuak zehatzago lurraldez lurralde.

## ARABA


Aldeak oso handiak dira elebidunen ehunekoetan adinean gora egin ahala. Horrela, elebidunak % 5 inguru dira 65 edo gehiagoko arabarren artean (% 4,6). 64 urtetik behera, aldiz, ehunekoa bikoiztu egiten da adin-talde batetik hurrengora: 50 eta 64 urtekoen artean % 7,3 dira elebidunak; 35 eta 49 urtekoen artean % 15,1 dira elebidunak; 25 eta 34 urtekoen artean, % 29,3; eta 16 eta 24 urtekoen artean, % 46,2.

Elebidun hartzailen ehunekorik txikiena zaharreneen artean dago (% 3,9) eta handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean (% 30,3).

Elebidunen eta elebidun hartzailen igoyerak erdaldunen jaitsiera dakar. 65 urtetik gorako hamarretik bederatzi (% 90,7) erdaldunak dira. Adin horretatik behera, eta batez ere 35 urtetik behera, erdaldunen jaitsiera oso handia da (16 eta 24 urteko gazteen artean % 23,5 dira)

Elebidunen bilakaerari dagokionez, duela hogeita urte 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 8,9 baino ez zen elebiduna, eta 25 eta 34 urtekoen % 5,1. Hezkuntza sistemako D eta B ereduaren eragina oso handia da Arabako elebidunen hazkundean. Gazteenen euskalduntzea agerikoa da, eta erdaldunen jaitsiera, orokorra. Gazteenen artean, gainera, elebidunak erdaldunak baino gehiago dira dagoeneko.

9. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Araba, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## BIZKAIA


Arabaren bezala, Bizkaian ere aldeak oso handiak dira elebidunen ehunekoetan adinaren arabera. Horrela, 16 eta 24 urte bitarteko bizkaitarren erdia (% 52,8) baino gehiago elebiduna da. 25 eta 34 urtekoen artean % 37,5 da elebiduna, 35 eta 49 urte bitartekoena ia laurdena (% 23,6), baina 50 urtetik gorakoaren artean % 16,6 baino ez. Araban eta Gipuzkoan bezala, elebidunen hazkundera bereziki handia izan da Bizkaiko gazteen artean: 1991an 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunak % 17,9 ziren, eta 25 eta 34 urte bitartekoak % 14,5.

Nagusiei dagokienez, alderantziz gertatzen da, hau da, 65 urte edo gehiagoko biztanleen % 26,2 elebiduna zen 1991n, baina gaur egun % 16,6 da.

Elebidun hartzaileen ehunekoak gora egiten du adina jaitsi ahala. Hortaz, elebidun hartzaileen ehunekorik handiena bi adin talde-gazteenetan dago (% 30 inguru) eta txikiena 65 urtetik gorakoaren artean (% 9,1).

Erdaldunek nagusi izaten jarraitzen dute 35 urtetik gorako adin-talde guztietan. Gazteenen artean, aldiz, bostetik bat baino ez da erdalduna (% 18,7).

10. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Bizkaia, 1991-2011 (%)




## GIPUZKOA

Elebidunak nagusi dira 50 urte baino gutxiago duten gipuzkoarren artean. EAEn oro har, eta gainerako lurraldeetan gertatzen den bezala, zenbat eta gazteago orduan eta handiagoa da elebidunen ehunekoa. Gazteenen artean, hau da, 16 eta 24 urtekoen artean % 77,4 da. Elebidunen ehunekorik txikiena 50 eta 64 urteko gipuzkoarren artean dago (% 40,1).

Elebidun hartzaileen ehunekoa EAeko batez bestekoa baino txikiagoa da 35 urtetik beherako adin-taldeetan. Hortaz, gazteenen artean % 11,5 da elebidun hartzailea. Elebidun hartzaile gutxien duen adin-taldea da. Elebidun hartzaile gehien 35-49 urte bitarteko adin-taldeak dauka (% 21,2).

Gipuzkoan erdaldunen ehunekorik handiena 50 urtetik gorakoen artean dago (% 40tik gora). 50 urtetik behera, aldiz, erdaldunen ehunekoak behera egiten du nabarmen adinean behera egin ahala: herena da 49 eta 35 urtekoen artean (% 32,2), bostena 34 eta 25 urtekoen artean (% 21,9) eta hamarrena 16 eta 24 urteko gazteen artean (% 11,2).

11. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Gipuzkoa, 1991-2011 (%)




### 2.3. ELEBIDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO

Elebidunak hiru multzotan banatu ditzakegu, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

- **Euskal elebidunak** euskaraz gaztelaniaz baino errazago moldatzen direnak dira. EAEn 16 urte edo gehiagoko elebidunen % 27,1 dira.
- **Elebidun orekatuak** berdin moldatzen dira euskaraz zein erdaraz. Elebidunen ia herena dira (% 30).
- **Erdal elebidunak** hobeto moldatzen dira erdaraz euskaraz baino. Elebidunen multzorik handiena dira (% 42,9).

12. irudia. Elebidunak erraztasunaren arabera.  
EAE, 2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Emaitzak lurraldeka aztertuz gero, esan daiteke ehunekoak oso desberdinak direla.

Arabaren elebidun gehienak erdal elebidunak dira (% 71,4). Bost elebidunetik bat elebidun orekatua da (% 21,9). Euskal elebidunak oso gutxi dira (% 6,7).


Bizkaian elebidunen erdia baino gehiago erdal elebidunak dira (% 52,4). Lautik bat baino gehiago elebidun orekatua da (% 28). Azkenik bostetik bat euskal elebiduna da (% 19,6).

Gipuzkoan, ordea, gehiago dira euskal elebidunak (% 36,6) elebidun orekatuak (% 32,9) edo erdal elebidunak (% 30,5) baino.



Azken 20 urteotako bilakaerari dagokionez, gaur egun euskal elebidunak 1991n baino gutxiago dira (% 27,1 versus % 35,4). Gero eta gehiago dira, ordea, elebidun orekatuak (% 30 versus % 25,4) eta erdal elebidunak (% 39,1 versus % 42,9).

14. irudia. Elebidunen erraztasunaren bilakaera.  
EAE, 1991-2011 (%)




Adinari dagokionez, gaur egun EAEko euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoen artean dago (% 46), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek. Horrela, euskal elebidunak % 25 baino gutxiago dira 50 urtetik beherako elebidunen artean.

Elebidun orekatu gehien 25 eta 64 urte bitarteko artean dago, hiru lagunetik bat baita.

Erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16 eta 24 urte bitarteko elebidunen erdia erdal elebiduna da (% 50,6).

15. irudia. Elebidunen erraztasuna adinaren arabera.  
EAE, 2011 (%)



Dena dela, lurralde bakoitzeko adinaren araberako datuak ez datoz bat EAEko datuekin. Ikus ditzagun lurralde bakoitzaren berezitasunak.

Araban erdal elebidunak nagusi dira adin-talde guztietan alde handiz, ez baitago desberdintasun handirik adinaren arabera.

Bizkaian, aldiz, 65 urtetik gorakoetan erdia euskal elebiduna da (% 49) eta behera egiten du nabarmen 50 urtetik behera, baina nahiko antzera mantentzen da euskal elebidunen ehunekoa 50 urtetik beherako adin-talde guztietan, (% 14tik behera). Erdal elebidunak erdiak baino gehiago dira 50 urtetik beherako adin-talde guztietan.



Gipuzkoan datuak bestelakoak dira. Euskal elebidunak nagusi dira zaharrenean eta gazteenen artean (% 45 eta % 42,2 hurrenez hurren). Euskal elebidun gutxien, erdiko adin-taldeetan dago, 25-34 eta 35-49 adin-taldeetan, alegia (% 30,5 eta % 32,7). Erdal elebidun gehien, ordea, 35-49 eta 50-64 adin-taldeetan dago (% 35,2 eta % 33,2). Elebidun orekatuen artean aldeak ez dira oso handiak adinaren arabera, % 30 inguru baitira, 25-34 urte artekoen artean izan ezik (% 39,9).

4. taula. Elebidunen erraztasuna adinaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)

	Elebidunak	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Araba</b>	<b>46.000</b>	<b>2.500</b>	<b>4.500</b>	<b>12.000</b>	<b>15.000</b>	<b>12.000</b>
Euskal elebidunak	<b>6,7</b>	22,5	8,2	6,2	6,4	3,7
Elebidun orekatuak	<b>21,9</b>	18,5	26,0	20,6	21,3	23,2
Erdal elebidunak	<b>71,4</b>	59,0	65,8	73,2	72,3	73,0
<b>Bizkaia</b>	<b>254.000</b>	<b>38.000</b>	<b>38.000</b>	<b>66.000</b>	<b>63.000</b>	<b>49.000</b>
Euskal elebidunak	<b>19,6</b>	49,0	23,5	11,8	13,9	11,6
Elebidun orekatuak	<b>28,0</b>	26,9	37,0	32,2	23,2	22,2
Erdal elebidunak	<b>52,4</b>	24,1	39,4	56,1	63,0	66,1
<b>Gipuzkoa</b>	<b>300.000</b>	<b>57.000</b>	<b>57.000</b>	<b>79.000</b>	<b>64.000</b>	<b>43.000</b>
Euskal elebidunak	<b>36,6</b>	45,0	36,1	32,7	30,5	42,2
Elebidun orekatuak	<b>32,9</b>	29,8	30,7	32,1	39,9	31,0
Erdal elebidunak	<b>30,5</b>	25,2	33,2	35,2	29,5	26,8

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


### 3. Hizkuntzaren transmisioa

#### 3.1. LEHEN HIZKUNTZA

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskara da EAEko 16 urte edo gehiagoko 430.000 pertsonaren lehen hizkuntza, hau da, % 22,9. Biztanleriaren % 17,5ek euskara soilik jaso du etxean eta % 5,4k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Azkenik, 1.443.830 biztanlek, lautik hiruk (% 77,1), erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez dugu ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza errumaniera, portugesa, errusiera eta abar direla.

16. irudia. Lehen hizkuntza. EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lehen hizkuntza erdara dutenak hiru lurraldeetan nagusi badira ere, alde handia dago lurralde batetik bestera. Gipuzkoak du ehunekorik txikiena lehen hizkuntza erdara dutenen artean (% 58,5). Gainerako bi lurraldeetan nagusitasun osoa du erdarak. Horrela, erdara da Bizkaiko gehiengo handiaren (% 83,7) eta Arabako ia biztanle guztien (% 93,9) lehen hizkuntza.

5. taula. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)


	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Guztira</b>	<b>1.873.000</b>	<b>272.000</b>	<b>999.000</b>	<b>602.000</b>
Euskara	17,5	3,4	11,5	33,9
Euskara eta erdara	5,4	2,7	4,8	7,6
Erdara	77,1	93,9	83,7	58,5

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hiriburuei dagokienez, lehen hizkuntzaren ehunekoak oso antzekoak dira Gasteizen eta Bilbon. Izan ere, hiri horietako 16 urte baino gehiagoko biztanleen % 3,6k jaso du euskara hutsik. Euskara erdararekin batera jaso du gasteiztarren % 2,2k eta bilbotarren % 3,7k. Hortaz, Gasteiz eta Bilboko hamarretik bederatzik biztanle baino gehiagoren lehen hizkuntza erdara da.

Donostian, aldiz, % 17,9ren lehen hizkuntza euskara da, eta % 7,2rena euskara eta erdara. Donostiarren hiru laurdenak erdara hutsik jaso du etxean. Ikusten denez, Donostian lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa askoz handiagoa da beste bi hiriburuen aldean.

17. irudia. Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


### 3.2. LEHEN HIZKUNTZA ADINAREN ARABERA

EAEko biztanleen lehen hizkuntza adinaren arabera aztertuz, azpimarratzekoa da 65 urtetik gorako helduek dutela euskara hutsik jaso dutenen ehunetik altuena (% 22,7). Ehuneko horrek behera egiten du adinarekin batera. Baina gazteen artean (16-24 urte) joera-aldaketa dago, eta hazi egin da bai euskara (% 17,7) eta baita euskara eta erdara (% 10,9) jaso dutenen ehunekoa. Aldaketa hori 1996an antzeman zen lehendabizi.

Horrela, 16-24 urte bitarteko gazteen % 28,6k euskara jaso du etxean. Aipatzekoa da gazteek dutela gaur egun lehen hizkuntza euskara jaso dutenen ehunetik altuena.

**Arabian** lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira adin-talde guztietan, hamarretik bederatzik baino gehiagok erdara du lehen hizkuntza. Lehen hizkuntza euskara jaso dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago (% 4,8), eta behera egiten du adinak behera egin ahala, gazteenen artera iritsi arte. Azken adin-talde horretan, aurreko adin-taldean baino gehiago dira lehen hizkuntza euskara soilik jasotzen dutenak, hau da, % 4,1. Gero eta gehiago dira euskara eta erdara batera jasotzen dituztenak adinean behera egin ahala. Gazteen artean, askoz gehiago dira (% 7,9) euskara eta erdara batera jasotzen dituztenak euskara hutsik jasotzen dutenak baino (% 4,1).


18. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Araba, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

**Bizkaian** lehen hizkuntza euskara edo biak dituztenak % 16 baino gehiago dira adin-talde guztietan, 35-49 urte bitarteko adin-taldean izan ezik (% 13). Lehen hizkuntza euskara hutsik jaso dutenen ehunekoak behera egiten du adinak behera egin ahala, 25-34 urte bitarteko adin-taldera iritsi arte. Horrela, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen adin-taldeetan, euskara hutsik jaso dutenen ehunekoak gora egiten du adinean behera egin ahala. Lehen hizkuntza euskara eta erdara batera jaso dutenei dagokienez, gero eta gehiago dira adinak behera egin ahala. Izan ere, edadetuenen artean % 3,1 dira eta gazteenen artean % 9,8.


19. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bizkaia, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

**Gipuzkoan** lehen hizkuntza euskara edo biak jaso dituztenen ehunekorik handienak 65 urte edo gehiagokoek (% 48,4) eta 16-24 urte bitarteko gazteek (% 48,3) dituzte. Bizkaian bezala, ehunekorik txikiena 35-49 urte bitartekoek dute (% 36,3). Lehen hizkuntza euskara hutsik jaso dutenen ehunekoak behera egiten du adinak behera egin ahala, 35-49 urte bitarteko adin-taldera iritsi arte. Hortik behera, hau da, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen adin-taldeetan euskara hutsik jaso dutenen ehunekoak gora egiten du adinean behera egin ahala. Lehen hizkuntza euskara eta erdara batera jaso dutenei dagokienez, gero eta gehiago dira adinak behera egin ahala. Izan ere, edadetueneren artean % 5,9 dira, eta gazteenen artean, % 14.

20. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Gipuzkoa, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lehen hizkuntzaren adinaren arabera bilakaerari dagokionez, duela 20 urte lehen hizkuntza euskara zutenen ehunetik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (% 34,2) eta behera egiten zuen nabarmen adinean behera egin ahala, gazteenek zutelarik ehunetik txikiena (% 20,4). Gaur egun, ordea, arestian esan bezala, gazteenek dute ehunetik altuena (% 28,6).

**6. taula.** Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera.  
EAE, 1991-2011 (%)

	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>2011</b>	<b>1.873.000</b>	<b>417.000</b>	<b>434.000</b>	<b>529.000</b>	<b>319.000</b>	<b>174.000</b>
Euskara	17,5	22,7	18,3	14,2	15,2	17,7
Euskara eta erdara	5,4	3,8	4,3	5,0	6,6	10,9
Erdara	77,1	73,5	77,4	80,8	78,2	71,4
<b>1991</b>	<b>1.741.000</b>	<b>214.000</b>	<b>413.000</b>	<b>406.000</b>	<b>345.000</b>	<b>363.000</b>
Euskara	20,7	32,4	21,5	20,0	17,2	17,0
Euskara eta erdara	2,6	1,8	2,5	1,3	4,1	3,4
Erdara	76,7	65,8	76,0	78,8	78,8	79,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.




### 3.3. ELEBIDUNAK LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA

EAEko 16 urtetik gorako elebidunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko dugu orain.


Elebidunen erdiak baino gehiagok euskara hutsik jaso du etxean (% 51,2), hau da, euskaldun zaharra da. Elebidunen % 12,2k euskara eta erdara jaso du, eta jatorrizko elebiduna da. Azkenik, elebidunen herenak baino gehiagok ez du euskararik jaso etxean eta euskaldun berria da (% 36,6). Azken hauek etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.

21. irudia. Elebidunak lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2011 (%)




Datuak lurraldearen arabera aztertuz gero, euren arteko aldeak nabarmenak dira. Horrela, Araban hamar elebidunetik zazpi euskaldun berriak dira (% 71). Bizkaian, aldiz, euskaldun berriak (%44,1) eta euskaldun zaharrak (%42,5) nahiko parekatuta daude. Azkenik, Gipuzkoan hamar elebidunetatik sei euskaldun zaharrak dira (% 63,7) eta euskaldun berriak hamarretik bi pasatxo dira (% 24,9).

22. irudia. Elebidunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)




Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. Izan ere, 1991n elebidun gehienak (% 79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, euskara hutsik jaso zuten etxean. Euskaldun zaharrak, gainera, nagusi ziren adin-talde guztietan. 2011n, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere (% 51), jatorrizko elebidunek ere pisu handia hartu dute, eta are handiagoa euskaldun berriek, batez ere 35 urtetik beherakoen artean.

23. irudia. Elebidunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera.  
EAE, 1991-2011 (%)



Gaur egun, 16-24 eta 25-34 urte bitarteko elebidunen erdia baino gehiago euskaldun berria da (% 52,2 eta % 53,2 hurrenez hurren). 1991n, ordea, adin tarte horretako elebidunen % 26,4 eta % 20,3 besterik ez zen euskaldun berria.


24. irudia. Elebidunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera.  
EAE, 1991-2011 (%)



### 3.4. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Familia bidezko transmisioa nolakoa izan den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

25. irudia. Seme-alabei transmititutako hizkuntza, guraso BIEK euskaraz dakitenean, adinaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Aipatzekoa da guraso biak elebidunak izanik, euskararen transmisioa handiagoa dela adinean behera egin ahala. Euskararen transmisiorik txikiena 50 urtetik gorako inkestatuek dute. Honako hauek dira datuak: % 81,4k euskara soilik jaso du EAEn, % 7,6k euskara eta erdara eta % 11k ez du euskararik jaso.

Guraso biak elebidunak izanik, 16 urte eta 50 urtera bitartean dituzten % 90 inguruk euskara soilik jaso du. Horrekin batera, azpimarratzekoa da gero eta guraso gehiagok transmititzen dutela euskara eta erdara batera. Horrela, 16-34 urte bitarteko gazteen % 6,2k etxean bi hizkuntzak jaso ditu. Era berean, gero eta txikiagoa da euskararen transmisio eza.

Horrezaz gain, transmisioaren bilakaera egin ahal izateko, 2 eta 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuak hautatu eta hizkuntza nola transmititu duten ere aztertu da.

Guraso biak elebidunak izanik, seme-alaben % 86k euskara hutsik jaso du etxean. % 11k, ordea euskara erdararekin batera jaso du. Euskara transmititu ez duten bikote elebidunak % 3 dira.


Horrekin batera, aipagarria da gero eta gehiago direla euskararekin batera gaztelania edo beste hizkuntza bat transmititzen duten guraso elebidunak.

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, euskararen transmisioan desberdintasun handiak daude adinaren arabera. Izan ere, 50 urtetik gorako inkestatuen % 18,1ek baino ez du euskara transmititu erdararekin batera. Baina, adinean behera egin ahala euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 35-49 urte bitarteko % 43k jaso ditu euskara eta erdara etxean eta 16-34 urte bitarteko % 62,2k.

2-15 urteko seme-alabei dagokienez, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, seme-alaba gehienek euskara eta erdara jaso dituzte (% 71), eta ia heren batek (% 29) ez du euskararik jaso.

**26. irudia.** Seme-alabei transmititutako hizkuntza, guraso BATEK euskaraz dakienean, adinaren arabera. EAE, 2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

### 3.5. EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK

EAE n lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehien-gehienek euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun (% 88).

27. irudia. Euskararen irabazien eta galeren bilakaera, adinaren arabera.  
EAE, 1991-2011 (%)



Hala ere, badira euskara guztiz edo partez galdu dutenak (16 urte edo gehiagoko biztanleen % 3 inguru). Galera gehienak galera partzialak dira, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira.

Adinaren arabera, gaur egun galera gehienak 50 urtetik gorako pertsonenak dira. Galera oso gehienak 65 urtetik gorakoenenak dira eta 50-64 urte bitartekoek galera gehienak, aldiz, partzialak dira.

Aldi berean, baina, lehen hizkuntza erdara izan arren, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 220.000 pertsona daude, 1991n baino 160.000 lagun gehiago. Horiexek euskararen irabaziak dira, euskaldun berriak alegia.

Irabaziei dagokienez, alde handiak daude adinaren arabera. Euskara irabazi dutenen ehunekoa oso txikia da 65 urtetik gorakoen artean. 50 urtetik beherakoen artean, ordea, irabaziak gero eta handiagoak dira, eta gazteen artean oso handiak dira.



## 4. Euskararen erabilera

### 4.1. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA


Euskarak gizartean duen erabileraz jabetzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak indize bat eratu zuen 2001ean. Indize horri euskararen erabileraren tipologia deitzen zaio, eta honako erabilera-eremu hauek hartzen dira kontuan: etxea (bikotekidea, seme-alabak, aita, ama eta neba-arrebak), lagunak eta eremu formala (dendak, bankuak, osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak). Jarraian emango diren erabilerari buruzko datuak tipologia horren arabera izango dira.

EAEEn, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 28,9k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a. % 20k euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b. Aldi berean, % 8,9k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek (% 71,1) erdara erabiltzen dute beti (% 65,2) edo ia beti (% 5,9).

28. irudia. Euskararen erabileraren tipologia. EAE, 2011 (%)



Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du EAEn. Gora egin dute bai euskaraz erdaraz baino gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak baita euskaraz erdaraz beste erabiltzen dutenena ere (4,5 puntu). Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenak ere gehiago dira gaur egun 1991n baino (2,1 puntu). Azken 20 urteotako beherakada bakarra, beraz, beti erdaraz hitz egiten dutenena izan da.


7. taula. Euskararen erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2011

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
<b>Guztira</b>	<b>1.741.000</b>	<b>1.807.000</b>	<b>1.873.000</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Euskaraz erdaraz baino gehiago	175.000	183.000	238.000	10,0	10,1	12,7
Euskaraz erdaraz beste	96.000	133.000	137.000	5,5	7,4	7,3
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	117.000	161.000	167.000	6,8	8,9	8,9
Oso gutxi euskaraz	49.000	95.000	110.000	2,8	5,2	5,9
Beti erdaraz	1.304.000	1.235.000	1.221.000	74,9	68,3	65,2

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 39 dira Gipuzkoan, % 12,8 Bizkaian eta % 4,3 Araban. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 11,3 dira Gipuzkoan, % 7,7 Bizkaian eta % 8,3 Araban.

29. irudia. Euskararen erabileraren tipologia, lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%)




1991 eta 2011 bitartean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Araban eta Bizkaian ia lau puntu egin du gora euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen ehunekoak. Araban euskararen erabilera trinkoa egiten zutenak oso gutxi ziren 1991n (% 0,5) eta % 4,3 dira 2011n. Bizkaian 1991n % 9,1 ziren eta % 12,8 dira 2011n.

Gaur egun bezala, Gipuzkoak zuen erabileraren portzentajerik handiena 1991n (% 33,5), eta azken 20 urteotan, bost puntu eta erdi egin du gora euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak (% 39).


**30. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, lurraldearen arabera. EAE, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hiriburuei dagokienez, Gasteizen eta Bilbon oso antzekoak dira erabilerari buruzko emaitzak. Bata eta bestea gune erdaldunean daude, eta horren arabera da erabilera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 2,8 dira Gasteizen eta % 3,1 Bilbon, eta beti erdaraz aritzen direnak hamarretik zortzi baino gehiago dira batean zein bestean. Donostian, aldiz, % 17,6k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta beti erdaraz hitz egiten dutenak % 63,7 dira.

31. irudia. Euskararen erabileraren tipologia, hiriburuaren arabera. EAE, 2011 (%)



Lurraldeen edota hiriburuaren artean dauden alde horiek nabarmenak dira gune soziolinguistikoen artean ere. Lehenengo eta bigarren gune soziolinguistikoetan euskararen erabilera trinkoa % 10etik beherakoa da (% 1,3 eta % 8,7 hurrenez hurren). Hirugarren gune soziolinguistikoa, aldiz, % 51,2k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta laugarrenean % 81ek. Horiez gain, % 4,1ek lehenengo gunean, % 9,4k bigarreanean eta % 12k hirugarrenean euskara erdara baino gutxiago erabiltzen du. Laugarrenean euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenak % 5,8 dira.

**8. taula.** Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2011 (%)

	EAE	1. gunea	2. gunea	3. gunea	4. gunea
<b>Guztira</b>	<b>1.873.000</b>	<b>265.000</b>	<b>1.140.000</b>	<b>361.000</b>	<b>107.000</b>
Euskaraz erdaraz baino gehiago	12,7	0,4	3,2	34,5	70,4
Euskaraz erdaraz beste	7,3	0,9	5,5	16,7	10,6
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	8,9	4,1	9,4	12	5,8
Oso gutxi euskaraz	5,9	6,5	6,4	5,1	1,5
Beti erdaraz	65,2	88,1	75,5	31,6	11,8


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 4.2. EUSKARAREN ERABILERA ADINAREN ARABERA

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak gero eta gutxiago dira 65 urtetik gorakoen artean, bere horretan jarraitzen dute 50 eta 64 urtekoen artean eta gero eta gehiago dira adin horretatik beherakoen artean. Hazkundera, gainera, handiagoa da adinak behera egin ahala. 65 urtetik gorakoen artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 19,3 diren bitartean, 25 eta 34 urtekoen artean % 22,4 dira eta 16 eta 24 urtekoen artean % 26,7.

Beti erdara erabiltzen dutenak nagusi dira oraindik adin-talde guztietan. Hala ere, adinak behera egin ahala txikiagoa da euskara erabiltzen dutenen eta euskara erabiltzen ez dutenen arteko aldea. Izan ere, 65 urtetik gorakoen artean alde hori 53,6 puntukoa da, eta 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean 10,3 puntukoa.

32. irudia. Euskararen erabilera adinaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Adinaren araberako jokaera horiek guztiak EAEko hiru lurraldeetan ikus daitezke. Adinak behera egin ahala gora egiten du euskaraz erdaraz beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak eta behera beti edo ia beti erdara erabiltzen dutenenena. Erdara baino gutxiago bada ere, euskaraz erabiltzen dutenen ehunekoak ere gora egiten du hiru lurraldeetan adinak behera egin ahala.

Hortaz, euskara gehien gazteek erabiltzen dute Araban, Bizkaian zein Gipuzkoan. Izan ere, 16 eta 24 urtekoen artean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 6,9 dira Araban, % 15 Bizkaian eta % 55,4 Gipuzkoan.

Gipuzkoan adin horretako gazteen % 25,2k erabiltzen du beti edo ia beti erdara. Araban eta Bizkaian, aldiz, nagusi dira beti edo ia beti erdara erabiltzen dutenak (% 68,4 eta 69,5 hurrenez hurren).

**9. taula.** Euskararen erabilera lurraldearen eta adinaren arabera.  
EAE, 2011 (%)


<b>Araba</b>	<b>&gt;=65</b>	<b>50-64</b>	<b>35-49</b>	<b>25-34</b>	<b>16-24</b>
Euskaraz erdaraz beste edo gehiago	1,7	3,2	4,3	7,0	6,9
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	2,5	5,6	7,8	9,9	24,8
(Ia) beti erdaraz	95,8	91,2	87,9	83,0	68,4
<b>Bizkaia</b>	<b>&gt;=65</b>	<b>50-64</b>	<b>35-49</b>	<b>25-34</b>	<b>16-24</b>
Euskaraz erdaraz beste edo gehiago	13,2	11,2	12,5	13,9	15,0
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	2,8	5,1	9,0	11,5	15,4
(Ia) beti erdaraz	83,9	83,7	78,5	74,6	69,5
<b>Gipuzkoa</b>	<b>&gt;=65</b>	<b>50-64</b>	<b>35-49</b>	<b>25-34</b>	<b>16-24</b>
Euskaraz erdaraz beste edo gehiago	36,7	31,7	38,7	44,0	55,4
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	6,3	10,4	9,9	17,0	19,4
(Ia) beti erdaraz	57,0	58,0	51,5	39,0	25,2

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 20 urteotan, euskararen erabilera gora egin du 50 urtetik beherakoen artean, ia ez du gorabeherarik izan 50 eta 64 urtekoen artean eta behera egin du 65 urtetik gorakoen artean. Zenbat eta gazteago, orduan eta handiagoa izan da azken hogeita urteotan euskararen erabilera izan duen hazkundera. 35 eta 49 urtekoen artean 6,4 puntu egin du gora, 25 eta 34 urtekoen artean 8,1 puntu eta 16 eta 24 urtekoen artean 14,4 puntu.



**33. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, adinaren arabera.  
EAE, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


### 4.3. EUSKARAREN ERABILERA EREMUAREN ARABERA

#### EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

EAE n 16 urte edo gehiago dituzten biztanleen % 17,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du etxean, % 6,5ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago eta % 76,4k beti edo ia beti erabiltzen du erdara.


Erabilera, baina, desberdina da etxeke kideen arabera. Euskara gehien seme-alabekin (% 22,8) eta neba-arrebekin (% 20,1) erabiltzen da. Euskararen erabilera trinkoa % 14,1 da bikotekidearekin eta % 14,3 gurasoekin.

34. irudia. Euskararen erabilera etxean. EAE, 2011 (%)



EAEen etxeko erabilerak oso gorabehera txikiak izan ditu azken 20 urteotan: % 17,3 zen 1991n eta, esan bezala, % 17,2 da 2011n. Etxeko kide desberdinekiko erabileraren bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera trinkoak gora egin du etxeko kide guztiekin, bikotekidearekin izan ezik (puntu erdi egin du behera). Igoerarik handiena seme-alabekiko erabilerak (4,7 puntu) eta neba-arreben artekoak (3,1 puntu) izan du. Gurasoei dagokienez, biekin egin du gora: amarekin puntu erdi (% 16,4) eta aitarekin 2 puntu (% 15,9).

**35. irudia.** Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera.  
EAE, 1991-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## EUSKARAREN ERABILERA EREMU HURBILEAN

Eremu hurbileko erabilerari buruz ari garenean, lagunekin, auzokideekin, lankideekin eta dendariekin egiten dugun erabileraz ari gara. 16 urte edo gehiago dituzten EAEko biztanleen % 24,6k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lankideekin, % 21,4k lagunekin, % 20,4k dendariekin eta % 18,4k auzokideekin.


Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoa % 6 eta % 10 bitartekoa da eremu hurbileko lau esparruetan.

36. irudia. Euskararen erabilera eremu hurbilean. EAE, 2011 (%)



Azken 20 urteotako bilakaera aztertzeko, ez dugu auzokideekiko erabilera kontuan hartu, 1991n ez baitzen galdetu. Euskararen erabilera gora egin du eremu hurbilean oro har: euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 9,2 puntu egin du gora lankideekin, 5,6 dendariekin eta 5,3 lagunekin.

**37. irudia.** Eremu hurbilean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## EUSKARAREN ERABILERA EREMU FORMALEAN


Eremu formaleko erabilera neurtzeko, bankukoekin, osasun-zerbitzuetakoekin, udal zerbitzuetakoekin eta foru-aldundi zein Jaurlaritzakoekin egiten dugun erabilera jaso dugu.

Euskara gehien udal zerbitzukoekin (% 24,7) eta aldundi zein Jaurlaritzakoekin (% 23,5) erabiltzen da. Osasun-zerbitzukoekin % 19,8k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago eta, eremu pribatuan, bankukoekin % 21,1ek.

Aldundietako eta Jaurlaritzako langileekin egiten den erabilera 2011ko inkestan galdetu da lehendabizi, beraz bilakaera gainerako hiru esparruekin aztertu dugu.


Azken 20 urteotan, euskararen erabilera izan duen gorakadarik handiena eremu formalekoa izan da. Osasun-zerbitzukoekin euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen ehunekoak 11,5 puntu egiten du gora, udal zerbitzukoekin 10,9 puntu eta bankukoekin 6,8 puntu.

38. irudia. Euskararen erabilera eremu formalean. EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

39. irudia. Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

#### 4.4. EUSKARAREN ERABILERA ELEBIDUNEN ARTEAN

Elebidunak bakarrik kontuan hartuz, % 61,9k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, % 22,1ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako % 15,9k ez du inoiz edo ia inoiz euskara erabiltzen.

40. irudia. Euskararen erabilera elebidunen artean. EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 20 urteotako bilakaera gorabeheratsua izan da, eta bertan bi aldi desberdin bereizten dira. Lehen 10 urteetan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zuten elebidunen ehunekoa jaitsi egin zen (5,3 puntu), aldiz, hazi egin zen erdara beti edo ia beti erabiltzen zuten elebidunen portzentajea (6,7 puntu).

2001 eta 2011 bitartean, berriz, alderantzizko bilakaera gertatu zen. Hartara, 3 puntu egin zuen gora euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zuten elebidunen ehunekoak, eta aldiz 2,6 puntu jaitsi zen erdara beti edo ia beti erabiltzen zuten elebidunen portzentajea.

**10. taula.** Elebidunen euskararen erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2011

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
<b>Guztira</b>	<b>419.000</b>	<b>531.000</b>	<b>600.000</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Euskaraz erdaraz baino gehiago	175.000	183.000	238.000	41,6	34,4	39,6
Euskaraz erdaraz beste	95.000	130.000	134.000	22,6	24,5	22,3
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	100.000	120.000	133.000	23,9	22,7	22,1
Oso gutxi euskaraz	26.000	47.000	43.000	6,3	8,8	7,3
Beti erdaraz	23.000	51.000	52.000	5,5	9,7	8,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

#### 4.5. ELEBIDUNEN ERABILERA ERRAZTASUNAREN ETA LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA

EAEko euskal elebidunen % 98k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Hau da, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen diren ia elebidun guztiek euskararen erabilera trinkoa egiten dute. Adinaren arabera, oso gorabehera txikiak daude.


Elebidun orekatuen kasuan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 80,5 dira, eta erabilerak behera egiten du adinak behera egin ahala. Izan ere, 65 urtetik gorakoen artean euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 86,4 diren bitartean, 16 eta 24 urteko gazteen artean % 65,1 dira.

Azkenik, erdal elebidunen artean, hau da, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnen artean, % 26,2 dira euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, eta orekatuekin bezala, adinak behera egin ahala behera egiten du erabilerak. Izan



ere, 35 urtetik gorakoen artean herena baino gehiago dira euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak. 25 eta 34 urtekoen artean, aldiz, % 17,7 dira eta 16 eta 24 urtekoen artean % 9,3.

**41. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunak, erraztasunaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Erraztasunak lotura zuzena du lehen hizkuntzarekin, eta batak eta besteak eragin handia dute erabileran.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lehen hizkuntza euskara duten elebidunen % 88k, lehen hizkuntza euskara eta erdara duten % 58k eta lehen hizkuntza erdara duten elebidunen % 26k.


Orain arteko emaitzak kontuan hartuta, esan daiteke EAEn gero eta pertsona gehiagok erabiltzen dutela euskara eta gero eta gutxiago direla erdara hutsean aritzen direnak. Gero eta gehiago dira euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiteko gaitasuna dutenak. Hortaz, hiztun potentzialen kopurua hazi egin da eta, horrekin batera, euskara erabiltzen dutenena ere bai.

Baina euskararen ezagutza eta erabilera ez dira neurri berean hazi. Duela 20 urte euskaraz zekitenen eta erabiltzen zutenen artean 8 puntuko aldea zegoen. Gaur egun, aldiz, alde hori 12 puntukoa da.

Ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen jauzi hori argi eta garbi ikus daiteke aldagai biak adinaren arabera erkatzen baditugu: adinak behera egin ahala, orduan eta handiagoa da elebidunen eta euskara erabiltzen dutenen arteko aldea.

Elebidun gazteen artean, euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoi nagusiak hauek dira: lehen hizkuntza erdara izatea, euskaraz jarduteko erraztasun urriagoa izatea eta gehienak gune erdaldunetan bizi izatea.

**42. irudia.** Elebidunak, lehen hizkuntza euskara dutenak eta euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, adinaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

#### 4.6. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Erabilerari buruz egin ditugun azterketek behin eta berriro erakusten digute euskararen erabilera eragiten duten faktore nagusiak bi direla:

- euskaldunen dentsitatea harreman-sarean, eta
- erraztasuna euskaraz egiteko.


Bi faktore horiez gain, badira beste batzuk ere eragina dutenak, hala nola, lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa.

Faktore horiek erabilera-eremu nagusietan zenbateraino eragiten duten zehatz-mehatz jakiteko, korrelazioak aztertuko ditugu jarraian. Korrelazioak bi aldagairen arteko harremana zehazten du, eta 0 eta 1 arteko zenbaki baten bidez adierazten da. Zenbakia zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da faktorearen eragina.

Etxean, lagunekin eta lankideekin korrelazioak nolakoak diren azaldu, eta balioak handienetik txikienera emango ditugu.

Etxeke erabileran gehien eragiten duen faktorea etxeke euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakiten euskaraz (0,753). Bigarren faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da (0,672). Lehen hizkuntzak ere eragin handia du etxean (0,660). Gune soziolinguistikoak (0,540) eta jatorriak (0,352) eragin txikiagoa dute.


43. irudia. Korrelazioak: erabilera etxean. EAE, 2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lagunekiko erabileran gehien eragiten duen faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da (0,648). Bigarren faktorea euskaraz zenbat lagunek dakiten da (0,620). Gune soziolinguistikoak (0,557) eta lehen hizkuntzak (0,526) ere eragina dute, baina etxeke erabileran baino gutxiago. Euskararekiko interesak eragina du, baina aurrekoak baino txikiagoa (0,322).


44. irudia. Korrelazioak: erabilera lagunekin. EAE, 2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lankideekiko erabileran oso nabarmena da euskaldunen dentsitateak lankideen artean duen eragina (0,803). Gainerako faktoreek etxean eta lagunartean baino eragin askoz ere txikiagoa dute. Bigarren faktorea erraztasuna da (0,396). Ondoren datoz lehen hizkuntza (0,307), gune soziolinguistikoa (0,273) eta euskararekiko interesa (0,247).

45. irudia. Korrelazioak: erabilera lankideekin. EAE, 2011




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

#### 4.7. EUSKARAREN ERABILERA INTERNETEKO GIZARTE-SAREETAN

2011ko inkesta soziolinguistikoan, Interneteko gizarte-sareen erabilerari buruz galdetu da. Inkestatuen herenak (% 34,7) gizarte-sareak erabiltzen dituela adierazi du: % 23,8k egunero edo astean bizpahiru egunetan, eta % 10,9k asteburuan edo noizean behin. Interneteko gizarte-sareak gazteek erabiltzen dituzte gehienbat: 16 eta 24 urtekoen % 89k, hirutik bik (% 65,9) egunero.

Erabiltzaileen % 5,3k euskara erdara beste erabiltzen du eta % 10,1ek euskara erdara baino gehiago. Gazteen artean (16-24 urte), euskara erdara beste % 10,3k erabiltzen du eta % 23,9k euskara erdara baino gehiago.

46. irudia. Euskararen erabilera Interneteko gizarte-sareetan, adinaren arabera. EAE, 2011 (%)



## 5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera


### 5.1. JARRERAREN TIPOLOGIA

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritziaren arabera tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Inkesta Soziolinguistiko honen arabera, EAEko 16 urtetik gorako biztanleen % 62 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 26 ez alde ez aurka eta % 12 aurka.

Azken urteotako bilakaerari dagokionez, euskara sustatzeari buruzko jarrerak gora egin du azken 20 urteotan. Izan ere, 1991ko eta 2011ko datuak alderatuz, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 7 puntuko igoera izan du.

47. irudia. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)



Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da elebidunen % 89, elebidun hartzaileen % 60 eta erdaldunen % 47.

Erdaldunen artean, herena baino gehiago dira ez aldeko ez kontrako jarrera adierazten dutenak (% 35). Azkenik, aurka daudenak % 11 dira elebidun hartzaileen artean eta % 18 erdaldunen artean.

**11. taula.** Euskara sustatzeari buruzko jarrera, hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2011 (%)

	Guztira	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldunak
Aldekoa	62	89	60	47
Ez alde, ez aurka	26	10	29	35
Aurkakoa	12	1	11	18

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa da Gipuzkoan (% 75), Bizkaian (% 59) eta Araban (% 48) baino.

Hiriburuei dagokienez, Donostiako biztanleriaren % 62 euskara sustatzearen alde dago, Bilboko biztanleriaren % 52 eta Gasteizkoaren % 42. Hiru hiriburuetakoko biztanleen herena ez dago ez alde ez aurka. Azkenik, aurka dauden artean, ehunekorik altuena Gasteizek du, % 27 euskara sustatzearen aurka baitaude, Bilbon gutxiago dira (% 16) euskara sustatzearen aurka azaltzen direnak eta aurkako jarrerarik txikiena Donostian (% 8) dago.

Adinari dagokionez, ez dago alde handirik adin-taldeen artean. Nagusien, helduen zein gazteen adin-taldeetan % 60 baino gehiago dira euskara sustatzearen aldekoak.

EAEko biztanleen jatorriak badu zer ikusirik euskararen erabilera sustatzearen aldeko eta kontrako jarrerarekin.



Horrela, bertan jaiok eta gurasoak ere bertakoak dituztenen % 73,8 euskararen erabilera sustatzearen alde daude, eta bertan jaiok baina gurasoetako bat etorkina dutenen % 59,8. Era berean, bertan jaiok baina guraso biak etorkinak dituzten eta etorkinen erdia daude euskara sustatzearen alde (% 50,2 eta % 49,7 hurrenez hurren).

Euskararen erabilera sustatzearen aurka daude bertan jaiok direnen % 7,7. Bestalde, bertakoak izanik, gurasoetako bat etorkina dutenen % 11,7 euskararen erabilera sustatzearen aurka daude, bi gurasoak etorkinak dituztenen % 19,8 eta etorkinen % 13,2.

Era berean asko dira ez alde ez aurka daudenak, batez ere etorkinak (% 37,1) eta guraso etorkinak dituztenak (% 30).


## 5.2. EUSKARARI BURUZKO ZENBAIT IRITZI

EAEko 16 urtetik gorako biztanle gehienei ezinbestekoa irizten zaie hurrek euskara ikastea (% 81) eta Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea (% 75).

Badira aurka daudenak ere: % 14 eta % 20 hurrenez hurren.

- Euskarari buruz dauden aurreiritzi batzuek gure gizartean zenbateraino dauden erroturik ezagutu nahian, inkestatuei iritzia eskatu zaie. Laburbilduz, emaitzak honakoak dira:
- EAEko 16 urtetik gorako biztanleen artean nagusi dira (% 49) euskarak gaztelaniak duen indarra izango duela uste dutenak. Egia da, hala ere, biztanleriaren herenak (% 32) kontrakoa uste duela, hau da, euskarak ez duela sekula izango gaztelaniak duen indarra.
- Hizkuntzaren aberastasunari dagokionez, biztanleen % 58k uste du euskara gaztelania bezain aberatsa dela, eta gutxi dira (% 17) kontrakoa uste dutenak.
- Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen EAEko biztanleen % 79ren ustez eta arazo iturri izan daiteke % 17ren ustez.
- Azkenik, EAEko biztanle gehienek (% 83) uste dute umeak murgiltze-programetan sartzea ona dela.
- Euskara ez dago galtzeko arriskuan gehienek ustez (% 75).

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, EAEko 16 urtetik gorako biztanleen % 66k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahi luke eta % 25ek B ereduan. Duela 15 urte, askoz txikiagoa zen D ereduaren aldeko hautua (% 41,4), eta askoz handiagoa B ereduaren aldekoa (% 44,7). Era berean, 1996an A ereduaren aldeko hautua ere handiagoa zen (% 11,2 duela 15 urte eta % 7,5 orain).



Eusko Jaurlaritzak euskara sustatzeko egindako lanaren balorazioari dagokionez, % 48,6k dio euskara sustatzeko egindako lana egokia dela eta % 34,6k desegokia. Horrezaz gain, % 14,4k ez daki edo ez du erantzuten, eta % 2,4ri berdina zaio.

Zergatia galdeturik, % 44,8k dio balorazioa egokia dela, asko egin delako, eta % 3,3k egokia dela, ez dagoelako gehiagoren beharrik. Beste % 27,3k dio lana desegokia dela, gutxi egin delako, eta % 7,2k gehiegi egin delako.

Elebidunen % 39k uste du Eusko Jaurlaritzaren lana egokia dela eta % 42,9k desegokia dela. Elebidun hartzaileen % 48,1ek uste du Eusko Jaurlaritzaren lana egokia dela eta % 35,4k desegokia. Azkenik, erdaldunen % 48,6k uste du Eusko Jaurlaritzaren lana egokia dela eta % 27,9k desegokia.

Bestalde, 16 urtetik gorako EAeko biztanleen % 86k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste du eta % 11k euskara hutsean.

Azkenik, elebidunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izategatik, eta % 38k erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakiteagatik, eta % 24k erantzun du diskriminatuta sentitu dela.

## 6. Laburbilduz

- Euskal gizarteak bi ezaugarri esanguratsu ditu: gero eta gizarte zaharragoa da eta atzerriko etorkinen hazkunde handia izan du azken urteotan. EAEn gaur egun gehiago dira 65 urte baino gehiago dituztenak (% 19,5) 20 urtetik beherakoak baino (% 17,4). Atzerriko etorkinei dagokienez, berriz, EAeko biztanleen % 6,5 dira gaur egun.
- 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 32 elebiduna da, % 17,2 elebidun hartzailea eta % 50,8 erdalduna. EAeko elebidunak etengabe ari dira gora egiten. Gaur egun, 600.000 elebidun daude, 1991n baino 181.000 gehiago.
- Elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago: 16 eta 24 urteko gazteen % 60 elebiduna da, hau da, 1991ko ehunekoaren bikoitza baino gehiago. Hala ere, gazteen pisua biztanleria osoarekiko txikia denez, elebidunen hazkundeak ez du horrenbesteko isla biztanleria osoko emaitzetan.
- Hamar elebidunetik sei pasatxo euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira, hau da, etxean jaso dute euskara. Adinak behera egin ahala, ordea, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 16 eta 34 urtekoen artean erdiak baino gehiagok etxetik kanpo ikasi du euskara, eskolan edo euskaltegian.
- Erraztasunari dagokionez, alde handiak daude lurraldeen artean. Gaur egun, euskal elebidunak eta elebidun orekatuak % 28,6 dira Araban, % 47,6 Bizkaian eta % 69,5 Gipuzkoan.
- Gaur egun, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten ia guraso elebidun guztiek euskara transmititzen dute. Guraso biak elebidunak direnean, seme-alaben % 97k euskara jasotzen du etxean, horietako gehienek euskara soilik (% 86). Bikote mistoetan, seme-alaben % 71k jasotzen du euskara etxean.
- EAEn gero eta pertsona gehiagok erabiltzen du euskara. Biztanleen % 20k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du (4,5 puntuko igoera izan du azken 20 urteotan). Beste % 8,9k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

- Euskararen erabilerak gora egin du EAEko hiru lurraldeetan, lehenengo, bigarren eta hirugarren gunen soziolinguistikoetan, eta 50 urtetik beherakoen artean.
- Euskararen erabileraren hazkundea handiagoa izan da eremu formalean eta apalagoa etxean, seme-alabekiko eta neba-arreben arteko erabileran izan ezik, horienak gora egiten jarraitzen baitu.
- Euskararen ezagutza eta erabilera ez dira neurri berean hazi. Bilakaera horren oinarrian erabileran eragiten duten bi faktore nagusiak daude: erraztasuna eta harreman-sarea.
- Elebidunen % 37k etxetik kanpo ikasi du euskara, eta 35 urtetik beherakoen artean % 53 inguruk. Gainera, elebidunen ia erdia lehenengo eta bigarren gunen soziolinguistikoetan bizi da. Hortaz, gehienek etxeko giroa eta harreman-sare hurbila erdalduna dute.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak hazkundea izan du azken 20 urteotan. Gaur egun, % 62 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, 1991n baino 7 puntu gehiago. Aurkako jarrerak ez du aldaketa handirik izan. 1991n % 14 ziren euskara sustatzearen aurka zeudenak, eta % 12 dira oraingo inkestan.

**N A F A R R O A**  
V. Inkesta Soziolinguistikoa



## 1. Biztanleria<sup>1</sup>

Nafarroan 640.322 pertsona bizi dira gaur egun. Bertako biztanleen ezaugarri nagusiak:

- Gero eta gizarte zaharragoa da: gero eta bizitza-esperantza handiagoa du (83,5 urte) eta jaiotze-tasa Europaren parekoa da (10,8 jaiotza 1.000 biztanleko, EB-27 10,7).
- Atzerritik iritsitako etorkinen hazkunde handia izan du azken hamarkadan: etorkinak Nafarroako biztanleen % 11,4 dira 2011n.

Bi ezaugarri horietako lehena ez da berria. Gizartearen zahartze-prozesua 70eko hamarkadan hasi zen. Horrela, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak 2 puntuko hazkundera izan du azken bi hamarkadetan, eta gaur egun biztanleria osoaren % 17,6 da.


Are handiagoa izan da pertsona zaharrenen hazkundera, hau da, 85 urte edo gehiago dituztenena. Izan ere, azken 20 urteotan bikoiztu egin da ehunekoak, eta biztanleria osoaren % 2,8 dira.

Horrekin batera, gazteak pisua galtzen joan dira. Gaur egun, 20 urte baino gutxiago dituztenak % 20 dira. Horrela, azken bi hamarkadetan 20 urte baino gutxiagoko biztanleek 5 puntutan egin dute behera biztanleria osoarekiko pisuan.

---


<sup>1</sup> Datuak INE eta Nafarroako Estatistika Institututik ateratakoak dira.



**1. irudia. Biztanleriaren piramidea, adinaren eta sexuaren arabera.**  
**Nafarroa, 1991-2011 (%)**


Bigarren ezaugarri nagusia estatuz gaindiko etorkinen hazkundera da. Horrela, Nafarroako atzerriarren ehunekoa % 1,7 izatetik % 11,2 izatera pasatu da 2000tik 2011ra.

2. irudia. Atzerritaren bilakaera. Nafarroa, 2000-2011



Iturria: INE.

Biztanleria atzerritarraren kasuan, gizonezkoen pisua emakumezkoena baino handiagoa da. Afrikatik eta Europatik datozenen artean handiagoa da gizonezkoen pisua eta Latinoamerikako nazionalitateen artean handiagoa da emakumezkoena.

Etorkin atzeritarren jatorriari dagokionez, biztanleria europarraren pisua oso handia da Nafarroan (% 41). Latinoamerikako etorkinen pisua ere oso handia da, etorkinen ia herena baitira (% 30,5). Etorkinen hirugarren multzorik handiena Magreb-ekoek dute.

Nazionalitateari dagokionez, Maroko, Errumania eta Bulgaria dira nazionalitate nagusiak eta ondoren datoz Ecuador eta Portugal.

Adinari dagokionez, atzerrian jaiotako etorkin gehienak gazteak dira. Etorkinen bi herenak 15-45 urte bitartekoak dira (% 68,8) eta hortaz, pisu handia dute adin talde horietan. Atzerrian jaiotako etorkinek pisurik handiena 20-35 urte bitarteko adin-taldean dute. Horrela, adin talde horretako gazteen % 30etik gora atzerrian jaiotakoak dira.

**3. irudia. Atzerrian jaiotako biztanleen piramidea, adinaren eta sexuaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)**



## 2. Hizkuntza-gaitasuna

### 2.1. BIZTANLERIA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2011n Nafarroan 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 11,7 elebiduna da, % 7,5 elebidun hartzailea eta % 80,8 erdalduna.


Horrela, Nafarroan bizi diren 16 urte edo gehiagoko 537.000 pertsonetatik 63.000 elebidunak dira, 40.000 elebidun hartzaileak eta 434.000 erdaldunak.

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Nafarroa, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Eremu euskalduna da elebidunen ehunekorik eta kopururik handiena duena (% 59,3 eta 30.000 pertsona, hurrenez hurren). Eremu mistoko elebidunak % 9,8 dira, hau da 29.000 pertsona. Eremu ez euskaldunak du Nafarroako elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena (% 2,3 eta 4.000 pertsona, hurrenez hurren).

**5. irudia. Hizkuntza-gaitasuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)**


Oharra: zirkuluen tamaina eremu bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

**1. taula. Hizkuntza-gaitasuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2011**

	Nafarroa	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna
<b>Guztira</b>	<b>537.000</b>	<b>50.000</b>	<b>292.000</b>	<b>195.000</b>
Elebidunak	63.000	30.000	29.000	4.000
Elebidun hartzaileak	40.000	6.000	28.000	6.000
Erdaldunak	434.000	14.000	235.000	185.000

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Iruñeari dagokionez, 16 urte edo gehiagoko 169.000 biztanle ditu. Horietatik, 15.000 elebidunak dira, hau da, % 9,1. Elebidun hartzaileak % 9,3 dira, eta gainerako % 81,7, ordea, erdaldun hutsak. Ikusten denez, datuak ia bat datozen eremu mistoko datuekin.

2. taula. Hizkuntza-gaitasuna. Iruñea, 2011


Guztira	Iruñea	
	169.000	Ehunekoak
Elebidunak	15.000	9,1
Elebidun hartzaileak	16.000	9,3
Erdaldunak	138.000	81,7

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azaldu berri ditugun datuei benetako neurria hartzeko, garrantzitsua da eremu bakoitzeko biztanle-kopuruak Nafarroako biztanleria osoarekiko duen pisuaz jabetzea. Nafarroako biztanleen erdia baino zertxobait gehiago eremu mistoan bizi da (290.000 pertsona, % 54,3), herena baino gehiago eremu ez euskaldunean (195.000 pertsona, % 36,3) eta hamarrena baino gutxiago eremu euskaldunean (50.000 pertsona, % 9,3).


Duela hogeitun urte, 16 urte edo gehiagoko 421.000 pertsona bizi ziren Nafarroan. Horietatik, 217.000 pertsona eremu mistoan (% 51,6), 157.000 eremu ez euskaldunean (% 37,4) eta 46.000 eremu euskaldunean (% 11). Ikusten denez, eremu mistoak gero eta pisu handiagoa du, batez ere eremu euskaldunaren aldean.

Atzera begiratuz gero, hogeitun urtean 2,2 puntuko igoera izan du elebidunen ehunekoak. 1991n Nafarroako elebidunak % 9,5 ziren, eta orain % 11,7. Era berean, elebidun hartzaileek gora egin dute, biztanleen % 4,6 izatetik % 7,6 izatera iritsi baitira azken hogeitun urteotan.

**6. irudia. Elebidunen bilakaera. Nafarroa, 1991-2011 (%)**


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Elebidunen igoera batez ere eremu mistoan gertatu da (% 5,2tik % 9,8ra). Eremu ez euskalduneko elebidunak oso gutxi dira orain, % 2,3, eta duela hogeitun urte % 0,6 ziren. Eremu euskaldunetan, aldiz, elebidunen ehunekoa bere horretan dago hogeitun urteotan, % 60 inguruan, alegia.

**7. irudia. Elebidunen bilakaera. Nafarroako eremu mistoa, 1991-2011 (%)**


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 2.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA

Elebidun gehien 35 urtetik beherako adin-taldeetan ditugu, batez ere 16-24 urte bitarteko adin-taldean. Gaur egun, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunak % 20,8 dira eta 25 eta 34 urtekoen artean, aldiz, % 14,5.

Elebidunen ehunekorik txikienak, hortaz, 35 urtetik gorakoen artean daude. Elebidunen ehunekoa Nafarroako batez bestekoaren azpitik dago adin-talde horietan guztietan (% 9 eta % 10 artean).

3. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)

	Nafarroa	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Guztira</b>	<b>537.000</b>	<b>114.000</b>	<b>115.000</b>	<b>156.000</b>	<b>95.000</b>	<b>57.000</b>
Elebidunak	11,7	9,3	9,6	10,1	14,5	20,8
Elebidun hartzaileak	7,5	5,1	6,5	9,2	9,3	7,2
Erdaldunak	80,8	85,7	83,9	80,7	76,1	71,9


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 20 urteotako bilakaerari begiratuz gero, elebidunen hazkundea gazteenetatik zabaltzen ari da. Horrela, 16-24 urte bitarteko % 10 zen elebiduna duela 20 urte, eta egun bikoitza da. Hurrengo adin-taldean ere (25-34 urte) elebidunak bikoiztu egin dira 20 urteotan (% 7 ziren 1991n eta % 14,5 dira 2011). Gainerako adin-taldeetan, ordea, ez da hazkunderik gertatu, antzekoak dira ehunekoak, puntu bateko gorabehera baitute.

Elebidunen ehunekorik handiena gazteek dute hiru eremuetan. Dena dela, errealitateak oso desberdinak dira. Ikus ditzagun banan-banan.



## 8. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## EREMU EUSKALDUNA

Eremu euskaldunean elebidunak % 59,3 dira, hau da, 30.000 pertsona. Adinari erreparatuz, 65 urtetik gorakoen % 58,9 dira elebidunak. Adinak behera egin ahala elebidunen ehunekoak ere behera egiten du 35-49 urtekoen adin-taldera iritsi arte (35 eta 49 urtekoen artean, % 51,4). 35 urtetik beherakoen artean joera-aldaketa dago, eta elebidunen ehunekoak gora egiten du berriro ere. Igoera horren ondorioz, elebidunen ehunekorik handiena (% 76,7) 16 eta 24 urte bitarteko gazteek dute gaur egun.


**9. irudia.** Elebidunen bilakaera adinaren arabera, eremu euskaldunean.  
Nafarroa, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## EREMU MISTOA

Eremu mistoan, elebidunak % 9,8 dira, hau da, 29.000 pertsona. Adinaren arabera, % 5 dira elebidunak 65 urtetik gorakoen artean. Adinean behera egin ahala igoz doa elebidunen ehunekoa, eta igoerarik handiena gazteenen artean gertatzen da (16-24 urtekoak), % 22,7koa baita. Iruñeko datuak ere antzekoak dira, hau da, % 5 dira elebidunak 65 urtetik gorakoen artean, eta % 18,8 dira 16-24 urte bitartekoaren artean.

**10. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera, eremu mistoan. Nafarroa, 1991-2011 (%)**


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


## EREMU EZ EUSKALDUNA

Eremu ez euskaldunean elebidunak % 2,3 dira, hau da, 4.000 pertsona.

Eremu ez euskalduneko elebidunen ehunekorik handiena gazteenen artean dago (% 5,2 inguru). Gainerako adin-taldeetan oso txikiak dira ehunekoak.

### 2.3. ELEBIDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO

Elebidunak hiru multzotan banatu ditzakegu, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.



**Euskal elebidunak** euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen direnak dira. Elebidunen % 25 dira. Euskal elebidun ia guztiek euskara izan dute lehen hizkuntza eta ia denak eremu euskaldunean bizi dira (hamarretik bederlatzi).

**Elebidun orekatuak**, aldiz, berdin moldatzen dira euskaraz eta erdaraz. Elebidunen % 27,1 dira. Eremu euskaldunean bizi dira gehienak, baina hamarretik lau (% 41) eremu mistoan. Elebidun orekatu ia guztiek euskara izan dute lehen hizkuntza (% 81).


**Erdal elebidunak** hobeto moldatzen dira erdaraz euskaraz baino. Elebidunen multzorik handiena (% 47,9) dira. Erdal elebidun gehienak eremu mistoan bizi dira (% 66). Lehen hizkuntzari dagokionez, gehienek (% 67) erdara izan dute lehen hizkuntza.

Eremuen artean erraztasunean dauden aldeak handiak dira. Eremu euskaldunean elebidunen ia erdiak (% 46,8) euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten du. Ia herena (% 30,5) berdin moldatzen da euskaraz zein erdaraz, eta gainerako bostena pasatxok (% 22,7) erraztasun handiagoa du erdaraz.

Eremu mistoan, berriz, nagusi dira (% 69,7) erdaraz hobeto moldatzen diren elebidunak. Elebidun orekatuak laurdena dira (% 24,5) eta euskal elebidunak % 5,8.


Eremu ez euskaldunean, elebidunen portzentajea % 2,3koa baino ez denez, lagina ez da nahikoa elebidunak gaitasun erlatiboaren arabera sailkatzeko. Nolanahi ere, esan dezakegu erdaraz hobeto moldatzen direnak nagusi direla.

12. irudia. Elebidunak erraztasunaren eta eremuaren arabera.  
Nafarroa, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Bilakaerari dagokionez, azken 20 urteotan aldaketa nabaria izan da elebidunen erraztasunean. Horrela, 1991n elebidunen % 40,6 hobeto moldatzen ziren euskaraz erdaraz baino, orain % 25 dira. Euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen direnen ehunekoa ez da askorik aldatu (% 26,6 ziren 1991n eta % 27,1 dira orain). Erdaraz hobeto moldatzen direnek, ordea, hazkunde handia izan dute. Izan ere, % 32,8 ziren 1991n eta % 47,9 dira gaur egun.




Adinaren araberako aldeak ere handiak dira. Horrela, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoen artean dago (% 43,3), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek. Izan ere, 16-24 urte arteko gazteen % 19,3 dira euskaraz hobeto moldatzen direnak.

Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 35-49 bitartekoak dira (% 30,6).

Erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16-24 eta 25-34 urteko gazte elebidunen erdiak baino gehiagok (% 57,4k eta % 53,9k) errazago hitz egiten du erdaraz euskaraz baino. 65 urtetik gorakoak dira erdal elebidunetan ehuneko txikiena dutenak (% 28,5).

**14. irudia.** Elebidunen erraztasuna adinaren arabera.  
Nafarroa, 2011 (%)




### 3. Hizkuntzaren transmisioa

#### 3.1. LEHEN HIZKUNTZA

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak 3 urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

Euskara da Nafarroako 16 urte edo gehiagoko 47.600 pertsonaren lehen hizkuntza, hau da, % 9,8rena. Biztanleriaren % 6,1ek euskara soilik jaso du etxean eta % 2,8k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Azkenik, Nafarroako hamar biztanletik bederatzik (% 91,1) erdara soilik jaso du etxean.



Bada alderik eremuen arabera. Horrela, eremu euskaldunean biztanleriaren ia erdiak (% 47,1) euskara izan du lehen hizkuntza, % 9,3k euskara eta erdara, eta % 43,6k erdara.




Lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira eremu mistoan (% 94,2) eta erdaldunean (% 98,9).

Iruñeari dagokionez, lehen hizkuntzaren ehunekoak eremu mistokoen oso antzekoak dira. Izan ere, Iruñeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 3,4k jaso du euskara hutsik. Euskara erdararekin batera jaso du iruindarren % 2,5ek. Hortaz, Iruñean hamarretik bederatzi biztanle baino gehiagoren lehen hizkuntza erdara da (% 94,1).

### 3.2. LEHEN HIZKUNTZA ADINAREN ARABERA

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagoko helduen artean dago (% 9,5). Ehuneko horrek behera egiten du adinarekin batera. Gazteen artean, 16-24 urte artekoen artean, handiagoa da euskara eta erdara batera jasotzen dutenen ehunekoa (% 5,1), euskara hutsik jasotzen dutenena baino (% 4,4).

16. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

**Eremu euskaldunean** lehen hizkuntza euskara edo biak dituztenak nagusi dira adin-talde guztietan 35-49 urte bitarteko adin-taldean izan ezik. Dena dela, lehen hizkuntza euskara bakarrik dutenen ehunekoak behera egiten du adinak behera egin ahala (65 urtetik gorakoen artean % 59, eta 50 urtetik beherakoen artean % 40 inguru).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dituztenak, ordea, gero eta gehiago dira adinak behera egin ahala. Izan ere, edadetueneren artean % 5 dira eta gazteenen artean % 20.

Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekorik altuena 35-49 eta 50-64 urte bitartekoek dute (% 51 eta % 45,1 hurrenez hurren), eta txikiena 65 urtetik gorakoek (% 36).

17. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera, eremu euskaldunean. Nafarroa, 2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

**Eremu mistoan** lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira adin-talde guztietan, hamarretik bederatzik baino gehiagok erdara dute lehen hizkuntza. Lehen hizkuntza euskara jaso dutenen ehunekorik handiena, 65 urte edo gehiagokoen artean dago (% 6,7), eta behera egiten du adinak behera egin ahala gazteen artean iritsi arte. Azken adin-talde horretan, aurreko adin-taldean baino gehiago dira lehen hizkuntza euskara soilik jasotzen dutenak, hau da, % 2,3.

Alderantziz gertatzen da, ordea, euskara eta erdara batera jasotzen dituztenekin, adinean behera egin ahala, gorantz egiten du ehunekoak ia adin-talde guztietan. Gazteen artean, askoz gehiago dira (% 6,2) euskara eta erdara batera jasotzen dituztenak euskara hutsik jasotzen dutenak baino (% 2,3). Gauza bera esan daiteke Iruñeari buruz.

**18. irudia.** Lehen hizkuntza adinaren arabera, eremu mistoan. Nafarroa, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lehenago gertatu zaigun bezala, **eremu ez euskaldunean** lagina ez da nahikoa euren lehen hizkuntza adinaren arabera sailkatzeko. Nolanahi ere, esan dezakegu adin-talde guztiak kontuan hartuta % 98,5ek erdara dutela lehen hizkuntza.

Lehen hizkuntzaren adinaren araberrako bilakaerari dagokionez, duela 20 urte lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara zutenen ehunekorik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (% 13,8) eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala, eta 25-34 urte bitartekoek zuten ehunekorik txikiena (% 5,4).

Gaur egun ere, 65 urtetik gorakoek dute (% 12) dute ehunekorik altuena, baina gazteenek ere aurreko adin-taldeetakoek baino ehuneko altuagoa dute (% 9,5), euskara erdararekin batera jasotzen duten ehunekoaren hazkundeagatik, arestian esan bezala. Izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 5,1ek euskara eta erdara jaso ditu batera etxean, euskara hutsik jasotzen dutenak (% 4,4) baino gehiago.

4. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2011 (%)

	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>2011</b>	<b>537.000</b>	<b>114.000</b>	<b>115.000</b>	<b>156.000</b>	<b>95.000</b>	<b>57.000</b>
Euskara	6,1	9,5	7,1	4,6	4,3	4,4
Euskara eta erdara	2,8	2,5	2,0	2,4	3,3	5,1
Erdara	91,1	88,0	90,9	93,0	92,4	90,5
<b>1991</b>	<b>421.000</b>	<b>84.000</b>	<b>82.000</b>	<b>110.000</b>	<b>76.000</b>	<b>69.000</b>
Euskara	8,1	10,2	8,7	9,0	5,0	6,8
Euskara eta erdara	2,1	3,6	1,9	2,8	,4	1,5
Erdara	89,8	86,2	89,3	88,2	94,6	91,7

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


### 3.3. ELEBIDUNAK LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA

Nafarroako 16 urtetik gorako elebidunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko dugu orain.


Nafarroako 16 urte edo gehiagoko elebidunen ia erdiak euskara izan du lehen hizkuntza (% 47,6), hau da, euskaldun zaharra da (30.000 pertsona). Elebidunen % 15,3k euskara eta erdara jaso ditu, eta jatorrizko elebiduna da (10.000 pertsona). Azkenik, elebidunen herenak baino gehiagok ez du euskararik jaso etxean eta euskaldun berria da (% 37,1), 23.000 pertsona, alegia. Azken hauek etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.

Duela 20 urte, ia elebidun guztiak euskaldun zaharrak ziren. Horrela, lautik hiru euskaldun zaharrak ziren (% 76,6), % 7,4 jatorrizko elebidunak ziren eta euskaldun berriak % 16.

19. irudia. Elebidunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera.  
Nafarroa, 1991-2011 (%)



Datuak eremuaren arabera aztertuz gero, euren arteko aldeak nabarmenak dira. Horrela, eremu euskaldunean hamar elebidunetatik ia zortzi euskaldun zaharrak dira (% 77,1) eta euskaldun berriak hamarretik bat (% 9,9). Eremu mistoan hamar elebidunetik sei euskaldun berriak dira (% 61,2) eta euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak nahiko parekatuta daude (% 20,4 eta % 18,4 hurrenez hurren). Azkenik, eremu ez euskaldunean hamar elebidunetik ia zazpi euskaldun berriak dira (% 66,7), hamar elebidunetik bi euskaldun zaharrak (% 20,8), eta hamarretik bat jatorrizko elebidunak (% 12,5).




Adinaren arabera bilakaerari dagokionez, elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. Izan ere, orain ez bezala, 1991n euskaldun zaharrak nagusi ziren adin-talde guztietan.

2011n, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, ez da horrela adin-talde guztietan, 50 urtetik beherako adin-taldeetan gero eta ehuneko txikiagoa dute. Horrezaz gain, jatorrizko elebidunek pisu handia hartu dute, baina pisurik handiena euskaldun berriek hartu dute, batez ere 35 urtetik beherakoen artean. Bestalde, azpimarratzekoa da jatorrizko elebidunak 16 eta 24 urtekoen artean euskaldun zaharrak baino gehiago direla.

Gaur egun, 16-24 eta 25-34 urte bitarteko elebidunen erdia baino gehiago euskaldun berriak dira (% 54,3 eta % 51,7 hurrenez hurren). 1991n, ordea, adin tarte horretako elebidunen % 25,5 eta % 30,2 besterik ez ziren euskaldun berriak.

**21. irudia.** Elebidunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera.  
Nafarroa, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

### 3.4. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Familia bidezko transmisioa nolakoa izan den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean. Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.


Gurasoak biak elebidunak izanik, seme-alaben % 71,2k euskara soilik jaso du Nafarroan, % 11,6k euskara eta erdara eta % 17,3k ez du euskararik jaso.

Gurasoetako bat baino ez izanik elebiduna, gehienek erdara soilik transmititu dute (% 70,9) alegia. Ia herenak euskara eta gaztelania transmititu ditu (% 29,1).

Horrezaz gain, gaur egungo transmisioa nolakoa den jakiteko, 2 eta 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuek zein hizkuntza transmititu duten aztertu da. Datuen arabera, guraso biak elebidunak direnean, seme-alaben % 95ek euskara jaso du etxean. Horietako gehienek (% 78) euskara hutsik eta gainerakoek erdararekin batera (% 17). Oso gutxi dira euskara transmititu ez duten bikote elebidunak (% 4).

Bikote mistoen kasuan, hau da, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, seme-alaba gehienek euskara eta erdara jaso dituzte (% 67), eta heren batek (% 33) ez du euskararik jaso.

**22. irudia.** Seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen ezagutzaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.



### 3.5. EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK


Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun.

Hala ere, badira lehen hizkuntza euskara izan arren, gaur egun elebidunak ez diren 8.000 pertsona, euskara guztiz edo partez galdu dutenak. Euskara hutsik edo euskara eta erdara jaso dutenen % 17 dira. 50 urtetik gorakoak dira gehienak eta ez dute euskara soilik jaso, euskara eta erdara batera baizik, eta eremu mistoan bizi dira.

Aldi berean, lehen hizkuntza gaztelania izan arren, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 23.500 pertsona daude, hau da, elebidunen % 37,2, lehen esan dugun bezala. Gehienak eremu mistoan bizi dira.

Irabaziei dagokienez, alde handiak daude adinaren arabera. Euskara irabazi dutenen ehunekoa oso txikia da 65 urtetik gorakoen artean. 50 urtetik beherakoen artean, ordea, irabaziak gero eta handiagoak dira, eta gazteen artean oso handiak dira (% 11,3).

23. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak, adinaren arabera.  
Nafarroa, 2011 (%)



## 4. Euskararen erabilera

### 4.1. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA


Euskarak gizartean duen erabileraz jabetzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak indize bat eratu zuen 2001ean. Indize horri euskararen erabileraren tipologia deitzen zaio, eta honako erabilera-eremu hauek hartzen dira kontuan: etxea (bikotekidea, seme-alabak, aita, ama eta neba-arrebak), lagunak eta eremu formala (dendak, bankuak, osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak). Jarraian emango diren erabilerari buruzko datuak tipologia horren arabera izango dira.

Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 10,1ek euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a. % 5,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b. Aldi berean, % 4,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek (% 89,8k) erdara erabiltzen dute beti (% 87,4) edo ia beti (% 2,5).

24. irudia. Euskararen erabileraren tipologia. Nafarroa, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak ia ez du gorabeherarik izan Nafarroan. 1991 eta 2011 arteko aldeak puntu eta erdikoak edo txikiagoak izan dira kasu guztietan.


**5. taula.** Euskararen erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2011

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
<b>Guztira</b>	<b>421.000</b>	<b>469.000</b>	<b>537.000</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Euskaraz erdaraz baino gehiago	16.000	20.000	19.000	3,7	4,2	3,6
Euskaraz erdaraz beste	10.000	8.000	10.000	2,3	1,7	1,9
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	13.000	20.000	25.000	3,1	4,2	4,6
Oso gutxi euskaraz	8.000	11.000	14.000	1,9	2,3	2,5
Beti erdaraz	374.000	410.000	469.000	88,9	87,6	87,3

*Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.*

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude eremu batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 48,6 dira eremu euskaldunean, % 1,7 mistoan eta % 0,2 ez euskaldunean. Horiez gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 7,9 dira eremu euskaldunean, % 6,2 mistoan eta % 1,3 eremu ez euskaldunean.

25. irudia. Euskararen erabileraren tipologia eremuaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)



Iruñean euskararen erabilera trinkoa % 1,4k egiten du, eta % 6,7k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. Gainerako % 91,9 erdaraz mintzatzen da.


Ehunekoak ikusita argi dago Nafarroan euskara eremu euskaldunean erabiltzen dela. Eremu mistoan eta, batez ere, ez euskaldunean oso txikia da euskara erabiltzen dutenen proportzioa. Baina kopuru absolutuei begiratuz gero, ezin dugu inola ere gutxietsi eremu mistoan eta ez euskaldunean euskara erabiltzen dutenen kopurua.

Eremu mistoan 4.700 lagunek (horietatik 2.400 Iruñean) erabiltzen dute euskara erdara beste edo gehiago, eta beste 18.200k (horietatik 11.300 Iruñean) euskara erabiltzen dute, baina erdara baino gutxiago.

Eremu ez euskaldunean 16 urte edo gehiago dituzten 500 pertsona inguru daude euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, eta beste 2.600 euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago.

Esan bezala, eremu euskaldunean dago euskara erabiltzen dutenen kopururik handiena: 16 urte edo gehiago dituzten 24.500 pertsonak euskara beste edo gehiago erabiltzen dute eguneroko jardunean eta beste 3.900ek euskara erabiltzen dute, baina erdara baino gutxiago.

**26. irudia.** Euskararen erabilera eremuaren arabera. Nafarroa, 2011




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak oro har bere horretan jarraitzen du Nafarroan. 1991n biztanleen % 5,9k erabiltzen zuen euskara erdara beste edo gehiago, 2001ean % 5,8k, eta 2011n % 5,5ek. Euskara erabili bai, baina erdara baino gutxiago egiten dutenen ehunekoa zertxobait hasi da: 1991n % 3,2 ziren, 2001ean % 4,3, eta 2011n % 4,6.

Eremuaren arabera ere oso gorabehera txikiak izan dira azken hogeitaz urteotan. Eremu euskaldunean erabilerak zertxobait egin du gora: 1991n euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 46,8 ziren eta 2011n % 48,6 dira. Eremu mistoan eta erdaldunean, aldiz, ez da aldaketarik izan.


**27. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Iruñeari dagokionez, % 1,4k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 6,7 dira, eta gainerako % 91,9k erdara erabiltzen du beti edo ia beti.


28. irudia. Euskararen erabileraren tipologia. Iruñea, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 4.2. EUSKARAREN ERABILERA ADINAREN ARABERA


Nafarroako gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena. 16 eta 24 urtekoen artean % 7,3k euskara erdaraz beste edo gehiago erabiltzen du eta % 7,4k euskara erabiltzen du, baina erdaraz baino gutxiago. Gainerako adin-taldeetan euskara, neurri batean zein bestean, erabiltzen dutenen portzentajeak % 6 baino txikiagoak dira.





Eremu euskaldunean ere gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 56,7 dira 25 eta 34 urtekoen artean, eta % 60,9 16 eta 24 urtekoen artean. Azken horien artean, gainera, % 10,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. Gainerako adin-taldeetan, erdia baino gutxiago dira euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, eta ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek dute (% 49,5).


**30. irudia.** Euskararen erabilera adinaren arabera. Nafarroako eremu euskalduna, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


Eremu mistoan nabarmen gehiago dira adin-talde guztietan euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenak, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak baino. Baina hemen ere gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 4 dira 16 eta 24 urtekoen artean, eta % 2 baino gutxiago gainerako adin-talde guztietan. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 10,9 dira 16 eta 24 urtekoen artean eta, % 8,2 25 eta 34 urtekoen artean. Gainerako adin-taldeetan % 5 inguru dira.

**31. irudia.** Euskararen erabilera adinaren arabera. Nafarroako eremu mistoa, 2011 (%)



Euskararen erabilerak adinaren arabera oso gorabehera txikiak izan ditu azken 20 urteotan (1,5 puntu inguru adin-talde guztietan). 1991 eta 2011 bitartean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 35 urtetik gorako nafarren artean. 35 urtetik beherakoen artean, aldiz, gehiago dira gaur egun euskara erabiltzen dutenak duela 20 urte baino. Portzentajerik handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean dago (% 7,3).

**32. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


### 4.3. EUSKARAREN ERABILERA ESPARRUAREN ARABERA

#### EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

Nafarroan 16 urte edo gehiago dituzten biztanleen % 5,4k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du etxean, % 2,9k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago eta % 91,7k beti edo ia beti erabiltzen du erdara.

Erabilera, baina, desberdina da etxeko kideen arabera. Euskara gehien seme-alabekin (% 8) eta neba-arrebekin (% 7) erabiltzen da. Euskararen erabilera % 4,3 da bikotekidearekin eta % 3,8 gurasoekin.


33. irudia. Euskararen erabilera etxean. Nafarroa, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Nafarroako etxeke erabilera zertxobait txikiagoa da gaur egun duela 20 urte baino. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak % 6,6 ziren 1991n eta, esan bezala, % 5,4 dira 2011n. Etxeko kide desberdinekiko erabileraren bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera trinkoak behera egin du bikotekidearekin (-0,7 puntu) eta gurasoekin (-1,6 puntu amarekin eta -1,2 puntu aitarekin). Seme-alabekin eta neba-arrebekin, aldiz, erabilerak gora egin du (1,5 eta 0,8 puntu, hurrenez hurren).

**34. irudia.** Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera.  
Nafarroa, 1991-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## EUSKARAREN ERABILERA ESPARRU HURBILEAN


Esparru hurbileko erabilerari buruz ari garenean, lagunekin, auzokideekin, lankideekin eta dendariekin egiten dugun erabileraz ari gara. 16 urte edo gehiago dituzten Nafarroako biztanleen % 7,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lagunekin, % 7,1ek lankideekin, % 5,7k auzokideekin eta % 5,1ek dendariekin.

Horietaz gain, bada pertsona multzo bat euskara erabiltzen duena, baina erdara baino gutxiago. Lagunekin % 4,2 dira, eta gainerako erabilera eremuetan % 3 inguru.



Azken 20 urteotan euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak bere horretan jarraitzen du lagunekin eta hazi egin da lankideekin (1,7 puntu) zein dendariekin (0,4 puntu).

**36. irudia.** Esparru hurbilean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## EUSKARAREN ERABILERA ESPARRU FORMALLEAN

Esparru formaleko erabilera neurtzeko, nafarrek bankukoekin, osasun-zerbitzu-etakoekin, udal zerbitzuetakoekin eta Nafarroako Gobernuoekin egiten duten erabilera jaso dugu.


Euskara erdara beste edo gehiago % 6,4k egiten du udal zerbitzukoekin, eta % 5,4k bankukoekin. Osasun-zerbitzukoekin % 4,9k erabiltzen du, eta Nafarroako Gobernuoekin % 2,6k.





2011ko erabilera datuak 1991koekin konparatuz gero, zalantzarik gabe esan dezakegu euskararen erabilera gora egin duela eremu formalean. Igoera hori zertxobait handiagoa izan da esparru publikoan (2 puntu inguru). Hala ere, 2001etik hona euskararen erabilera moteldu egin da, eta zenbait esparrutan atzera egin du.


**38. irudia.** Esparru formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

#### 4.4. EUSKARAREN ERABILERA ELEBIDUNEN ARTEAN

Elebidunak bakarrik kontuan hartuz, % 47,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, % 31,8k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako % 21ek ez du inoiz edo ia inoiz erabiltzen euskara.



Azken 20 urteotan euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen ehunekoak 15,6 puntu egin du behera, nahiz eta kopuru absolutuetan 4.500 pertsona gehiago diren. Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen duten elebidunak, aldiz, gehiago dira bai ehunekotan (4,7 puntu gehiago) baita absolutuetan ere (9.100 lagun gehiago).

**6. taula.** Elebidunen euskararen erabilaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2011

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
<b>Guztira</b>	<b>40.000</b>	<b>48.000</b>	<b>63.000</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Euskaraz erdaraz baino gehiago	15.500	20.000	19.500	38,7	40,9	30,8
Euskaraz erdaraz beste	9.500	8.000	10.000	24,1	16,0	16,4
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	11.000	13.000	20.000	27,1	26,6	31,8
Oso gutxi euskaraz	2.000	4.000	9.000	4,7	9,0	13,7
Beti erdaraz	2.000	3.000	4.500	5,4	7,4	7,3

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


#### 4.5. ELEBIDUNEN ERABILERA ERRAZTASUNAREN ETA LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA

Nafarroako euskal elebidunen %94,6k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Hau da, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen diren ia elebidun guztiek euskararen erabilera trinkoa egiten dute.

Elebidun orekatuen kasuan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 63,1 dira.

Azkenik, erdal elebidunen artean, hau da, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnen artean, % 13,4 dira euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak.

**40. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunak, erraztasunaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)



Erraztasunak lotura zuzena du lehen hizkuntzarekin, eta batak eta besteak eragin handia dute erabileran.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lehen hizkuntza euskara duten elebidunen % 75ek, lehen hizkuntza euskara eta erdara duten % 43k eta lehen hizkuntza erdara duten elebidunen % 13k.

Nafarroan gero eta gehiago dira euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiteko gaitasuna duten pertsonak, hau da, hazi egin da hiztun potentzialen kopurua. Baina erabilerarekin ez da gauza bera gertatzen ari. Izan ere, azken 20 urteotan ia bere horretan mantendu da euskara erabiltzen dutenen ehunekoa.


Hortaz, gero eta handiagoa da elebidunen eta euskara erabiltzen dutenen arteko aldea. Duela 20 urte euskaraz zekitenen eta erabiltzen zutenen artean 3,5 puntuko aldea zegoen. Gaur egun, aldiz, alde hori 6,2 puntukoa da.

Nafarroak, gainera, bi hizkuntza-errealitate oso desberdin bizi ditu, eta ezagutzaren eta erabileraren arteko aldeak askoz nabarmenagoak dira eremu mistoan eta, zer esanik ez, erdaldunean, eremu euskaldunean baino.

Ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen jauzi hori argi eta garbi ikus daiteke aldagai biak adinaren arabera erkatzen baditugu: adinak behera egin ahala, orduan eta handiagoa da elebidunen eta euskara erabiltzen dutenen arteko aldea.

Elebidun gazteen artean, euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoi nagusiak hauek dira: lehen hizkuntza erdara izatea, euskaraz jarduteko erraztasun urriagoa izatea eta gehienak gune erdaldunetan bizitzea.

**41. irudia.** Elebidunak, lehen hizkuntza euskara dutenak eta euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, adinaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)



- Elebidunak
- Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak
- Lehen hizkuntza euskara soilik

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 4.6. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Erabilerari buruz egin ditugun azterketek behin eta berriro erakusten digute euskararen erabilera eragiten duten faktore nagusiak bi direla:

- euskaldunen dentsitatea harreman-sarean, eta
- erraztasuna euskaraz egiteko.


Bi faktore horiez gain, badira beste batzuk ere eragina dutenak, hala nola, lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa.

Faktore horiek erabilera-eremu nagusietan zenbateraino eragiten duten zehatz-mehatz jakiteko, korrelazioak aztertuko ditugu jarraian. Korrelazioak bi aldagairen arteko harremana zehazten du, eta 0 eta 1 arteko zenbaki baten bidez adierazten da. Zenbakia zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da faktorearen eragina.

Etxean, lagunekin eta lankideekin korrelazioak nolakoak diren azaldu, eta balioak handienetik txikienera emango ditugu.


Etxeko erabileran gehien eragiten duen faktorea etxeko euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakiten euskaraz (0,755). Bigarren faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da (0,720). Gune soziolinguistikoak (0,629) eta lehen hizkuntzak ere (0,587) eragin handia dute etxean.

42. irudia. Korrelazioak: erabilera etxean. Nafarroa, 2011



Lagunekiko erabileran gehien eragiten duen faktorea euskaraz zenbat lagunek dakiten da (0,736). Bigarren faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da (0,646). Gune soziolinguistikoak (0,621) eragin handia du eta lehen hizkuntzak (0,432) txikiagoa.


**43. irudia.** Korrelazioak: erabilera lagunekin. Nafarroa, 2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lankideekiko erabileran oso nabarmena da euskaldunen dentsitateak lankideen artean duen eragina (0,885). Gainerako faktoreek etxean eta lagunartean baino eragin askoz ere txikiagoa dute. Bigarren faktorea erraztasuna da (0,408). Ondoren datoz gune soziolinguistikoa (0,281) eta lehen hizkuntza (0,278).

44. irudia. Korrelazioak: erabilera lankideekin. Nafarroa, 2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.




#### 4.7. EUSKARAREN ERABILERA INTERNETEKO GIZARTE-SAREETAN

2011ko inkesta soziolinguistikoa, Interneteko gizarte-sareen erabilerari buruz galdetu da. Inkestatuen herenak (% 37,7) gizarte-sareak erabiltzen dituela adierazi du: % 24,7k egunero edo astean bizpahiru egunetan, eta % 13k asteburuan edo noizean behin. Interneteko gizarte-sareak gazteek erabiltzen dituzte gehienbat: 16 eta 24 urtekoen % 91,6k, gazte erabiltzaileen % 60,8k egunero.

Erabiltzaileen % 2,1ek euskara erdara beste erabiltzen du, eta % 3,5ek euskara erdara baino gehiago. Gazteen artean (16-24 urte), euskara erdara beste % 4,3k erabiltzen du, eta % 9,1ek euskara erdara baino gehiago.

45. irudia. Euskararen erabilera Interneteko gizarte-sareetan, adinaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera


### 5.1. JARRERAREN TIPOLOGIA

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritziaren araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen % 37,7 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 27,8 ez alde ez aurka, eta % 34,5 aurka dago.

Nafarroan euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 16 puntuko igoera izan du hogeit urtean. Izan ere, 1991n nafarren %21,6 zegoen euskara sustatzearen alde, eta % 37,7 dago gaur egun alde.

46. irudia. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Bestalde, aipatzekoa da euskararekiko jarrerak lotura handia duela hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde elebidunen % 88,7 dago, elebidun hartzaileen % 64,6 eta erdaldunen % 27,8.

Erdaldunen artean, ia herena ez dago ez alde ez kontra (% 31). Azkenik, elebidunen % 1,1 aurka dago, elebidun hartzaileen % 13,7 eta % erdaldunen % 41,2.

Euskara sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da eremu euskaldunean (% 69), eremu mistoan (% 42,5) eta eremu ez euskaldunean baino (% 22,5).

Iruñean % 42,8k dute euskara sustatzearen aldeko jarrera, eta % 34,5ek aurkakoa.

**7. taula.** Euskara sustatzeari buruzko jarrera, eremuaren eta hiriburuaren arabera. Nafarroa, 2011 (%)

	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Iruñea	Eremu ez euskalduna
Aldekoa	69	42,5	42,8	22,5
Ez alde, ez aurka	21,6	26,6	22,6	31,3
Aurkakoa	9,4	30,9	34,5	46,2

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Adinari dagokionez, 16-24 urte bitartekoek eta 65 urtetik gorakoek dute euskararen erabilera sustatzearen aldeko ehunekorik altuena (% 41,8 eta % 39,7 hurrenez hurren). 25-34 eta 35-49 urte bitartekoek dute, ordea, aurkako jarrerarik handiena (% 34,6 eta % 36,3).

Nafarroako biztanleen jatorriak badu zer ikusirik euskararen erabilera sustatzearen aldeko eta kontrako jarrerekin.

Horrela, bertan jaioak eta gurasoak ere bertakoak dituztenen % 40,8 euskararen erabilera sustatzearen alde daude, eta bertan jaioak baina gurasoetako bat etorkina dutenen % 36,2. Era berean, bertan jaioak baina guraso biak etorkinak dituzten eta etorkinen % 30 daude euskara sustatzearen alde.

## 5.2. EUSKARARI BURUZKO ZENBAIT IRITZI

Egindako galderetan azpimarratzekoa da Administrazioan sartzeko euskaraz jakiteari ezinbesteko irizten diotela Nafarroan gehienek (% 53).

Bestalde, % 43k uste du haurrek euskara ikasi behar dutela ezinbestez. Aurkakoak ere asko dira, % 48, alegia.


Euskarari buruz dauden aurreiritzi batzuek gizartean zenbateraino dauden erroturik ezagutu nahian, inkestatuei iritzia eskatu zaie. Laburbilduz, emaitzak honakoak dira:

- Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen artean nagusi dira euskarak ez duela sekula gaztelaniak duen indarra izango uste dutenak (% 59). Egia da, hala ere, biztanleriaren laurdenak (% 25) kontrakoa uste duela.
- Hizkuntzaren aberastasunari dagokionez, biztanleen % 43k uste du euskara gaztelania bezain aberatsa dela, eta gutxi dira kontrakoa uste dutenak (% 10).
- Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen Nafarroako biztanleen % 79ren ustez, eta arazo iturri izan daiteke % 17ren ustez.
- Azkenik, Nafarroako biztanle gehienek uste dute umeak murgiltze-programetan sartzea ona dela (% 82).
- Euskara ez dago galtzeko arriskuan gehienek ustez (% 68).

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen % 55,9k seme-alabarik izanez gero, D edo B ereduan (% 32,2 eta % 23,7 hurrenez hurren) ikas dezaten nahi luke, eta % 43,1ek A edo G ereduan (% 19 eta % 24,1 hurrenez hurren).

Bilakaera egin ahal izateko, duela 15 urte nafarrek gai honetaz zer-nolako iritzia zuten jakiteko, ereduok batu ditugu orduko inkestaren eta oraingo inkestaren datuak konparatu ahal izateko. Azpimarratzekoa da duela 15 urte askoz txikiagoa zela D edo B ereduaren aldeko hautua (% 38,3) eta askoz handiagoa A edo G ereduaren aldekoa (% 55,1). Izan ere, 1996an % 30,1ek A ereduan ikastea nahi luke, eta % 25,1ek G ereduan hurrenez hurren).

47. irudia. Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea?  
Nafarroa, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Nafarroako Gobernuaren balorazioari dagokionez, % 47,8k dio euskara sustatzeko egindako lana desegokia dela, eta % 18,3k egokia. Horrezaz gain, askok ez dakite edo ez dute erantzuten (% 29,1).

Zergatia galdeturik, % 94,3ek dio balorazioa desegokia dela gutxi egin delako, eta gainerako % 5,7k gehiegi egin delako.

Eremu euskaldunean % 66,3k uste du Nafarroako Gobernuaren lana desegokia dela, eta % 5,5ek egokia dela. Eremu mistoan % 56k uste du Nafarroako Gobernuaren lana desegokia dela, eta % 19,5ek egokia dela. Azkenik, eremu ez euskaldunean, % 30,7k uste du Nafarroako Gobernuaren lana desegokia dela eta % 19,8k egokia.

Bestalde, 16 urtetik gorako Nafarroako biztanleen % 83k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste du, % 14k gaztelaniaz soilik, eta % 3k euskaraz soilik.

Azkenik, elebidunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izategatik, eta % 49k erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakiteagatik, eta % 19k erantzun du diskriminatuta sentitu dela.

## 6. Laburbilduz

- Nafarroako gizarteak bi ezaugarri esanguratsu ditu: gero eta gizarte zaharragoa da eta atzerriko etorkinen portzentajea handia da. Nafarroan biztanleriaren % 17,6k 65 urte baino gehiago ditu, gero eta bizi-eratu handiagoa du (83,5 urte) eta atzerriko etorkinei dagokienez, biztanleen % 11,4 dira 2011n.
- 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 11,7 elebiduna da, % 7,5 elebidun hartzailera eta % 80,8 erdalduna. Nafarroako elebidunen ehunekoak 2,2 puntu egin du gora azken 20 urteotan. Gaur egun, 63.000 elebidun daude, 1991n baino 23.000 gehiago.
- Elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago: 16 eta 24 urteko gazteen % 20,8 elebiduna da, hau da, 1991ko ehunekoaren bikoitza.
- Nafarroako elebidunen % 47,5 eremu euskaldunean bizi da eta % 45,3 eremu mistoan. Eremu ez euskaldunean elebidunen % 7,2 bizi da.
- Hiru elebidunetik bat euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna da, hau da, etxean jaso du euskara. Adinak behera egin ahala, ordea, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 16 eta 34 urtekoen artean erdiak baino gehiagok etxetik kanpo ikasi du euskara, eskolan edo euskaltegian.
- Lehen hizkuntzak lotura zuzena du hizkuntza batean lortzen den erraztasunarekin. Gaur egun, elebidunen ia erdia hobeto moldatzen da erdaraz euskaraz baino. Gazteen artean hamarretik ia sei dira erdaraz hobeto moldatzen direnak.
- Gaur egun, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten ia guraso elebidun guztiek euskara transmititzen dute. Guraso biak elebidunak direnean, seme-alaben % 95ek euskara jaso du etxean. Gehienek (% 78) euskara bakarrik eta % 17k euskara erdararekin batera. Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, seme-alaben % 67k jaso du euskara etxean, eta beti erdararekin batera. Gainerako % 33k erdara jaso du gurasoengandik.
- Nafarroako biztanleen % 5,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Beste

% 4,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. Gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.

- Euskararen erabilera alde handiak daude eremu batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago % 48k erabiltzen du eremu euskaldunean, % 1,7k mistoan eta % 0,2k ez euskaldunean.
- Euskararen erabilera orokorrak ia ez du gorabeherarik izan azken 20 urteotan. Aldeak puntu eta erdikoak edo txikiagoak izan dira.
- Azken 20 urteotan, euskararen erabilera gora egin du esparru formalean, ia ez du gorabeherarik izan esparru informal hurbilenetan, eta behera egin du etxean (seme-alabekin eta neba-arrebekin izan ezik).
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 16 puntuko hazkundea izan du azken 20 urteotan. Gaur egun, nafarren % 37,7 euskararen erabilera sustatzearen alde dago. Aurkako jarrerak behera egin du, eta gaur egun % 34,5 da euskara sustatzearen aurka azaltzen dena. Eremuaren arabera alde handiak daude. Izan ere, eremu euskaldunean eta mistoan gehiago dira euskara sustatzearen aldekoak kontrakoak baino, baina eremu ez euskaldunean alderantziz gertatzen da.

**I P A R R A L D E A**  
V. Inkesta Soziolinguistikoa





Frantxua MAITIA  
Euskararen Erakunde  
Publikoaren presidentea



## V. INKESTA SOZIOLONGUISTIKOAREN EMAITZAK IPARRALDEAN: BEHERAKADAK SEGITZEN BADU ERE, INDARBERRITZE BIDEAN AITZINA GOAZ

**H***iztun osoak behuru, gazte belaunaldiak lebertasun.* Honako hau da Hizkuntza Politika Proiektuak finkatzen duena estrategia euskararen indarberritzeko Iparraldean. Dokumentu-kuadro hori aho batez bozkatu zuten 2006an, Euskararen Erakunde Publikoan bildurik, Estatuak, Akitaniako Eskualdeko Kontseiluak, Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak, Iparraldeko hautetsien kontseiluak eta Euskal kulturaren sustengatzeko herrien arteko sindikatak. Lehen aldiz orduan, euskararen aldeko politika publiko bat abian jarri zen, desmartxa bultzatzaile batean, hiztun eta eragileen hautu librearen errespetuan.

Politika hori, testuinguru soziolinguistiko batean oinarrituz definitu zen. 1991, 1996 eta 2001eko inkestek hiztun kopuruaren gainbehera eta familia transmisioaren moztura ikustera ematen zuten. Testuinguru horretan argi gelditzen zen beraz, euskararen indarberritzea, gazte belaunaldiengandik jin beharko zela, eta euskararen transmisioa, nagusiki eskola edo haurtzaindegien bitartez berpiztuko zela lehen urrats batean. 2006ko inkestan, hiztun kopuruaren apaltzea agertzen bazen, lehen aldiko, euskaldunen parte emendatzen zen adin tarte gazteenetan. Itxaropenerako keinu bat izateaz gain, Hizkuntza Politika Proiektuak finkatu strategiaren egokitasuna konfirmatzen zuen horrek.

2011ko inkesta honek berriz, itxaropenerako keinutik haratago, euskararen indarberritzeko bidean aitzina goazela erakusten du.

Iparraldeko gizartean, elebidunen parte ttipituz doa oraino ere, euskal hiztunen herenak 65 urtetik gora baitu, eta lurraldeko biztanleria emendatzen ari baita jendea kanpotik etortzearen ondorioz. Baina lehen aldiko, beheraka horren erritmoa moteltzen da.

Hala, adin tarte gazteenetan, euskaldunen parteak handitzen segitzen du, eta azpimarratzekoa da 16-24 adin tarteko euskaldunen tasa, 35-49 adin tartekoa baino handiagoa dela. Halaber, familia transmisioaren aldetik, agertzen da euskara beti eta gehiago transmititzen dela, izan bat ala bi bikotekideak euskaldunak. Haatik, adin tarte gazteenen artean, beste adin tartetean ez bezala, erdal elebidunak dira nagusitzen.

Joera positibo horien arabera, argi gelditzen da, euskararen transmisioaren garapenean segitu behar dela, eskolan edota haurtzaindegietan, bai eta familia transmisioari buruzko sentiberatze lanetan ere. Baina kantitatean irabazten dena, ez bailiteke kalitatean galdu behar, ezinbestekoa agertzen da transmisio sistema horien eraginkortzea.

Zentzu horretan, ezinbestekoa agertzen da ere euskararen erabilera guneen garatzea. Transmisioa baitezpadakoa baldin bada hizkuntzaren ikaspenerako, hori bezain garrantzitsua da erabilera. Batetik, erabileraren bidezko ikaspena, saihestezina den etapa da hizkuntza baten ikas-prozesuan, hau gabe, ikaspena osatugabea geldituko bailitzateke. Bestetik, helduak eredu izanki belaunaldi berriendako, helduen artean ere erabileraren garatzea baitezpadakoa baita. Horretarako komeni da bizitza sozialeko eremu guzietan hizkuntzaren erabileraren garatzea, ikas-prozesuan sartuak diren haurrek, ikasten segitzeko eta euskararen erabiltzeko gogoia ukan dezaten. Helduak hizkuntzaren erabiltzen ikustean, haur eta gazteei ere euskaraz handitzeko eta helduak bilakatzeko gogoia ematen baitzaie.

Horretarako 2010eko urrian, Euskararen Erakunde Publikoko Administrazio Kontseiluak bere lehentasunetan sartu zuen euskararen erabileraren garatzea, aisialdian, edota gizarte bizitzako hainbat eremutan; gogoan atxikiz beti ere, euskara bizi dela, jendeak dakien hizkuntza baita, eta batez ere, jendeak baliatzen duen hizkuntza delako. Hala, derrigorrezkoa da, hizkuntza politika honen bitartez, hiztun osoen sortzea: euskaraz mintzatzeko trebetasunetik, euskaraz komunikatzeko gogoia ukanen baitute, eta euskara zinez erabiltzea erabakiko baitute. Horrela baizik ez diegu igurikatzen dutena emanen Iparraldeko biztanleei. Izan ere, inkestan galdekatuen % 94ak lurraldearen etorkizuna elebidun ikusten baitu.


Bukatzeko, gure EAEko partaideak eskertu nahi ditut V. inkesta soziolinguistikoa hau antolaturik. Eusko Jaurlaritza inkesta honen obratzaile da, eta iparraldeko partea, lankidetzan estuan eraman du Euskararen Erakunde Publikoarekin. Gure gain hartu ditugu laginaren definitzea INSEErekin, lan baldintzen antolaketa, txostenen idazketa edota itzulpena, bai eta haien zabaltzea ere. Urtetik urtera eta inkesta batetik bestera, gauzatuz goaz hizkuntza politika eremuan dugun partaidetza hertsia.

## 1. Hizkuntza-gaitasuna

### 1.1. BIZTANLERIA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

Iparraldean 16 urte edo gehiagoko 239.000 pertsona bizi dira 2011ko datuen arabera. Horietatik 51.000 lagun (% 21,4) elebidunak dira, hau da, ondo moldatzen dira euskaraz eta frantsesez. Era berean, 22.000 elebidun hartzaileak (% 9,1) dira, nahiz eta euskaraz ondo mintzatu ez, ondo ulertzeko gai dira. Gainerako guztiak, hau da, 166.000 pertsona, (% 69,5) erdaldunak dira, hau da, ez dakite euskaraz.


1. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Iparraldea, 2011 (%)



Datuak lurraldeen arabera aztertuz gero, ikus daiteke desberdintasun handiak daudela batetik bestera. Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira elebidunen ehunekorik handiena dutenak, % 52,1 baitira elebidunak (17.000 elebidun). Iparraldeko

elebidun gehienak Lapurdi barnealdean bizi dira, hau da, % 23,9 dira elebidunak (26.000 elebidun). Lapurdiko BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) eskualdea da Iparraldeko elebidunen ehunekorik zein kopururik txikiena duena. Izan ere, % 8,7 dira elebidunak (8.000 elebidun).

2. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2011 (%)



Aurreko urteetako datuekin alderatuz, ikus daiteke Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleria gora egiten ari dela etengabe, batez ere Lapurdi barnealdean. Ez da gauza bera gertatzen ari elebidunen ehunekoarekin. Horrela, aurreko urteetako joerari jarraituz, BAMen, Lapurdi Barnealdean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, oro har, elebidunen ehunekoak behera egiten jarraitzen du, nahiz eta beherakada hori moteldu egin den.


1. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2011

	Iparraldea	BAM	Lapurdi barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
<b>Guztira</b>	<b>239.000</b>	<b>99.000</b>	<b>107.000</b>	<b>33.000</b>
Elebidunak	51.000	8.000	26.000	17.000
Elebidun hartzaileak	22.000	6.000	11.000	5.000
Erdaldunak	166.000	85.000	70.000	11.000

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Atzera begiratzuz gero, hamabost urtean 5 puntutan egin du behera elebidunen ehunekoak. 1996an Iparraldeko elebidunak % 26,4 ziren, 2001ean % 24,7 ziren, 2006an % 22,5 eta orain % 21,4. Era berean, elebidun hartzaileek ez dute aldaketa handirik izan, biztanleen % 9,3 ziren duela 15 urte, eta % 9,1 dira gaur egun.

3. irudia. Elebidunen bilakaera. Iparraldea, 1996-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Elebidunen bilakaera eskualdeen arabera aztertuko dugu orain. BAM eskualdean ez da ia aldatu elebidunen ehunekoak azken 15 urteotan. Elebidunak % 9,1 ziren duela 15 urte eta % 8,7 dira gaur egun.

Lapurdi barnealdeari dagokionez, 7,1 puntutan egin du behera elebidunen ehunekoak. Elebidunak % 31 ziren duela 15 urte eta % 23,9 dira gaur egun.

#### 4. irudia. Elebidunen bilakaera. Lapurdi barnealdea, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Elebidunen beherakadarik handiena Nafarroa Beherean eta Zuberoan gertatu da.

Hamabost urtean 11,9 puntutan egin du behera elebidunen ehunekoak. Izan ere, 1996an Nafarroa Behereko eta Zuberoako 16 urte edo gehiagoko elebidunak % 64 ziren, eta orain % 52,1 dira.

**5. irudia.** Elebidunen bilakaera. Nafarroa Beherea eta Zuberoa, 1996-2011 (%)

## 1.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA

Elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago, eta adinean behera egin ahala, elebidunen ehunkoa behera doa etengabe, gazteenen adin tartera iritsi arte, multzo horretan joera aldatu egiten baita.

Arestian esan bezala, elebidunen beherakada ez da berdin gertatzen adin-talde guztietan. Gainera gazteenen artean elebidunen ehunkoa jaitsi ordez igo egin da, aurreko adin multzoarekin alderatuz. Elebidun gutxien 25-34 urtekoen artean dago (% 13,9), eta gehien aldiz 65 urte edo gehiagokoen artean (% 30,6). Dena dela daturik azpimarragarriena, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunen portzentajea da, % 17,6koa baita. Horrek esan nahi du gazteen aldetik azken urteotako beheranzko joera apurtu egin dela eta goranzko biderei ekin zaiola.

Elebidun hartzaien portzentajerik handiena 16-50 urte artekoen artean dago, eta % 10 ingurukoa da. Halaber, 50 urte baino gehiago dituztenen artean elebidun hartzaien portzentajea jaitsi egiten da. Esate baterako, % 7,2koa da elebidun hartzaien portzentajea 50-64 urtekoen artean, eta % 7,6koa 65 urte edo gehiagokoen artean.



Erdaldunei dagokienez, portzentajerik handiena 35-49 urte artekoen artean dago (% 75,1), eta txikiena, aldiz, 65 urte edo gehiago dituztenen artean (% 61,8). Azpimarratzekoa da, 25-34 urtekoen eta 16-24 urtekoen arteko erdaldunen ehunekoak alderatuz, behera egiten duela ia 3 puntuz (% 71,1 versus % 73,7).


2. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Iparraldea, 2011 (%)

	Iparraldea	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Guztira</b>	<b>239.000</b>	<b>62.000</b>	<b>57.000</b>	<b>61.000</b>	<b>32.000</b>	<b>27.000</b>
Elebidunak	21,4	30,6	24,4	15,1	13,9	17,6
Elebidun hartzailleak	9,1	7,6	7,2	9,8	12,3	11,3
Erdaldunak	69,4	61,8	68,5	75,1	73,7	71,1

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Duela 15 urte, elebidunen ehunekoak behera egiten zuen adinean behera egin ahala. Horrela 65 urte edo gehiagoko biztanleen % 37,6 zen elebiduna, eta 16-24 urte bitarteko gazteen % 11,3. Gaur egun ordea, elebidunen ehunekoa gora egiten hasi da 16-24 urtekoen artean (% 17,6 dira elebidunak) eta aurreko urteetako joera aldatzea lortu da.

6. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


Aipatu ditugun datu horiek badute desberdintasunik eskualdeen arabera. BAM eta Lapurdi barnealdeko datuak oro har bat datozen bitartean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ez, euskara beherantz baitoa oraindik gazteenen artean. Ikus ditzagun banan-banan.

**BAM**

Elebidunak % 12,1 dira 65 urte edo gehiagokoen artean. Adinean behera egin ahala ehunekoa gutxituz doa gazteenen adin-taldera iritsi arte. Horrela 16-24 urte bitartekoen artean % 8,3koa da elebidunen ehunekoa, eta 25-34 urte bitartekoena, ordea, % 4,6.

Bestalde, elebidun hartzaileen ehunekoa elebidunena baino handiagoa da 25-34 urtekoen artean (% 8,7).

7. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. BAM, 1996-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## LAPURDI BARNEALDEA

Iparralde osoan bezala, Lapurdi barnealdean ere elebidunen portzentajerik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago (% 36), adinean behera egin ahala nabarmen jaisten da portzentajea eta elebidun gutxien 35-49 urtekoen artean dago (% 15). Dena dela, 35 urtetik beherakoen artean elebidunen ehunekoak gora egiten du eta igoerarik handiena gazteenen adin-taldean gertatzen da. Horrela, 16 eta 24 urtekoen artean % 23,5 dira elebidunak.

Elebidun hartzaileen portzentajea % 10etik gorakoa da 50 urtetik beherako adin-talde guztietan. Portzentajerik handiena 35-49 urte bitartekoaren artean dago (% 12,7).

8. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Lapurdi barnealdea, 1996-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## NAFARROA BEHEREA ETA ZUBEROA

Nafarroa Beherean eta Zuberoan ere elebidunen ehunekoak behera egiten du nabarmen adinean jaitsi ahala, baina badirudi gazteenen artean jaitsiera gelditu egin dela. Elebidunen portzentajeen alde handiak daude nagusienetik gazteenetara. Izan ere, 65 urte edo gehiagoko biztanleen lautik ia hiru dira elebidunak (% 70,1) eta 16-24 urte bitarteko biztanleen herena dira, aldiz, elebidunak (% 32).

Elebidun hartzaileei dagokienez, adinean behera egin ahala, elebidun hartzaileen ehunekoak gora egiten du. Horrela, 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen % 6,2 dira elebidun hartzaileak, eta % 20tik gora, aldiz, 35 urtetik beherako adin-taldeetan.

9. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa Beherea eta Zuberoa, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

### 1.3. ELEBIDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO


Elebidunak hiru multzotan banatu ditzakegu, euskaraz edo frantsesez hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

**Euskal elebidunak** errazago moldatzen dira euskaraz frantsesez baino. Elebidunen % 23,1 dira, Iparraldeko biztanleen % 4,8, hain zuzen. Ia euskal elebidun guztien lehen hizkuntza euskara da eta gune euskaldunetan eta biztanle gutxiko udalerrietan bizi dira, nagusiki Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

**Elebidun orekatuak**, aldiz, berdin moldatzen dira euskaraz eta frantsesez. Elebidunen multzorik handiena dira, hau da, elebidunen % 42,6, Iparraldeko biztanleen % 10,9, hain zuzen. Elebidun orekatu gehien Nafarroa Beherean eta Zuberoan eta Lapurdi barnealdean bizi dira. Ia guztien lehen hizkuntza euskara da.

**Erdal elebidunak** hobeto moldatzen dira frantsesez euskaraz baino. Elebidunen % 34,3 eta Iparraldeko biztanleen % 8,3 dira. Erdal elebidun gehienak Lapurdin bizi dira, BAMen zein barnealdean. Lehen hizkuntzari dagokionez, gehienek euskara dute lehen hizkuntza eta gutxi batzuek frantsesa.

10. irudia. Elebidunak erraztasunaren arabera.  
Iparraldea, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


Emaitzak lurraldeka aztertuz gero, esan daiteke badagoela alderik lurralde edo eskualde batetik bestera

BAMen, erdia baino gehiago erdal elebidunak dira (% 53,4), herena elebidun orekatuak dira (% 32). Bost elebidunetik bat baino gutxiago dira euskaraz frantsesez baino hobeto moldatzen direnak (% 17,1).

Lapurdi barnealdean elebidun gehienak elebidun orekatuak dira (% 45,4), herena erdal elebidunak dira (% 34,6), eta gutxiengoa dira euskal elebidunak (% 20).

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, Lapurdi barnealdean bezala, gehienak elebidun orekatuak dira (% 43,8), herena euskal elebidunak dira (% 32,2). Beste bi eskualdeetan ez bezala, erdal elebidunak gutxiengoa dira (% 24,1).


11. irudia. Elebidunak erraztasunaren eta lurraldearen arabera.  
Iparraldea, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Bilakaerari dagokionez, azken 15 urteotan aldaketa nabaria izan da Iparraldeko elebidunen erraztasunean. Horrela, 1996an elebidunen % 34 hobeto moldatzen zen euskaraz erdaraz baino, orain % 23,1 da. Euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen direnen ehunekoari dagokionez, gaur egun duela 15 urte baino gehiago dira (% 32,1 zen 1996an eta % 42,6 da orain). Erdaraz hobeto moldatzen direnen ehunekoa ez da ia aldatu. Izan ere, % 33,9 zen 1996an eta % 34,3 da gaur egun.

12. irudia. Elebidunen erraztasunaren bilakaera. Iparraldea, 1996-2011 (%)




Adinaren arabera, euskaraz hobeto moldatzen direnen ehunekoari handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago (% 31,5), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du. 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen artean euskaraz hobeto moldatzen direnak % 11,9 dira.

Ia adin-talde guztietan elebidun orekatuen ehunekoa % 40tik gorakoa da. Salbuespena, 16-24 urte bitarteko elebidun gazteen ehunekoa da (% 38,5).



Erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 65 urte baino gehiagoko laurdenak (% 26,7) eta 16 eta 24 urteko gazte elebidunen ia erdiak (% 49,6) errazago hitz egiten dute erdaraz euskaraz baino.

**13. irudia.** Elebidunen erraztasuna adinaren arabera.  
Iparraldea, 2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 2. Hizkuntzaren transmisioa

### 2.1. LEHEN HIZKUNTZA

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak 3 urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 24,9k euskara jaso du etxean (59.500 pertsona). Horietatik, % 19,5ek euskara soilik jaso du (46.500 pertsona), eta beste % 5,4k euskara jaso du etxean, baina erdararekin batera (13.000 pertsona). Gainerako % 75,1ek erdara soilik jaso du etxean (179.000 pertsona).



Lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira BAMen eta Lapurdi barnealdean, baina Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleen erdiak baino gehiagok euskara jaso du etxean lehen hizkuntza gisa. Ikus ditzagun datuak banan-banan.

BAMeko biztanle gehienek lehen hizkuntza erdara da (% 89) eta gutxiengo txiki batena euskara (% 8,8) edo euskara eta erdara (% 2,3).

Lapurdi barnealdean erdara da biztanleen % 73,2ren lehen hizkuntza; euskara, berriz, % 19,8ren lehen hizkuntza, eta euskara erdararekin batera % 7rena.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, ordea, alderantziz gertatzen da, biztanle gehienek lehen hizkuntza euskara da (% 51,2), edo euskara erdararekin batera (% 9,7). Erdara hutsik jaso du, aldiz, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleen hamarretik lauk (% 39,1).

3. taula. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. Iparraldea, 2011 (%)

	Iparraldea	BAM	Lapurdi barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
<b>Guztira</b>	<b>239.000</b>	<b>99.000</b>	<b>107.000</b>	<b>33.000</b>
Euskara	19,5	8,8	19,8	51,2
Euskara eta erdara	5,4	2,3	7,0	9,7
Erdara	75,1	89,0	73,2	39,1


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 2.2. LEHEN HIZKUNTZA ADINAREN ARABERA

Iparraldean lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa asko jaisten da adinean behera egin ahala.

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta frantsesa dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 35,8), eta ehuneko horrek behera egiten du nabarmen adinean behera egin ahala. Hortaz, gazteenen (16-24 urte bitartekoak) lehen hizkuntza euskara edo euskara eta frantsesa dutenen ehunekoa % 13,4koa da. Horren ondorioz, lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoak gora egiten du


adinean behera egin ahala. Izan ere, 65 urte edo gehiagokoen artean frantsesa % 64,1en lehen hizkuntza bada ere, 16 eta 24 urte bitartean dituztenen % 86,6 da.



Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa Iparraldean hiru lurraldeetan ari da atzera egiten. Joera horiek guztiak hiru lurraldeetan gertatzen badira ere, alde handiak daude bateko eta besteko ehunekoen artean.

BAMen 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen % 5 de euskara lehen hizkuntza bakar moduan edo frantsesarekin batera jaso dutenen ehunekoa. Nagusienen artean, aldiz, handiagoa da ehunekoa (% 17,2), ia hirukoitza.


16. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. BAM, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


Lapurdi barnealdean euskara soilik eta erdararekin batera da 65 urte edo gehiagoko % 41en lehen hizkuntza, baina ehuneko hori nabarmen eta etengabe jaitsiz doa, eta % 14,3koa da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean.

17. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Lapurdi barnealdea, 2011 (%)



Nafarroa Beherean eta Zuberoan lehen hizkuntza euskara soilik eta frantsesarekin batera dutenen beherakada ere handia da adinean behera egin ahala. Izan ere, 65 urte edo gehiagoko biztanleen % 76,1ek euskara hutsik edo erdararekin batera jaso du, eta 16-24 urte bitarteko gazteen % 40,7k.

18. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Nafarroa Beherea eta Zuberoa, 2011 (%)



Lehen hizkuntzaren adinaren araberako bilakaerari dagokionez, duela 15 urte lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara zutenen ehunetik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (% 40,4) eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala, eta 16-24 urte bitartekoek zuten ehunetik txikiena (% 21,4).

Gaur egun ere, 65 urtetik gorakoek dute ehunetik altuena (% 35,8), eta gazteenek ere aurreko adin-taldeetakoek baino ehuneko txikiagoa dute (% 13,4).

**4. taula.** Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera.  
Iparraldea, 1996-2011 (%)

	Guztira	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>2011</b>	<b>239.000</b>	<b>62.000</b>	<b>57.000</b>	<b>61.000</b>	<b>32.000</b>	<b>27.000</b>
Euskara	19,5	30,2	23,2	15,5	9,9	7,7
Euskara eta erdara	5,4	5,6	4,2	5,1	7,5	5,7
Erdara	75,1	64,1	72,6	79,4	82,6	86,6
<b>1991</b>	<b>212.000</b>	<b>53.000</b>	<b>41.000</b>	<b>56.000</b>	<b>34.000</b>	<b>28.000</b>
Euskara	26,4	38,0	31,0	26,4	15,6	11,0
Euskara eta erdara	5,2	2,4	3,5	5,1	7,2	10,4
Erdara	68,5	59,6	65,5	68,5	77,2	78,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


### 2.3. ELEBIDUNAK LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA

Iparraldeko 16 urtetik gorako elebidunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko dugu orain.

Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko elebidunen ia hiru laurdenak (% 73,8) euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira (38.000 pertsona). Elebidunen beste % 13,1ek euskara jaso du etxean, baina erdararekin batera, hau da, jatorrizko elebidunak dira (7.000 pertsona). Aldi berean, elebidunen % 13,1ek ez du euskararik jaso etxean, etxetik kanpo ikasi du, hau da, euskaldun berriak dira (7.000 pertsona).




19. irudia. Elebidunak lehen hizkuntzaren arabera. Iparraldea, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Duela 15 urte, ia elebidun guztiak euskaldun zaharrak ziren (% 85). Jatorrizko elebidunak % 11,1 ziren eta euskaldun berrien ehuneko oso txikia zen (% 3,9). Hortaz, 15 urtean bederatziko puntuko hazkundea izan du euskaldun berrien ehunekoak.

20. irudia. Elebidunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Datuak lurraldearen arabera aztertuz gero, euren arteko aldeak azpimarratzekoak dira. BAMen eta Lapurdi barnealdean euskaldun zaharren ehunekoa handia izan arren, (% 73,3 eta % 66,7 hurrenez hurren), euskaldun berriak ere gero eta gehiago dira (% 17,4 eta % 17,1 hurrenez hurren). Bestalde jatorrizko elebidunen ehunekorik handiena Lapurdi barnealdean dago eta ia euskaldun berriak beste dira (% 16,2). BAMen jatorrizko elebidunen ehunekoa Lapurdi barnealdekoa baino txikiagoa da (% 9,3)

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, elebidun gehien-gehienak euskaldun zaharrak dira (% 84,3). Era berean, hamar elebidunetik bat jatorrizko elebidunak dira (% 10,5), eta euskaldun berrien ehunekoa oso txikia da (% 5,5).


21. irudia. Elebidunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)



Adinaren eta lehen hizkuntzaren arabera bilakaerari dagokionez, elebidunen multzoa aldatu egin da azken 15 urteotan.

Egia da orain lehen bezala euskaldun zaharrak nagusi direla adin-talde guztietan, baina gero eta ehuneko txikiagoa dute adinean behera egin ahala. Era berean, jatorrizko elebidunek pisu handia hartu dute gazteen artean, baina pisurik handiena euskaldun berriek hartu dute, batez ere 35 urtetik beherakoen artean.

**22. irudia.** Elebidunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera.  
Iparraldea, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 2.4. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Familia bidezko transmisioa nolakoa izan den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean. Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Gurasoak biak elebidunak izanik, seme-alaben % 68k euskara soilik jaso du Iparraldean, % 12,2k euskara eta erdara, eta % 19,8k ez du euskararik jaso.


Gurasoetako bat baino ez izanik elebiduna, gehienek erdara soilik transmititu dute (% 80,5) alegia. Ia bostenak euskara eta erdara transmititu ditu (% 19,5).

Horrezaz gain, gaur egungo transmisioa nolakoa den jakiteko, 2 eta 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuek zein hizkuntza transmititu duten aztertu da. Datuen arabera, guraso biak elebidunak direnean, seme-alaben % 87k euskara jaso du etxean. Horietako gehienek (% 54), euskara hutsik eta herenak erdararekin batera (% 33). Guraso elebidunen % 13k ez du euskararik transmititu.

Bikote mistoen kasuan, hau da, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, seme-alaba gehienek euskara eta erdara jaso dituzte (% 56), eta % 44k ez du euskararik jaso.

Euskararen familia bidezko transmisioan aldaketarik handiena bikote mistoen artean gertatu da. Lehen, adin guztiak kontuan hartuz, gehienek ez zuten euskararik transmititzen (% 80,5) eta orain ez dira erdira iristen (% 44) transmititzen ez dutenak.

**23. irudia.** Seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen ezagutzaren arabera. Iparraldea, 2011 (%)



## 2.5. EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten hiru laurdenek euskara gorde dute (% 74,7). Hortaz, lautik bat lehen hizkuntza euskara izanik, gaur egun ez da elebiduna (% 24,3), hau da, euskara galdu du osorik edo partzialki (15.000 pertsona). Galera gehienak galera partzialak dira (10.000 pertsona). Pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira. Horiezaz gain, beste 5.000 pertsonak erabat galdu dute euskara. Hortaz, galera osoak dira.


Aldi berean, lehen hizkuntza frantsesa edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan arren, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 7.000 pertsona daude. Elebidun guztien % 13,1 dira. Horiek irabazi osoak dira.

Badira beste 12.000 lagun lehen hizkuntza erdara izan arren, gaur egun euskaraz ondo ulertzeko gai direnak, hau da, partzialki euskaldun berriak dira.

Ikusten denez, galerak irabaziak baino handiagoak dira oraindik, baina lehen hizkuntza euskara dutenak euskara galtzen jarraitu arren, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza erdara izanik, euskara ikasten dutenak eta gaur egun elebidun direnak.

Alde esanguratsuak daude adinaren arabera. Euskara irabazi dutenen ehunekoa txikia da 35 urtetik gorakoan artean. Esate baterako 35 eta 49 urte dituztenen artean % 2,5 dira euskaldun berriak. Gazteenen artean, ordea, 16 eta 24 urte dituztenen artean hain zuzen, euskaldun berrien portzentajea % 6,8koa da, hau da, ia hiru aldiz handiagoa.

24. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak, adinaren arabera. Iparraldea, 2011 (%)



Galerak eta irabaziak Iparraldeko hiru lurraldeetan izan arren, ehunekoak ez dira berdinak.

BAMen biztanleriaren % 3,9k galdu du euskara osorik edo partzialki eta % 1,5ek ikasi du euskara. Ikusten denez, gehiago dira galdu dutenak ikasi dutenak baino. Partzialki euskaldun berriak % 3,9 dira.

Lapurdi barnealdean biztanleriaren % 6,9k galdu du euskara osorik edo partzialki. Dena dela, euskaldun berrien ehunekoa ere gero eta handiagoa da (% 4,1), eta partzialki euskaldun berriak ere gero eta gehiago dira (% 6,2). Horrekin ikusten da Lapurdi barnealdeko galeren eta irabazi osoen arteko aldea gainerako eskualdeetako baino txikiagoa dela euskaldun berriei esker.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan biztanleriaren % 11,7k galdu du euskara osorik edo partzialki. Euskaldun berriak, aldiz, % 2,9 dira eta partzialki euskaldun berriak % 5,1. Ikusten denez, askoz gehiago dira erdaldundu direnak euskaldundu direnak baino, galerak irabaziak baino askoz handiagoak dira.

### 3. Euskararen erabilera

#### 3.1. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA


Euskarak gizartean duen erabileraz jabetzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak indize bat eratu zuen 2001ean. Indize horri euskararen erabileraren tipologia deitzen zaio, eta honako erabilera-eremu hauek hartzen dira kontuan: etxea (bikotekidea, seme-alabak, aita, ama eta neba-arrebak), lagunak eta eremu formala (dendak, bankuak, osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak). Jarraian emango diren erabilerari buruzko datuak tipologia horren arabera izango dira.

Iparraldean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 18,9k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a. % 9,6k euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b. Aldi berean, % 9,3k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek (% 81,1ek) erdara erabiltzen dute beti (% 77,1) edo ia beti (% 4).

25. irudia. Euskararen erabileraren tipologia. Iparraldea, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak behera egin du Iparraldean. Euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa erdira jaitsi da (1996n % 5,4 ziren eta 2011n % 2,5). Euskara erdara beste erabiltzen dutenen portzentajeak eta euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenenak ere behera egin dute, baina askoz gutxiago (0,8 eta 0,5 puntu, hurrenez hurren).

5. taula. Euskararen erabileraren bilakaera. Iparraldea, 1996-2011


	1996	2001	2011	1996	2001	2011
<b>Guztira</b>	<b>212.000</b>	<b>222.000</b>	<b>239.000</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Euskaraz erdaraz baino gehiago	11.000	10.000	6.000	5,4	4,5	2,5
Euskaraz erdaraz beste	17.000	12.000	17.000	7,9	5,5	7,1
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	21.000	26.000	22.000	9,8	11,7	9,3
Oso gutxi euskaraz	8.000	9.000	10.000	3,8	4,2	4,0
Beti erdaraz	155.000	165.000	184.000	73,1	74,2	77,1

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 2,1 dira BAMen, % 10,2 Lapurdi barnealdean eta % 30,6 Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Horiez gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 4 dira BAMen, % 11 Lapurdi barnealdean eta % 19,6 Nafarroa Beherean eta Zuberoan.



26. irudia. Euskararen erabileraren tipologia lurraldearen arabera. Iparraldea, 2011 (%)




Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak behera egiten jarraitzen du Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Hala ere, esan behar da azken hamar urteotako jaitsiera aurreko urteetako baino nabarmen txikiagoa izan dela. 1996n biztanleen % 45,6k erabiltzen zuen euskara erdara beste edo gehiago, 2001ean % 33,2k, eta 2011n % 30,6k.

Lapurdi barnealdean ere behera egin du euskararen erabilerak azken hamabost urteotan (1996an % 15,7k erabiltzen zuen euskara erdara beste edo gehiago, eta 2011n % 10,2k). Baina 2001etik 2011ra bitartean hazkunde txiki bat izan da (0,5 puntu). Igoera hori kopuruetan esanguratsua ez den arren, tentuz jarraitu beharko da datozen neurketetan.

BAMen ia ez da gorabeherarik izan euskararen erabilerari dagokionez. 1996an % 1,7k erabiltzen zuen euskara erdara beste edo gehiago, eta 2011n % 2,1k. Hazkunde txiki hori, Lapurdi barnealdean bezala, azken hamar urteotan gertatu da.

**27. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, lurraldearen arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


### 3.2. EUSKARAREN ERABILERA ADINAREN ARABERA

Iparraldean, 50 urtetik gorakoen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena: 50 eta 64 urtekoen artean % 10,2k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta 65 urtetik gorakoen artean % 16,6k.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea oso antzekoa da 50 urtetik beherako adin-tarte guztietan: 16 eta 24 urteko gazteen artean % 5, 25 eta 34 urtekoen artean % 6, eta beste horrenbeste 35 eta 49 urtekoen artean.

Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, zertxobait handiagoak dira gazteen artean (16 eta 24 urtekoen artean % 12,1, eta 25 eta 34 urtekoen artean % 11,6), gainerako adin-taldeetan baino (% 10etik behera 35 urtetik gorako adin-talde guztietan).

28. irudia. Euskararen erabilera adinaren arabera. Iparraldea, 2011 (%)




- Euskara erdara beste edo gehiago
- Euskara erdara baino gutxiago
- (la) beti erdaraz

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

BAMen 65 urtetik gorakoek erabiltzen dute gehien euskara (% 4,2). Gainerako adin-taldeetan erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 2 baino gutxiago dira, eta 35 urtetik beherako gazteen artean ez dira % 1era iristen.


Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen kasuan, aldiz, kontrakoa gertatzen da. 35 urtetik beherako gazteak dira ehunekorik handienak dituztenak (25 eta 34 urtekoen % 6,6 eta 16 eta 24 urtekoen % 7). 35 urtetik gorakoaren artean euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoa nabarmen txikiagoa da.

**29. irudia.** Euskararen erabilera adinaren arabera. BAM, 2011 (%)

Lapurdi barnealdean ere 65 urtetik gorakoak dira euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekorik handiena dutenak (% 17,8). Ehuneko horrek behera egiten du adinarekin batera, 35 urtera arte (35 eta 49 urtekoen artean % 4,7). Baina 35 urte baino gutxiago dituztenen artean joera-aldaketa dago eta gora egiten du euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak: 16 eta 24 urteko gazteen artean % 6,9 dira.

Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekorik handienak, aldiz, gazteen artean daude (16 eta 24 urtekoen artean % 14,7 dira, eta 25 eta 34 urtekoen artean % 12,9). Horien ondoren 65 urtetik gorakoak dira ehunekorik handiena dutenak (% 11,3).


30. irudia. Euskararen erabilera adinaren arabera. Lapurdi barnealdea, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


Nafarroa Beherean eta Zuberoan 65 urtetik gorakoen % 49,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Adinak behera egin ahala, baina, nabarmen jaisten da portzentajea. Izan ere, 35 eta 49 urtekoen artean % 23 dira euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, eta 16 eta 24 urtekoen artean % 14,4.

31. irudia. Euskararen erabilera adinaren arabera.  
Nafarroa Beherea eta Zuberoa, 2011 (%)



1996 eta 2011 bitartean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 35 urtetik gorako adin-talde guztietan. 35 urtetik beherakoen artean, aldiz, gehiago dira gaur egun euskara erabiltzen dutenak duela 15 urte baino. Nahiz eta oraindik erabilera-portzentajerik txikiena izaten jarraitzen duen, hazkunderik handiena 16 eta 24 urteko gazteen artean eman da.

**32. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.


### 3.3. EUSKARAREN ERABILERA EREMUAREN ARABERA

#### EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

Iparraldean 16 urte edo gehiago dituzten biztanleen % 10,7k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du etxean, % 6,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta % 82,6k beti edo ia beti erabiltzen du erdara.

Etxeko kideen arteko erabilerari dagokionez, aldea txikia da etxeko erabilera orokorrarekiko. Euskara gehien neba-arrebekin (% 13,6) eta seme-alabekin (% 11,1) erabiltzen da. Euskararen erabilera % 10,8koa da bikotekidearekin eta % 7,3koa gurasoekin.

33. irudia. Euskararen erabilera etxean. Iparraldea, 2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Azken 15 urteotan etxeko erabilerak behera egin du Iparraldean (5,3 puntu). Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak % 16 ziren 1996an eta % 10,7 dira 2011n. Etxeko kideekiko erabileraren bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak behera egin du etxeko kide guztiekin: bikotekidearekin 5,7 puntu, amarekin 9,3 puntu, aitarekin 9,6 puntu, neba-arrebekin 6 puntu eta seme-alabekin 5,7 puntu. Hala ere, azpimarratzekoa da azken hamar urteotan seme-alabekiko erabilerak izan duen hazkundera, txikia izan bada ere.



**34. irudia.** Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera.  
Iparraldea, 1996-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## EUSKARAREN ERABILERA EREMU HURBILEAN

Eremu hurbileko erabilerari buruz ari garenean, lagunekin, auzokideekin, lankideekin eta dendariekin egiten dugun erabileraz ari gara. 16 urte edo gehiago dituzten Iparraldeko biztanleen % 14,5ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lagunekin, % 10,9k lankideekin, % 10,4k auzokideekin eta % 6,6k dendariekin.


Horietaz gain, bada pertsona multzo bat euskara erabiltzen duena, baina erdara baino gutxiago. Lagunekin % 6,3 dira, dendariekin % 5,1, eta gainerako erabilera eremuetan % 4 inguru.

35. irudia. Euskararen erabilera eremu hurbilean. Iparraldea, 2011 (%)



Azken 15 urteotan euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du bilakaera aztertu den hiru eremuetan. Baina badirudi lagunekin eta lankideekin joera-aldaketa gertatzen ari dela azken 10 urteotako datuak kontuan hartzen baditugu.

**36. irudia.** Eremu hurbilean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1996-2011 (%)




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## EUSKARAREN ERABILERA EREMU FORMALEAN

Eremu formaleko erabilera neurtzeko, Iparraldeko biztanleek bankukoekin, osasun-zerbitzuetakoekin, udal zerbitzuetakoekin eta Administrazio publikoko langileekin egiten duten erabilera jaso dugu.


Iparraldeko biztanleen % 8,4k erdara beste edo gehiago erabiltzen du udal zerbitzuetakoekin, % 3,5ek osasun-zerbitzuetakoekin eta % 3,1ek bankukoekin. Administrazio publikoko langileekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 0,6 dira.

37. irudia. Euskararen erabilera eremu formalean. Iparraldea, 2011 (%)



Eremu formalean euskararen erabilera behera egin du azken 15 urteotan. Jaitsierak esanguratsuak izan dira bai eremu publikoan (udal eta osasun zerbitzuetan), baita eremu pribatuan ere (bankuetan).


**38. irudia.** Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1996-2011 (%)



### 3.4. EUSKARAREN ERABILERA ELEBIDUNEN ARTEAN

Orain arte eman ditugun erabilerari buruzko datuak 16 urtetik gorako biztanle guztiak, euskaldunak eta ez euskaldunak, kontuan hartuta izan dira. Jarraian ikusiko ditugunak, aldiz, elebidunak bakarrik kontuan hartuta izango dira.

Elebidunen % 43,5ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, % 35,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako % 20,8k ez du inoiz edo ia inoiz erabiltzen euskara.

**39. irudia.** Euskararen erabilera elebidunen artean. Iparraldea, 2011 (%)

Azken 15 urteotan euskara erdara baino gehiago erabiltzen duten elebidunen ehunekoak 8,9 puntu egin du behera. Aitzitik, hazi egin da euskara erdara beste erabiltzen dutenen ehunekoa (3,4 puntu).

Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen duten elebidunen ehunekoa ere hazi egin da (3,1 puntu). Azkenik, beti edo ia beti erdaraz diharduten elebidunen ehunekoak gorabehera txikiak izan ditu azken 15 urteotan (2,3 puntu egin du behera).

**6. taula.** Elebidunen euskararen erabileraren bilakaera.  
Iparraldea, 1996-2011

	1996	2001	2011	1996	2001	2011
<b>Guztira</b>	<b>56.000</b>	<b>55.000</b>	<b>51.000</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Euskaraz erdaraz baino gehiago	11.000	10.000	6.000	20,5	18,1	11,6
Euskaraz erdaraz beste	17.000	12.000	17.000	29,7	22,0	33,1
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	18.000	21.000	18.000	31,8	37,9	34,9
Oso gutxi euskaraz	4.000	4.000	6.000	6,8	8,2	11,7
Beti erdaraz	6.000	8.000	4.000	11,3	13,8	8,7

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

1996 eta 2011 bitartean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen ehunekoak behera egin du 50 urtetik gorako elebidunen artean.

50 urtetik beherako elebidunek, aldiz, euskara gehiago erabiltzen dute gaur egun duela 15 urte baino. 35 eta 49 urteko elebidunen % 27,5ek erabiltzen zuten 1996an euskara erdara beste edo gehiago, eta % 38,7 erabiltzen du 2011n. 16 eta 24 urteko elebidunen artean % 23,1ek erabiltzen zuten 1996an, eta % 30,4k erabiltzen du 2011n.


### 3.5. ELEBIDUNEN ERABILERA ERRAZTASUNAREN ETA LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA

Iparraldeko euskal elebidunen %91,3k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Hau da, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen diren ia elebidun guztiek euskararen erabilera trinkoa egiten dute.

Elebidun orekatuen kasuan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 50,6 dira, eta erabilerak behera egiten du adinak behera egin ahala.

Azkenik, erdal elebidunen artean, hau da, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnen artean, % 5,9 dira euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak.

40. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunak, erraztasunaren arabera. Iparraldea, 2011 (%)





Erraztasunak lotura zuzena du lehen hizkuntzarekin, eta batak eta besteak eragina dute erabileran.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lehen hizkuntza euskara duten elebidunen % 52k, lehen hizkuntza euskara eta erdara duten % 31k eta lehen hizkuntza erdara duten elebidunen % 16k.

### 3.6. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Erabilerari buruz egin ditugun azterketek behin eta berriro erakusten digute euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi direla:

- euskaldunen dentsitatea harreman-sarean, eta
- erraztasuna euskaraz egiteko.


Bi faktore horiez gain, badira beste batzuk ere eragina dutenak, hala nola, lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa.

Faktore horiek erabilera-eremu nagusietan zenbateraino eragiten duten zehatz-mehatz jakiteko, korrelazioak aztertuko ditugu jarraian. Korrelazioak bi aldagaien arteko harremana zehazten du, eta 0 eta 1 arteko zenbaki baten bidez adierazten da. Zenbakia zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da faktorearen eragina.

Etxean, lagunekin eta lankideekin korrelazioak nolakoak diren azaldu, eta balioak handienetik txikienera emango ditugu.

Etxeko erabileran gehien eragiten duen faktorea etxeko euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakiten euskaraz (0,709). Bigarren faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da (0,570). Gune soziolinguistikoak (0,321), lehen hizkuntzak (0,294) eta jarrerak (0,263) eragin txikiagoa dute.


41. irudia. Korrelazioak: erabilera etxean. Iparraldea, 2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lagunekiko erabileran gehien eragiten duen faktorea euskaraz zenbat lagunek dakiten da (0,727). Bigarren faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da (0,677). Euskararekiko interesak (0,308) eta jarrerak (0,284) ere eragina dute, baina aurrekoek baino nabarmen txikiagoa. Azkenik, gune soziolinguistikoa (0,271) EAEn eta Nafarroan baino askoz eragin txikiagoa du.


42. irudia. Korrelazioak: erabilera lagunekin. Iparraldea, 2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lankideekiko erabileran oso nabarmena da euskaldunen dentsitateak lankideen artean duen eragina (0,821). Gainerako faktoreek etxean eta lagunartean baino eragin askoz ere txikiagoa dute. Bigarren faktorea erraztasuna da (0,402). Ondoren datoz interesa (0,280), jarrera (0,246) eta gune soziolinguistikoa (0,201).

43. irudia. Korrelazioak: erabilera lankideekin. Iparraldea, 2011




Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

### 3.7. EUSKARAREN ERABILERA INTERNETEKO GIZARTE-SAREETAN

2011ko inkesta soziolinguistikoa, Interneteko gizarte-sareen erabilerari buruz galdetu da. Inkestatuen % 29,2k gizarte-sareak erabiltzen dituela adierazi du: % 17,5ek egunero edo astean bizpahiru egunetan, eta % 11,7k asteburuan edo noizean behin. Interneteko gizarte-sareak gazteek erabiltzen dituzte gehienbat: 16 eta 24 urtekoen % 85,8k, gazte erabiltzaileen % 37,4k egunero.

Erabiltzaileen % 2,9k euskara erdara beste erabiltzen du eta % 1,7k euskara erdara baino gehiago. Gazteen artean (16-24 urte), euskara erdara beste % 4,1ek erabiltzen du eta % 2,5ek euskara erdara baino gehiago.

44. irudia. Euskararen erabilera Interneteko gizarte-sareetan, adinaren arabera. Iparraldea, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

## 4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera

### 4.1. JARRERAREN TIPOLOGIA

Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 94k uste du euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela etorkizunean. % 3k euskara hutsean egin beharko litzatekeela uste du eta % 2k, halaber, frantses hutsean.

Hizkuntzaren aberastasunari dagokionez, biztanleen erdiak baino gehiagok (% 56) uste du euskara frantsesa bezain aberatsa dela, eta gutxi dira (% 6) kontrakoa uste dutenak.

Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen biztanleen gehiengo zabal batentzat, % 84rentzat hain zuzen, eta arazo iturri izan daiteke % 10entzat.


Bestalde, umeak murgiltze-programetan sartzea ez dela ona adierazpenarekin ez dator bat biztanleen % 76.

Biztanleen gehiengoak interesa erakusten du euskararekiko. Izan ere, biztanleen % 85ek euskararekiko interesa adierazten du: % 25ek oso handia, % 36k nahiko handia eta % 24k zertxobait. Gainera, Iparraldeko lurralde guztietako biztanleek adierazten dute euskarekiko interesa dutela.

7. taula. Euskarari buruzko interesa lurraldearen arabera. Iparraldea, 2011 (%)

	Iparraldea	BAM	Lapurdi barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Oso handia	25	18	27	39
Nahiko handia	36	33	38	37
Zertxobait	24	28	23	17
Txikia	7	10	6	4
Bat ere ez	7	10	5	2
Ed/Ee	0	1	0	1

Oro har, Iparraldeko biztanleen % 38,5 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 40,2k ez du ez aldeko ez kontrako jarrerarik, eta % 21,3k aurkako jarrera du.




Euskararen erabilera sustatzearen aldeko neurriak hartzeari buruzko iritziak, aldaketa txiki batzuk izan ditu azken hamabost urteotan.

Aldaketarik txikiena euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak izan du. Horrela, 1996ko inkestan % 42,3 euskararen erabilera sustatzearen alde zegoen, % 38,2 zen 2001ean, eta % 38,5 da oraingoan.

Ez alde ez kontra daudenen portzentajeari dagokionez, aipatzekoa da ehunekoak behera egin duela. 1996an % 45 zen, 2001ean % 47, eta % 40,2 da inkesta honetan.

Azkenik kontra daudenen portzentajeak gora egin du. % 12,7 zen 1996an, bost urte geroago % 14,8 zen, eta % 21,3 da azken inkesta honetan.

46. irudia. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera.  
Iparraldea, 1996-2011 (%)



Lurraldeari dagokionez, euskara bultzatzeko neurrien aldeko jarrera txikiagoa du BAMEk, nahiz eta gehiago izan alde daudenak (% 29,3) aurka (% 26,8) daudenak baino. Bestalde, % 43,9k ez du aldeko edo kontrako jarrerarik.

Nafarroa Beherean, Zuberoan eta Lapurdi barnealdean nagusi da aldeko jarrera. Lapurdi barnealdean % 42,4 alde dago, eta % 19,6 aurka. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, % 54,2 alde dago, eta % 10 aurka.

**8. taula.** Euskara sustatzeari buruzko jarrera, lurraldearen arabera.  
Iparraldea, 2011 (%)

	Iparraldea	BAM	Lapurdi barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Aldekoa	38,5	29,3	42,3	54,2
Ez alde, ez aurka	40,2	43,9	38,1	35,8
Aurkakoa	21,3	26,8	19,6	10

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Elebidunak dira aldekoenak, % 73 euskararen erabilera sustatzearen aldeko edo oso aldekoa baita. Elebidunen % 22,1 dago ez alde ez aurka, eta % 4,9 aurka.

Bestalde, elebidun hartzaile gehienak ere euskararen erabilera sustatzearen aldekoak dira (% 62,8), beste % 27,3 ez alde ez aurka dago, eta % 9,9 aurka.

Erdaldunen artean euskara sustatzearen alde daudenen portzentajea askoz txikiagoa da, % 24,7koa hain zuzen ere. Dena dela, erdaldun gehienak ez daude ez alde ez aurka (% 47,5) eta % 27,8 aurka.

## 4.2. EUSKARARI BURUZKO ZENBAIT IRITZI

Euskararen erabilera sustatzeko neurri zehatzei dagokienez, hiritarrek irakas-kuntzan, Administrazioan eta hedabideetan euskara sustatzeko neurriak hartzeaz dituzten iritziak eta jarrerak aztertu dira.

Oniritzirik handiena haurren euskalduntzeak dauka. % 51k uste du ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea, eta % 34 aurka dago.




Administrazioa euskalduntzearen aldeko jarrera ere nagusi da. Izan ere, Iparraldeko biztanleriaren % 53 ados dago Administrazioan sartzeko euskara jakin behar izatearekin, eta % 31 aurka.

Hedabideei dagokienez, biztanleriaren % 55ek uste du irrati eta telebistek saio gehiago eman behar lituzketela euskaraz, eta % 20 aurka dago.

Euskara galtzeko arriskuan dago Iparraldeko biztanleen % 41en iritziz, eta kontrakoa uste dutenak % 49 dira.

Irakaskuntzari dagokion beste iritzi batekin jarraituz, gehienek (% 53) irakaskuntza elebiduna nahiko lukete (“euskaraz, frantsesa ikasgai gisa” edo “euskaraz eta frantsesez”), eta gutxiago dira frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntza nahiko luketenak (% 44). Azpimarratzekoa da 15 urtean “euskaraz, frantsesa ikasgai” irakastearen aldeko hautuak izan duen hazkundera, 12 puntukoa, alegia.

47. irudia. Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea? Iparraldea, 1996-2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lurraldearen arabera, badaude desberdintasunak. BAMeko % 40k nahiko luke irakaskuntza elebiduna bere seme-alabentzat. Bestalde, % 55ek frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntzaren alde egiten du.

Lapurdi barnealdean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan gehienek irakaskuntza elebiduna nahiko lukete. Lapurdi barnealdean % 59k irakaskuntza elebidunaren aldeko hautua egiten du, eta % 39k frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntza. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, % 69k irakaskuntza elebiduna nahiko luke eta % 27k frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntza.

**9. taula.** Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea? Iparraldea, 2011 (%)

	Iparraldea	BAM	Lapurdi barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Euskaraz, frantsesa ikasgai	19	13	20	31
Euskaraz eta frantsesez	34	27	39	38
Frantsesez, euskara ikasgai	24	26	23	19
Frantses hutsean	20	29	16	8
Ed/Ee	4	5	3	4

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hizkuntzaren aldeko politika publikoaren balorazioari dagokionez, % 29,9k dio desegokia dela, eta % 25,3k egokia. Horrezaz gain, askok ez dakite edo ez dute erantzuten (% 28,4). Zergatia galdeturik, % 26,4k dio balorazioa desegokia dela gutxi egin delako.

Azkenik, elebidunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izategatik, eta % 33k erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakiteagatik, eta % 46k erantzun du diskriminatuta sentitu dela.

## 5. Laburbilduz

- Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 21,4 elebiduna da, % 9,1 elebidun hartzailea eta % 69,5 erdalduna. Iparraldeko elebidunak duela 15 urte baino gutxiago dira. Gaur egun, 51.100 elebidun daude, 1996an baino 5.000 gutxiago.
- Elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago, eta ehunekoa behera doa adinean behera egin ahala, gazteenen adin tartera iritsi arte. Horrela, 2011ko 16-24 urte bitarteko gazteen elebidunen ehunekoa % 17,6koa da, 1996koa baino 6 puntu handiagoa.
- Hamar elebidunetik zortzi pasatxo euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira, hau da, etxean jaso dute euskara. Adinak behera egin ahala, ordea, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunen ia % 40k etxetik kanpo ikasi du euskara, eskolan edo euskaltegian.
- Elebidunek euskaraz egiteko duten erraztasunari dagokionez, behera egin du azken 15 urteotan. 1996an elebidunen % 34 hobeto moldatzen zen euskaraz erdaraz baino, eta orain % 23,1 da, eta gazteen artean % 11,9.
- Gaur egun, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso elebidun gehienek euskara transmititzen dute. Guraso biak elebidunak direnean, seme-alaben % 87k euskara jasotzen du etxean; erdiek baino gehiagok euskara soilik (% 54), eta herenak erdararekin batera (% 33). Bikote mistoetan, erdia baino gehiago dira euskara etxean jasotzen dutenak, erdararekin batera (% 56).
- Gaur egun Iparraldean biztanleen % 9,6k euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Beste % 9,4k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.
- Euskararen erabilerak behera egin du, batez ere Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Lapurdi barnealdean ere behera egin du, baina azken hamarkadan hazkunde txiki bat izan du, eta datozen neurketetan tentuz jarraitu beharko da. BAMen, aldiz, erabilerak ez du ia aldaketarik izan.
- Euskararen erabilerak behera egin du eremu guztietan, hau da, etxean, eremu hurbilean eta eremu formalean.

- Elebidunak bakarrik kontuan hartzen baditugu, 50 urtetik gorakoek duela 15 urte baino gutxiago erabiltzen dute euskara. 50 urtetik beherakoek, aldiz, euskara gehiago erabiltzen dute gaur egun.
- Horrela, datu orokorrari erreparatuta, gaur egun duela 15 urte baino txikiagoa da elebidunen artean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa. Gazteei soilik erreparatuta, aldiz, 1996an baino euskara gehiago erabiltzen dute.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak aldaketa txiki batzuk izan ditu azken 15 urteotan. Gaur egun, % 38,5 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, 1996an baino 3,8 puntu gutxiago.
- Biztanleen gehiengoak interes handia erakusten du euskararekiko (% 61) eta irakaskuntza elebiduna hautatuko luke seme-alabentzat (% 53).



## Fitxa teknikoa

- Inkesta soziolinguistikoak aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleek osatzen dute (2.649.000 pertsona).
- Landa-lana Siadeco Koop EM enpresak egin du.
- Datu-bilketa 2011ko ekain eta abendu bitartean egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.
- Laginketa polietapikoa izan da, eta inkestak egiteko, etxebizitzan aukeraketa geruzatua egin da, guneko soziolinguistikoaren eta udalerriaren arabera.
- Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen arabera haztatu dira emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta.
- V. Inkesta Soziolinguistikoan 7.900 inkesta egin dira guztira: 4.200 EAEn, 2.000 Iparraldean eta 1.700 Nafarroan.
- Euskal Herriko lagin osoaren akats-tartea  $\pm\%$  1,48koa da % 95,5eko konfiantza-mailarako eta  $p=q=\%$  50. Konfiantza-maila bererako, euskaldunen laginketa-errorea  $\pm\%$  1,86koa da eta ez euskaldunena  $\pm\%$  1,91koa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko lagin osoaren akats-tartea  $\pm\%$  1,87koa da % 95,5eko konfiantza-mailarako eta  $p=q=\%$  50. Konfiantza-maila bererako, lurraldekako laginketa-errorea honakoa da: Araban  $\pm\%$  4,01koa, Bizkaian  $\pm\%$  2,78koa eta Gipuzkoan  $\pm\%$  3,02koa.
- Nafarroako Foru Erkidegoko lagin osoaren akats-tartea  $\pm\%$  3,1koa da % 95,5eko konfiantza-mailarako eta  $p=q=\%$  50. Konfiantza-maila bererako, eremuko laginketa-errorea honakoa da: eremu euskaldunean  $\pm\%$  4,79koa, eremu mistoan  $\pm\%$  4,30koa eta eremu ez euskaldunean  $\pm\%$  5,85koa.
- Iparraldeko lagin osoaren akats-tartea  $\pm\%$  2,31koa da % 95,5eko konfiantza-mailarako eta  $p=q=\%$  50. Konfiantza-maila bererako, lurraldekako laginketa-errorea honakoa da: BAMen  $\pm\%$  3,65koa, Lapurdin  $\pm\%$  3,65koa eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan  $\pm\%$  4,47koa.



## Oinarrizko informazioa tauletan

### Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. 1991-2011 (%)

	1991			2011		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldunak	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldunak
Euskal Herria	22,3	7,7	70	27	14,7	58,4
EAE	24,1	8,5	67,4	32	17,7	50,6
Nafarroa	9,5	4,6	85,9	11,7	7,5	80,8
Iparraldea*	26,4	9,3	64,2	21,4	9,1	69,5

### Elebidunen erraztasunaren bilakaera. 1991-2011 (%)

	1991			2011		
	Euskal elebidunak	Elebidun orekatuak	Erdal elebidunak	Euskal elebidunak	Elebidun orekatuak	Erdal elebidunak
Euskal Herria	34,6	27,7	37,8	26,6	30,6	42,7
EAE	35,4	25,4	39,9	27,1	30	42,9
Nafarroa	40,6	26,6	32,8	25	27,1	47,9
Iparraldea*	34	32,1	33,9	23,1	42,6	34,3

### Elebidunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. 1991-2011 (%)

	1991			2011		
	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak
Euskal Herria	79,3	7,1	13,6	52,5	12,6	34,9
EAE	79	6,8	14,2	51,2	12,2	36,6
Nafarroa	76,6	7,4	16	47,6	15,3	37,1
Iparraldea*	85	11,1	3,9	73,8	13,1	13,1

\* Oharra: Iparraldearen datuak 1996-2011 bitartekoak dira.



## Lehen hizkuntzaren bilakaera. 1991-2011 (%)

	1991			2011		
	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara
<b>Euskal Herria</b>	19,5	3	77,5	15,4	4,9	79,7
<b>EAE</b>	20,7	2,6	76,7	17,5	5,4	77,1
<b>Nafarroa</b>	8,1	2,1	89,8	6,1	2,8	91,1
<b>Iparraldea*</b>	26,4	5,2	68,5	19,5	5,4	75,1

## Euskararen erabileraren bilakaera. 1991-2011 (%)

	1991			2011		
	Euskaraz erdaraz beste edo gehiago	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	(la) beti erdaraz	Euskaraz erdaraz beste edo gehiago	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	(la) beti erdaraz
<b>Euskal Herria</b>	13,7	6,8	79,5	16,1	8,1	75,7
<b>EAE</b>	15,6	6,8	77,7	20	8,9	71,1
<b>Nafarroa</b>	6	3,1	90,9	5,5	4,6	89,8
<b>Iparraldea *</b>	13,3	9,8	76,9	9,6	9,3	81,2

\* Oharra: Iparraldearen datuak 1996-2011 bitartekoak dira.

**Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera.  
1991-2011 (%)**

	1991					
	Etxean (orokorra)	Bikotekidearekin	Seme-alabekin	Amarekin	Aitarekin	Neba-arrebekin
Euskal Herria	15,6	13,3	15,8	14,6	13	15,5
EAE	17,3	14,7	18,1	16	13,9	17
Nafarroa	6,6	5	6,5	6,5	6,3	6,2
Iparraldea*	16	16,5	16,5	19,2	17,8	19,6
	2011					
	Etxean (orokorra)	Bikotekidearekin	Seme-alabekin	Amarekin	Aitarekin	Neba-arrebekin
Euskal Herria	14,2	11,8	18,7	13,4	12,9	16,8
EAE	17,2	14,1	22,8	16,4	15,9	20,1
Nafarroa	5,4	4,3	8	4,9	5,1	7
Iparraldea	10,7	10,8	11,1	9,9	8,2	13,6

**Eremu hurbilean eta eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. 1991-2011 (%)**

	1991					
	Lagunekin	Lankideekin	Dendariekin	Bankukoekin	Osasun zerbitzukoekin	Udal zerbitzukoekin
Euskal Herria	14,7	13,5	12,7	11,9	6,9	11,7
EAE	16,1	15,4	14,8	14,4	8,3	13,9
Nafarroa	7,2	5,3	4,7	3,8	2,6	3,7
Iparraldea*	17,2	11,9	10,7	9,1	5,7	14,4
	2011					
	Lagunekin	Lankideekin	Dendariekin	Bankukoekin	Osasun zerbitzukoekin	Udal zerbitzukoekin
Euskal Herria	17,8	19,6	16	16,4	15,3	19,4
EAE	21,4	24,6	20,4	21,2	19,8	24,7
Nafarroa	7,2	7	5,1	5,3	4,8	6,3
Iparraldea	14,5	10,9	6,6	3,1	3,5	8,4

\* Oharra: Iparraldearen datuak 1996-2011 bitartekoak dira.

**Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. 1991-2011 (%)**

	1991			2011		
	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
<b>Euskal Herria</b>	47,5	31,7	20,9	55,2	27,7	17,1
<b>EAE</b>	55	31,1	14	62,3	26,1	11,7
<b>Nafarroa</b>	21,6	26,6	51,8	37,7	27,8	34,5
<b>Iparraldea*</b>	42,3	45	12,7	38,5	40,2	21,3

\* Oharra: Iparraldearen datuak 1996-2011 bitartekoak dira.







